


## Miren Larrea





# Herri-politiken eraldaketa errazteko artea

Liburu honetan jasotzen diren ekintza-ikerketa prozesuak Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenen baitan erraztu ditu. Orri hau, erakundeari eskertza bat izateaz gain, urte hauetan ikertaldeak bide lagun izan dituen Aldundiko kide guztiei aitortza bat da.

Bestalde, liburua autoreak Arantzazulab-en egindako ikerketa egonaldiaren baitan idatzi da, etenaldi horrek idazteko beharrezkoak ziren distantzia eta patxada eskaini dituelarik. Garrantzitsua izan da bidean Arantzazulab-eko lantaldeak erakutsitako elkartasuna ere.



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**



**LEHIAKORTASUNERAKO  
EUSKAL INSTITUTUA**  
DEUSTO FUNDAZIOA



**Arantzazulab**  
demokraziaren berrikuntza

# Herri-politiken eraldaketa errazteko artea

**Miren Larrea**

2024

Orkestra - Lehiakortasunerako Euskal Institutua  
Deusto Fundazioa

## Lurralde-Garapena Bilduma

Lan hau edozein modutan erreproduzitu, banatu, jendaurrean komunikatu edo eraldatzeko nahitaezkoa izango da jabeen baimena, legean aurreikusitako salbuespenetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Espainiako Erreprografia Eskubideen Zentroa, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

© Lehiakortasunerako Euskal Institutua - Deusto Fundazioa



Mundaiz 50, E-20012, Donostia-San Sebastián  
Tel.: 943 297 327. Fax: 943 279 323  
[comunicacion@orquestra.deusto.es](mailto:comunicacion@orquestra.deusto.es)  
[www.orquestra.deusto.es](http://www.orquestra.deusto.es)

© Publicaciones de la Universidad de Deusto  
Apartado 1 - E48080 Bilbao  
Correo electrónico: [publicaciones@deusto.es](mailto:publicaciones@deusto.es)

ISBN: 978-84-1325-227-8

 <https://doi.org/10.18543/YNTR1387>

«*Andrezaharra* naiz, hezur-haragizko gizakia, baina aldi berean metafora,  
figura poetiko-politiko.»

*Mari Luz Esteban*  
Andrezaharraren manifestua



# Aurkibidea

|                                                                                            |    |
|--------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| <b>Hitzaurrea,</b><br>Ainhoa Arrona                                                        | 11 |
| <b>Sarrera</b>                                                                             | 13 |
| <b>1. kapitulua. Herri-politiken erraztea gorputzaren memorian</b>                         | 21 |
| 1. Sarrera                                                                                 | 21 |
| 2. Herri-politikak eta ekintza-ikerketaren denboran                                        | 22 |
| 3. Ekintza-ikerketak emaitzak eman ditu                                                    | 24 |
| 4. Ekintza-ikerketaren eragina modu jarraituan hazi da epe luzean                          | 29 |
| 5. Esperientziazko jakintza, diziplinazko jakintza eta prozesuko jakintza txertatu ditugu  | 30 |
| 6. Gurea lankidetzaren eta elkarrekiko erresistentziaren historia izan da                  | 32 |
| 7. Ekintza-ikerketaren boteretik gertu egon da                                             | 34 |
| 8. Azaleratu gabeko desadostasunek prozesuak geldiarazi dituzte                            | 37 |
| 9. Emozioak gorde egin dira                                                                | 38 |
| 10. Ni neu, komunitatea eta mundua elkarri eraginez eraldatu gara                          | 40 |
| 11. Itxiera                                                                                | 41 |
| <b>2. kapitulua. Eraldaketaren esparru kontzeptual bat ekintza-ikerketarako</b>            | 43 |
| 1. Sarrera                                                                                 | 43 |
| 2. Zergatik behar dugu eraldaketaren esparru kontzeptual bat?                              | 44 |
| 3. Eraldaketa lurralde-garapenerako ekintza-ikerketan: esparru kontzeptuala                | 45 |
| 4. Eraldaketaren esferei loturiko ekarpen esanguratsuak literaturan                        | 49 |
| 5. Literaturaren eta nire esperientziaren arteko zubiak                                    | 53 |
| 6. Itxiera                                                                                 | 58 |
| <b>3. kapitulua. Pentsamolde dikotomikoak herri-politiketarako ekintza-ikerketan</b>       | 61 |
| 1. Sarrera                                                                                 | 61 |
| 2. Lehen esperientzia: Think Tankerako misio baten garatzea                                | 62 |
| 3. Bigarren esperientzia: parte-hartzea eta efizientzia Lurralde Garapenerako Laborategian | 73 |

|                                                                                                |         |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|
| 4. Hirugarren esperientzia: Lurralde Garapenerako Laborategiaren oinarrizko hizarmena erraztea | 81      |
| 5. Laugarren esperientzia: errazte-prozesuak eta generoa                                       | 86      |
| 6. Erraztea berrikustea                                                                        | 90      |
| 7. Itxiera                                                                                     | 94      |
| <br>4. kapitulua. <b>Herri-politiken errazte eraldatzailea</b>                                 | <br>97  |
| 1. Sarrera                                                                                     | 97      |
| 2. Jakintza aditua eta esperientziazko jakintza                                                | 102     |
| 3. Plangintza eta prozesu emergenteak                                                          | 107     |
| 4. Teoria eta praktika                                                                         | 111     |
| 5. Boterea eta maitasuna                                                                       | 115     |
| 6. Efizientzia eta parte-hartzea                                                               | 120     |
| 7. Arrazoia eta emozioa                                                                        | 124     |
| 8. Objektiboa eta subjektiboa                                                                  | 128     |
| 9. Publikoa eta pribatua                                                                       | 133     |
| 10. Maskulinoa eta femeninoa                                                                   | 139     |
| 11. Aktore eta erraztaile                                                                      | 144     |
| 12. Itxiera                                                                                    | 148     |
| <br>5. kapitulua. <b>Amaierako hausnarketa</b>                                                 | <br>153 |
| <br><b>Erreferentziak</b>                                                                      | <br>159 |

# Hitzaurrea

Aristotelesen bertute intelektualetatik abiatuta, Bent Flyvbjerg irakasleak phronesia, hau da, jakinduria praktikoa proposatzen du esanguratsu izan nahi duten gizarte-zientzien oinarri gisa. Jakinduria horrek ahalbidetzen baitu arazoak testuinguru zehatzetan lantzea, eta horixe da bertute intelektualik handiena, are gehiago egungo erronka handien aurrean. Gogoan dut phronesiari buruz lehenengo aldiz irakurtzean, Miren Larrearen lana etorri zitzaidala burura, hitz horrek, niretzat, lurralde-garapenerako ekintza-ikerketaren bitartez Mireni egiten ikusten niona adierazten baitzuen.

Liburu hau gorputzaren memoriatik idatzitakoa dela dio Mirenek. Eta berak esperientzian oinarrituriko jakintza gisa katalogatzen badu ere, jakintza-mota ugari barneratzen, uzartzen, artikulatzen eta sortzen dituen jakintza da gorputzaren memoria hori: JAKINDURIA, hain zuzen. Duen konplexutasunagatik, errazagoa da jakinduria hori ekintzan antzematea, gertatzen ari denean, liburuetan edo artikuluetan idatziz jasotzea baino. Liburu honetan, ordea, heltzeko hain zaila den hori bereziki ondo azaleratzea eta jasotzea lortu du Mirenek. Seguruenik, hein handi batean, zenbaitetan kortse huts bihurtzen diren konbentzionalismo eta formalismo akademikoetatik aske idatzi duelako.

Elkarrekin sortzeko prozesuen errazte eraldatzailearen oinarriak proposatu eta bide horretan dikotomikoak diruditen zenbait dimentsio integratzeko, hitzak eta marrazkiak uzartzen ditu. Eta, trebezia handiz, liburuan bertan ere gorpuztu egiten du pentsamolde dikotomiko horietako batzuen integrazioa. Egileak —Larrea adituak eta, aldi berean, Miren pertsonak— maisutasun handiz lortzen du irakurlearen osotasunera heltzea, arrazoiria eta emoziora hitz egitea, burura eta bihotzera iristea, ikasketa-esperientzia bikario erreal bihurtzen den bidaia eder batean. Harrigarria da marrazkiek duten gaitasuna irakurleari ikasketak sentiarazteko eta biziartzeko.

Egileak errazte-lanerako proposatzen dituen kontzeptuen artean, maitasuna eta boterea daude. Hain zuzen ere, maitasunaren eta boterearen integrazioa ere bada liburua. Maitasuna da desberdinak elkartzeko ariketa bat delako, berezita dagoena batzeko proposamena egiten duenean. Maitasuna da, halaber, ausardia eta koherentzia handiko biluzte-ariketa ere badelako, predikatzen den hori praktikan jartzean. Eta, azkenik, ikasketetako asko zailtasun eta min handiko uneetan gertatu arren, une horiek azaltzeko erabilitako hitzek ulermena, goxotasuna eta zaintza besterik ez dutelako transmititzen.

Aldi berean, errebindikazio-ariketa bat ere bada, maitasunez egina, baina indar eta bote handiko errebindikazioa. Haurrentzako egindakoak diruditen marrazkiak lankidetzaprozesuetan gauzatzen diren eta gizarte-erronka askoren oinarrian dauden zenbait elementuren irudikapen eta kritika bihurtzen dira: koloretako betaurrekoak ematen dizkigu Mirenek ilun-

tasunean dauden tokietara hurbiltzeko. Izan ere, gizarte-erronkei erantzuteko politika eta ikerketaren narratiba berrietan modan jarri dira ko-sorkuntza eta lankidetza, eta gehienetan, esanahi hutseko hitzak bihurtu dira, azaleko esanahiarekin edo errealitatetik oso urrun dauden ikuspegi naif batekin erabiltzen direlako. Aldiz, liburuak erakusten duen bezala, prozesu horietan agertzen dira gizartearen ezaugarritzen duten dinamikak eta partaide garenon ikuskerak, sinesmenak eta emozioak, eraldaketaren oinarri —akuilu eta oztopo— direnak. Eta horietako zenbait identifikatzeko, ikusarazteko, zehazteko, ulertzeko eta kontzeptualizatzeko ariketa bikaina egiten du liburuak, dilema eta dikotomien bitartez mikro-praktikak eta sako-neko egiturazko dimentsioak uztartuz. Horrela, aberastasun eta sofistikazio handiko ikasketak garatzea lortu du.

Eta beste honengatik ere bada errebindikazio-ariketa bat: mundura, norberarengana eta besteengana hurbiltzeko modu batzuk eta jakintza-mota batzuk aldarrikatu nahi dituelako. Liburua ekintzan, ekintzarako eta eraldaketarako jakintza sortzeko modu jakin baten errebindikazioa da, eta, aldi berean, modu horretan garatutako jakintza jasotzen du. Nekez sortu eta transmitituko zatekeen liburu honetako altxorra sarritan —gehiegitan— ekintzatik eta ekintzarako dihardutenei destainaz goitik begiratzen dietenen toki eta hurbilpenetatik.

Forman berritzailea, benetan ederra da liburua, bere edertasunean, zenbaitetan, hunkigarria. Eta, aldi berean, ekarpen serioa da ekintza-ikerketaren, lurralde-garapenaren eta herri-politiken jakintza-esparruetarako, elkarlanaren praktikarako eta ko-sorkuntza prozesuak ulertzeko egiten duen ekarriagatik, prozesu horiei heltzeko egiten duen proposamenagatik, eta jakintza sortzeko eta partekatzeko gero eta beharrezkoagoa izango den modu baten adibide delako. Flybergak dio gizarte-ekintza adimendunak phronesia behar duela. Liburu hau horren erakusle garbia da.

Zumaia, 2023ko abenduaren 14a

*Ainhoa Arrona*

# Sarrera

## 1. Liburua, laburrean

Gure garaiko erronka ekologiko, politiko eta sozialek herri-politikak egiteko moduak eraldatzea eskatzen dute, eta ekintza-ikerketak eskari horri erantzuteko ahalmena du. Baina horretarako, ekintza-ikerketak berak ere eraldatu egin behar du.

Herri-politikez ari naizenean, gobernu baten eskutik baina lurraldeko beste eragileekin lankidetzan garatutako politika publikoez ari naiz. Ekintza-ikerketa, berriz, ikerketa-metodologia bat da, jakintza berria ekintzan bertan eta lankidetzan garatzen duena. Ikertzaileon egiteko nagusia prozesuak erraztea da, eta horrek eragileek hausnartu, erabaki eta ekiteko baldintza egokiak sortzea esan nahi du.


Liburu honen helburua da ekintza-ikerketarako errazte-metodologiak hobetzea, herri-politiken eraldaketan lagunduz, erronka ekologiko, sozial eta politikoei ekarpen xume bat egiteko.

Liburua herri-politikak errazten emandako hamabost urteko esperientzian dago oinarrituta, eta neure buruaren gaineko ikerketa-prozesu baten emaitza da. Hala ere, argitu nahi dut ez dela neure buruari buruzko liburu bat. Esan bezala, ekintza-ikerketa ez baita inoiz ikertzaileen bakarkako bide bat, arazoren bati aurre egin nahian dabilen komunitate baten eta ikertzaileen arteko elkarlana baizik. Zehazki, nire ibilbidea Gipuzkoako Foru Aldundiko eta lurralde honetako garapen-agentzietako eragileekin egin dut, haien lana erraztea izan da nire egitekoa, elkarrekin herri-politikak eraldatzeko. Horregatik, liburu hau guztioi buruzkoa da.

Liburuaren mamia errazte-lana eta horri dagozkion ikasketak dira. Izan ere, uste dut errazte-prozesuak modu kontzientean lantzeak herri-politikak eraldatzeko dugun gaitasuna hobetu dezakeela. Mami hori oinarritzko ideia honen inguruan garatu dut: gurean, sarri, pentsamolde dikotomikoek oztopatu dute eraldaketa, eta errazte-lan on batek pentsamolde horiek gaingitzen lagun dezake.

Idea hori liburu honen lau kapituluetan barrena garatzeko 0.1. irudian adierazitako ibilbidea egin dut. Hasteko, 1. kapituluak nire esperientzia aurkezten du, zortzi ezaugarri garrantzitsuenen bidez; 2. kapitulua eraldaketaren eredu kontzeptual bat da; eta 3. kapituluan, eredu hori erabiltzen dut nire esperientzia berrikusteko. Berrikuste hori partekatzean erakusten dut hamar motatako pentsamolde dikotomikoek nola eragin duten ekintza-ikerketan eta herri-politikan eta nola oztopatu duten haien eraldaketa. Azkenik, 4. kapituluan, dikotomia horietako bakoitza landu dut, ikertzaile-erraztaile ez-neutral gisa izan dudana posizionamendua ezkutatu gabe, errazteak pentsamendu dikotomikoa gaingitzen nola lagun dezakeen proposatzeko.

### 0.1. irudia. Liburua, laburrean



Azkenik, aipatu nahi dut liburu hau idazteko erabakia hartzerakoan, garrantzitsua izan dela ikustea beste ikertzaile eta lurraldeko eragile ugari ere pentsamolde dikotomiko berdinekin borrokan ari direla, horrek bultzatu bainau nire esperientziatik ikasitakoa beste batzuentzat ere erabilgarria izan daitekeela sinestera.

## 2. Jakintza intuitiboaren esplorazio bat

Liburu honek jasotzen dituen prozesuen inguruan hainbat artikulua, kapitulu, akta, eguneroko, sistematizazio eta lan-dokumentu (guztiak jakintza esplizitua) argitaratu ditu gure ikertaldea. Hala ere, urte hauetan garatu dudak jakintzarik baliotsuena oraindik partekatzekeo dudala sentitzen dut. Praktikaren bidez eskuratutako esperientziak jakintzaz ari naiz, zeina, batez ere, tazitua den. Liburu hau, oinarrian, nire esperientziak jakintza partekatzekeo ahalegina da.

Esperientziak jakintza hori intuitiboa da, eta egoera bat berehala ulertzen laguntzen digu, arrazoiketa kontzientea erabili gabe. Horrek ez du esan nahi dakiguna erabiltzen ez dugunik, arrazionalki azal dezakeguna baino azkarrago erabiltzen dugula baizik. Herri-politikak errazteko orduan ere (dela ekintza-ikerketaren bidez dela beste modu batzuetara) intuitzioak funtsezko zeregina du. Izan ere, prozesuan bete-betean ari garenean, ez dugu sarri denborarik izaten egoeraz dugun ulermen osoa kontzienteki arrazoitzeko eta gainerakoekin partekatzeko. Egoera intuitioz ulertu eta momentuan erantzun bat ematen dugu. Ondoren, hausnartu eta zentzua ematen diogu gertatutakoari. Hala ere, liburu eta aldizkarietan ekintza-ikerketari edo herri-politikak errazteko beste moduei buruz irakurtzen dugunean, kontakizun gehienek ekintzaren ondorengo arrazionalizazioa besterik ez dute azaltzen.

Badut intuitioaren beste bizipen bat ere. Egoera bat intuitioz ulertzen dugunean, gure ulermena azaldu dezakeguna baino sistemikoagoa da. Horrek esan nahi du errazten ari garen momentuan azaltzeko gai ez garen konexioak egiten ditugula eta, ondorioz, gure erantzunek azal dezakeguna baino hobeto erantzuten diotela konplexutasunari.

Liburuko jakintza intuitiboaren adibiderik adierazgarrienak bi dira, nire ustez. Lehena, nire esperientzia guztien artean zortzi garrantzitsuenak hautatzea (1. kapituluan) eta bigarrena, 4.2. irudia (4. kapituluan). Irudi horrek esperientzatu ditudan hamar pentsamolde dikotomiko aurkezten ditu. Dikotomiak irudian txertatzean, elementu bakoitza ezkerrean edo eskuinean marraztu dut. Kokapen hori modu intuitiboan egin dut, eta emaitza oso garrantzitsua izan da niretzat. Izan ere, uste dut ezkerrean eta eskuinean kokatutako elementuek elkarren artean nik arrazionalki azaldu ezin ditzakedan loturak dituztela. Hau da, nire esperientzian oinarrituta, bi sinesmen-sistema irudikatzen dituztela uste dut. Baina elementu bakoitza ezkerrean edo eskuinaldean kokatzeak sortzen dituen loturak teoriarekin edo datuen bidez justifikatu beharko banitu, orain ezingo nuke 4.2. irudia osatu. Irudi hori osatzea eta partekatzea erabaki dut nire urteetako esperientziatzko ikasketaren emaitza delako eta lotura horiek konplexutasuna nola bizi izan dudana islatzen dutelako. Finean, liburu honen ekarpenik garrantzitsuenak direla uste dut.

Nire jakintza intuitiboa azalertzeko orduan, Paulo Freirek *Zapalduaren Pedagogia* idazteko prozesuaz egin zuen deskribapenak inspiratu nau. Freirek dio liburu hori erbestera bere gorputzaren memorian eraman zituen bizipenetan dagoela oinarritua. Baita bere gorputza «historiaz, aztarna kulturalaz, oroitzapenez, sentimenduez, zalantzez, amets hautsiez baina desegin gabeez blai [...]» zegoela ere (Freire, 2008, 27. or.); eta idaztean «istorioak, gertaerak eta ekintzak berriro ulertzen» saiatu zela (62. or.). Ondorioz, Brasilen hasitako bizipenak erbestera bere gorputzaren memorian eraman eta Txilen berriro «sutsuki eta zehaztasunez» bizi izan zituela adierazten du (63. or.).

Hitz horiek lagundu zidaten ordura arte kanpoko datu eta gertakarietara bideratzen nuen arreta neure gorputzera ekartzen, gorputzaren memorian neramatzan bizipen, oroitzapen, istorio, gertaera eta ekintzak berriro ulertzen saiatzeko. Horiek guztiak sutsuki eta zehaztasunez berriro bizitzen saiatu naiz ni ere. Orri hauetan partekatu dudana neure buruaren ikerketa dela diot, oraingoan gorputza eta bere memoria jarri ditudalako luparen azpian (ikus 0.2. irudia).

## 0.2. irudia. Neure gorputzaren memoria



### 3. Emozioek ere bultzatutako liburu bat

Liburu hau idaztera eraman nauten motibazioak osatzeko, nahitaezkoa da emozioei buruz zerbait esatea.

Liburu hau idazteko momentuan hemen jaso ditudan esperientzien inguruko hausnarketa arrazionala egiteaz gainera, emozioak ere landu ditut. Prozesu horretan, oinarritzko bost emozio aipatu ditut: poza, maitasuna, haserrea, beldurra eta tristura.

Lan honetan jaso ditudan esperientziek poz handiak eman dizkidate (eta dizkigute), sarri askotan, esate baterako, saio bat ondo ateratzen zenean, parte-hartzaileek prozesuak lagundu ziela esaten zigutenean, desadostasunak modu eraikitzailean azaleratzen genituenean, zailak ziruditen adostasunetara iristen ginenean edo larri zihoan prozesu bat bideratzea lortzen genuenean. Maitasuna ere sentitu dut, ikertaldean elkar zaintzen genuenean, herri-politiken arduradunekin ekipo baten moduan lan egitean, prozesuetako parte-hartzaileek eurekin jarraitzeko eskatzen zigutenean, edo prozesu horietan guztietan aritu garen guztiok egindakoa elkarrekin egin izanaz jabetzen ginenean.

Baina prozesuan beste era bateko emozioak ere izan dira. Duela hogeita hamar urte ikerketara gerturatu nintzenetik, eta, are gehiago, ekintza-ikerketa errazten hasi nintzenetik, sarritan entzun izan ditut horrelakoak: «hori ez da ikerketa», «bai, baina hori iritzi subjektibo bat besterik ez da», «prozesua kaotikoa da eta ezin dugu onartu», «dokumentu horiek ez dute prozesu honi eskatzen diogun zehaztasunik», «hondar-ale bat mendi bihurtzen ari zara» edo «ondo dago taldeak orain kohesio gehiago edukitzea, baina ezin dugu hori emaitza moduan hartu». Horiek entzutean, jendaurrean teoria, arrazoia eta datu objektiboak erabili ohi nituen gure ekintza-ikerketaren balioa nabarmentzeko, baina, barrutik, uzkurten nintzen, 0.3. irudian adierazten saiatu naizen moduan.

#### 0.3. irudia. Uzkuetzearen esperientzia subjektiboa



Liburu hau idazteko bidean ikasi dut uzkurtzea egoera horiek sortzen zizkidaten beldur, haserre eta tristurazko emozioekin bat ez egitearen ondorioa zela. Beldurra ona dela ere ikasi dut, erreakzionatzen laguntzen digulako; haserreak mugak ezartzen laguntzen digu; eta tristurak, gauzak ulertzen. Ikuspegi horretatik, liburu hau erraztearen zama emozionalari buruzko hausnarketa bat ere bada. Emozioak partekatzea ez da erabaki erraza izan, baina uste dut ezinbestekoak direla ekintza-ikerketa eta hura errazteko lana ulertzeko.

Argi utzi nahi nuke aipatu ditudan poz, maitasun, beldur, tristura eta haserrearen iturburuak ez direla izan hemen azaldu ditudan proiektuak, haiek garatu dituzten erakundeak (Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal institutua, Gipuzkoako Foru Aldundia eta lurralde horretako garapen-agentziak) edo proiektu horietan izan ditudan bidelagunak. Iturburuak gu guztion jardunak baino erro sakonagoak ditu, eta gure ibilbidea ez da hain berezia. Gure bizipenak bitarteko bat besterik ez dira izan hain unibertsalak diren joera eta jarrera horiek azaleratu ahal izateko. Ondorioz, urte hauetako bidelagunen hausnarketarako gaitasuna eta ikuspegi kritikoekiko irekitasuna ezinbestekoak izan dira liburu hau idazteko prozesuan.

#### 4. Marrazketa, artean oinarritutako ekintza-ikerketa

Duela bost urte, Hilary Bradbury-rekin norbere ikerketa eta lehen pertsonan egindako ekintza-ikerketa esploratzen hasi nintzenean, arrazoiari eta dimentsio kognitiboan guztiz murgilduta nengilela esan zidan. Konturatu nintzen hitzak, hitzak eta hitzak erabiltzen nintzela dimentsio horretan. Zailtasunak nituen, ordea, nire emozioekin bat egiteko. Marraztera gonbidatu ninduen, eta nire gaitasun teknikoak eskasak baziren ere, nire esperientziarekin eta emozioekin loturak garatu eta partekatzeko modu berri bat aurkitu nuen.

Liburu honetako marrazkiak esperientzia konkretuetan daude oinarrituta, eta aurrez bizi izandako istorioak, gertaerak eta ekintzak berriro bizi eta ulertzen saiatzeko egin ditut. Horrela ireki diet bidea intuizioari, emozioei eta herri-politikak errazteko esperientzia subjektiboari. Liburua idazten hasi nintzenean, aurrea esan nahi nuena idazten nuen, eta, ondoren, hura adierazten zuen marrazki bat egin. Baina konturatu nintzen kontrako bidean urrunago iristen nintzela, eta aurrea garrantzitsua zela sentitzen nuen hura marrazten hasi nintzen, ondoren marrazkia hitzen bidez aurkezteko.

Nire bizipenak ulertzeko modu hau *hausnarketa geldia* dela esango nuke. Izan ere, idazten dudanean, esaldi bakoitzarekin aurrera egiten dut, ideia batetik hurrengora mugituz. Marraztean, ideia bakar batean luze egon naiz murgilduta, batzuetan orduak, 0.4. irudian ikus dezakegun bezala. Sarritan, marrazki bat amaitutakoan, nire bizipenetan garrantzitsua zer zen bereizi nuela sentitzen nuen, eta horri esker nekiela liburu honetan zer kontatu nahi nuen. Gainera, marrazkia edukita, askoz hitz gutxiago behar nituen partekatu nahi nuena adierazteko.

Marrazkiak egiterakoan aurkitu dudak erronka handienetakoa inklusioarena izan da, nire bizipenekin lotura galdu gabe. Marrazkietako askotan taldeak azaltzen dira, ikertzaile eta herri-politiken arduradunek osaturiko taldeak. Aukera bat talde horiek nolakoak izan beharko luketen azaltzea zen, arraza, genero edo gaitasunen aldetik, adibidez, aniztasuna bilatuz. Beste aukera nire esperientzia izan den moduan adieraztea zen, kontuan izanik, adibidez, parte-hartzaile guztiak arraza berekoak izan garela, edo generoak roletan eragina izan duela. Bigarren bidetik jo dut. Hala ere, nire bizipenei zuzenean loturik ez dauden marrazki bakane-tan saiatu naiz aniztasuna kontuan hartzen.

#### 0.4. irudia. Hausnarketa geldia



### 5. Aitorpenak eta eskertzak

Intuizioak, subjektibotasunak, emozioek eta marrazkiek duten garrantzia kontuan izanik, liburu hau ez da ohiko liburu akademiko bat, akademiatik garatutako liburu bat den arren. Neure buruari askatasuna eman diot esaten dudanaren azalpen teorikorik eman gabe edo esaten dudana frogatzen duten datu enpirikoak erakutsi gabe aurrera egiteko. Ondorioz, liburu hau nire esperientziaz fio diren eta esperientzia horren balio subjektiboa ikusten duten irakurleentzat da. Hori jakinda ere, liburua irakurtzen jarraitzeko asmoa baduzu, nire lehen aitorpena eta eskertza zuretzat da, liburu honen irakurlearentzat.

Liburua lehen pertsonan idatzita dago, hamabost urte hauetako esperientziaren inguruko neure hausnarketa delako. Baina, sarreran esan bezala, inoiz ez naiz bakarrik izan bide horretan. Deskribatzen ditudan herri-politiken eraldaketa prozesuak, egin genituen hausnarketak eta hartu genituen erabakiak, eta haien ondorioz etorri ziren ekintzak talde lanaren emaitza izan ziren. Liburuak deskribatzen dituen lau legegaldietan eratu diren taldeak, alde bate-tik, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ikertzaileok osatu ditugu, Praxis-Gizarte Ikerketarako Institutuko (Rafaela, Santa Fe, Argentina), Agder-eko Unibertsitateko (Norvegia) eta Tierra del Fuego Unibertsitateko (Argentina) gure lankide eta lagunekin batera. Baina, esan bezala, ez dago ekintza-ikerketarik zerbait eraldatzeko ahaleginetan dabilen eragilerik gabe, eta gure jarduna Gipuzkoako Foru Aldundiko eta lurralde honetako garapen-agentzie-tako eragileekin gauzatu dugu; haien eskutik beste batzuk ere txertatu dira prozesuetan, adibidez, enpresak eta haien elkargoak, lanbide-heziketako zentroak, hirugarren sektoreko eragileak eta unibertsitateak. Nire bigarren eskertza zuentzat guztientzat da. Lehen pertsonan idatzi dut, emozioak eta interpretazio subjektiboak neureak direlako, baina hemen jasotako ekintza-ikerketa guztiona da. Saiatu naiz hori garbi adierazten liburuan zehar.

Orkestran ekintza-ikerketarako amaitu berri dugun prestakuntza-prozesuan parte hartu duten ikertzaile gazteak ere eskertu nahi ditut. Zuek subjektibotasuna eta emozioak onartzeko izan duzuen erraztasunak erakutsi dit guk horiek onartzeko ditugun arazoak, hein handi batean, ikasitakoak direla.

Liburu honen oinarrian dagoen ahalegin kolektiboaz gain, izen batzuk ere aipatu nahi ditut. Bihotzez eskertzen diot Hilary Bradburyri norbere ikerketa lantzeko egin zidan gonbita, eta, neure esperientzian oinarriturik, genero-ikuspedia duten betaurrekoak garatzen lagundu izana. Betaurreko horiek herri-politikak ikusteko modua betiko aldatu didatela uste dut. Mila esker, baita ere, marraztera bultzatu ninduzulako.

Eskerrak Ainhoa Arronari liburu honen hitzaurrea idazteagatik, baina, batez ere, hamabost urte hauetan elkarrekin hausnarketan eman ditugun ordu guztiengatik. Inork ez du nire errazte-lana zuk bezala ikusi eta ulertu. Eskerrak, baita ere, Xabier Barandiarani, elkar ulertzeko egin dugun ahalegin zintzoa ikasketa-iturri oparoa izan delako; eta Sebas Zurutuza eta Olatz Errazkini, lehen zirriborroaren gainean egindako ekarpenengatik.

Eskerrik asko, Miren Estensoro, gehien behar nuenean bizipoza partekatzeke zure gaitasunagatik; Mari Jose Aranguren, liburu hau idazten ari nintzen bitartean Azpeitira egindako buelta guztiengatik; eta Itziar Navarro, edizio-lanetan laguntzeagatik. Mila esker, baita ere, Pablo Costamagna eta James Karlsen-i, elkarrekin egindako ibilbidea garrantzitsua izan delako orain nagoen tokira iristeko. Eskerrak zuri ere, Amaia, nire emozioak deskribatzea eta haiekin bat egitea gauza berdina ez direla erakusteagatik.

Naiara Goia, Ione Ardaiz eta Ane Miren Valenciano ere aipatu nahi ditut, liburu hau idazten ari nintzela Arantzazulaben egindako harreragatik. Baita Edurne, Ander, Amaia eta Ainhoa ere, idatzi ahal izateko bilatu nuen bakardadeari egunero lagunarteko zirrikitu bat irekitzeagatik.

Pozik nago nire lehen irakurleak Libe, Edurne eta Malen izan zinetelako. Aitarekin batera nire marrazkien kontura barre pixka bat egin duzuen arren, zuen ikuspedia oso lagungarria izan da. Azkenik, inoiz baino gehiago, liburu hau aitari, amari, Landerri eta Itziarri eskaintzen dizuet.

Azken irudi hau zuontzat guztiontzat da.

#### 0.5. irudia. Liburuaren atzean dagoen ahalegin kolektiboaren aitortza






## 1. kapitulua

# Herri-politiken erraztea gorputzaren memorian

### 1. Sarrera

Kapitulu honetan, 2008az geroztik gure ikertaldeak herri-politikak eraldatzeko erraztu dituen ekintza-ikerketako prozesuen zortzi ezaugarri partekatu nahi izan ditut. Azken hamabost urteetako bizipenetara itzuli naizenean, ikasketa horiek gailendu dira nire gorputzaren memorian eta horrexegatik uste dut nire errazte-esperientzia egokien adierazten dutela. Beraz, kapitulu honek 1.1. irudian adierazitako lehen pausoa jasotzen du.

#### 1.1. irudia. 1. kapituluaren tokia liburuaren prozesuan



Helburu bikoitz batekin partekatzen ditut zortzi ezaugarri horiek. Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundian (GFA) eta garapen-agentzietan errazten aritu garen herri-politikak aurkezteko modu bat da. Beste alde batetik, datozen kapituluetan errazteari buruz esango dudanaren esperientziatzko oinarria dira.

Hauek dira urte hauetan egindako ekintza-ikerketaren ezaugarriak:

- a) Ekintza-ikerketak emaitzak eman ditu.
- b) Ekintza-ikerketaren eragina modu jarraituan hazi da epe luzean.
- c) Esperientziatzko jakintza, diziplinatzko jakintza eta prozesuko jakintza txertatu ditugu.
- d) Gurea lankidetzaren eta elkarrekiko erresistentziaren historia izan da.
- e) Ekintza-ikerketak boteretik gertu egon da.
- f) Azaleratu gabeko desadostasunek prozesuak geldiarazi dituzte.
- g) Emozioak gorde egin dira.
- h) Komunitatea, mundua eta ni neu elkarri eraginez eraldatu gara.

Urte hauetan, gure ikertaldeak lan ugari argitaratu ditu kapitulu honetan partekatzen ditudan esperientzien inguruan. Argitalpen horietan teoria eztabaidatzen genuen eta, horrekin batera, prozesuen deskribapen zehatzak egiten genituen, datuetan oinarrituta, ondorioak ateratzeko. Datozen ataletan ez naiz teoriarik eta datuetan oinarritzen, neure esperientzia zuzenean aurkezten saiatzen naiz. Hala ere, teoria eta datuak nire esperientziaren parte izan diren neurrian, badute eraginik kapituluak.

Lehen atalak, sarrera modura, bi denbora-lerro jasotzen ditu, eta hurrengo ataletako baikoitzak bizi izan dudana ekintza-ikerketaren ezaugarri bat garatzen du.

## 2. Herri-politikak eta ekintza-ikerketaren denboran

Aipatu dut ekintza-ikerketaren ikertzaile-talde batek eta arazo bat konpondu nahian dabilen eragile-talde batek garatzen dutela, eta gure kasuan, ibilbidea GFArekin eta lurralde honetako eskualdeetako garapen-agentziekin egin dugula. Zehazki, arduradun politiko, funtzionario eta askotariko profil teknikoko arduradunekin lan egin dugu, eta haien eskutik gonbidatu izan dira prozesuetara beste mota batzuetako eragileak (enpresa-elkargoak, enpresak, hirugarren sektoreko entitateak, unibertsitateak, lanbide-heziketako ikastetxeak eta ikerketazentrotak, batez ere). Aurrerantzean *eragile* hitza erabiltzen dudanean, ekintza-ikerketaren parte hartu duten antolamendu horietako ordezkariak ari naiz; ordezkari horiek interes konkretuak dituzte konpondu nahi den arazoaren inguruan.

Bizitako prozesu horiek ulertzeko denbora-lerro garrantzitsuetako bat politikoa da (1.2. irudia). Gure ikertaldea 2009tik aritu da GFArekin lankidetzan, *Gipuzkoa Sarean* ekimenaren barruan, lurraldearen lehiakortasuna hobetzeko gizarte-kapitala garatzen hasi ginenean. Hauteskunde ondoan, 2011n, gobernuaren beste alderdi politiko batzuk zirela, proiektuaren norabidea aldatu zen. Orduan, helburua lurralde-garapenerako harreman-eredu berri bat bilatzea zen eta garai hartan hasi ziren eskualdeetako garapen-agentziak prozesuan parte hartzen. Hurrengo hauteskunde ondoan, 2015ean, hasieran gonbidatu gintuen taldea itzuli zen gobernura. *Gipuzkoa Sarean* eutsi egin zitzaion, baina, aldi berean, *Etorkizuna Eraikiz* jarri zen abian, lankidetzazko gobernantza ardatz hartuta. Bi urteren ondoren, *Gipuzkoa Sarean Etorkizuna Eraikiz* txertatu zen, Lurralde Garapenerako Laborategia izenarekin. Azken zortzi urteetan, bi helbururekin lan egin dugu, lurralde-garapena eta lankidetzazko gobernantza.

A horizontal timeline illustrating the Basque Government's economic policy from 2009 to 2023. The timeline is marked with years: 2009, 2011, 2015, 2019, and 2023. Above the timeline, four Basque Government buildings are shown, each with a flag on top. Below the timeline, four ballot boxes are shown, each with a flag on top. The ballot boxes are labeled with the years 2009, 2011, 2015, 2019, and 2023. Below the ballot boxes, three boxes contain the following text: 'GIZARTE KAPITALA' (Social Capital), 'LURRALDE GARAPENA' (Rural Development), and 'LURRALDE GARAPENA ETA LANKIDETZA KO GOBERNANTZA' (Rural Development and Cooperative Governance).

### 1.3. irudia. Hainbat tokitako ikertaldeak garatu du Lurralde Garapenerako Ekintza-ikerketa



23

Urte hauetan gure egiteko nagusia gure lurraldeen garapena izan da, eta horretarako bategaz ere bigarren pertsonako ekintza-ikerketa egin dugu. Bigarren pertsonan ari garenean, lehentasuna ikertalde eta eragile-talde batek egoera bat eraldatzeko elkarrekin egiten duten lanari ematen zaio. Hala ere, 2018. urte inguruan, gure ikertalde nazioarteko hainbat espaziotara ireki zenean, munduan zehar hainbat modutan lanean ari ziren ekintza-ikertzaileak eza-gutu genituen. Horren ondorioz, lehen pertsonako ekintza-ikerketara gerturatu ginen. Lehen pertsonan ari garenean, lehentasuna norbere ikerketari eta garapenari ematen zaio, norbere garapena lurralde-garapenaren dimentsioetako bat dela aitortuz. Bestalde, nazioarteko komunitate horrekin partekatu genuen erronka globalen aurrean ere gure ekarpena egiteko gogoia, horrek hirugarren pertsonako ekintza-ikerketa lantzea eskatzen zuelarik. Hirugarren pertsonan aritzeak ikerketa-prozesuan zuzenean parte hartzen dugunok harantzago eragitea esan nahi du. Hori guztia adierazteko, 1.4. irudiak bigarren pertsonako ekintza-ikerketarekin nola hasi ginen jasotzen du, ondoren lehen eta hirugarren pertsonakoak barneratzeko.

A horizontal timeline with three major tick marks labeled 2020, 2021, and 2023. Above the timeline, three illustrations are placed: a group of diverse people holding hands in a circle (representing community) above 2020, a person in a red protective suit (representing healthcare or safety) above 2021, and a globe of the Earth (representing the world) above 2023.

3. **Ekintza-ikerketak emaitzak eman ditu**

Herri-politiken arduradunekin lan egitean sarri aipatu ditugu *herri-politiken ekosistemak*. Zehazki, herri-politikek eragiten dieten edo politika horien inguruko jakintza duten lurraldeko aktoreek eratzen dituzten sistemak dira. Aipatu dudan gaitasun kolektiboa GFaren herri-po-


litiken ekosistemetan garatu da batez ere, eta nik horietako hirutan gauzatu dut nire errazte-  
esperientzia. Lehenengoa *Lurralde Garapenerako Laborategia* da, bertan GFA eta eskualde-  
tako garapen-agentziak ari dira elkarrekin lanean. Bigarrena *Etorkizuna Eraikiz Think Tank* da  
eta lankidetzazko gobernantzaren bidez herri-politikan laguntzeko lau deliberazio-gunek  
osatzen dute. Hirugarrenak herri-politiken ikuspegi sistemikoa garatzea du helburu, eta *Go-  
bernantza Laborategia* izeneko koordinaziorako gunea da.

Kontuan izanik LGEIn ikertalde eta eragileen artean eman beharreko lehen pausoa elka-  
rrekin landu nahi duten arazoa zein den definitzea dela, hurrengo ataletan hiru prozesu ho-  
rietako bakoitzean adostu zen arazoa azalduko dut, baita arazoari nola erantzuten ari garen  
ere. Hain zuzen ere, erantzun horien bidez ari da garatzen emaitza moduan aipatu dudak  
gaitasun kolektiboa.

#### a) *Lurralde Garapenerako Laborategia*

Lurralde Garapenerako Laborategiaren hasieran, GFAko ekonomiaren sustapenerako  
politiken arduradunek arazo hau jarri zuten mahai gainean: «ez gara enpresa txikietara iri-  
sten, eta enpresa txikiak ez dira gugana iristen». Aldundiko arduradunek eta ikertaldeak ikusi  
zuten arazo horri aurre egiteko orduan garapen-agentziek ekarpena egin zezaketela, eta  
ekintza-ikerketa erabili zen Aldundiaren eta agentzien arteko elkarrikereta erraztu eta haien  
arteko lankidetzan sakontzeko. Ondorioz, 2013az geroztik, Aldundiak eta agentziek lankide-  
tzazko gobernantza berri bat garatu dute. Lan egiteko modu hori 2017an erakundetu zen,  
hitzarmen formal bat sinatuta.

#### 1.5. irudia. Aldundiaren, eskualde-agentzien eta enpresen arteko elkarrikereta



Esparru horretan, lurraldeko enpresa txikiek eskualdeko agentzietako teknikariekin eta  
zuzendariarekin konfiantzazko harremanak garatzen dituzte eta, zuzendari eta teknikari horiek  
udaletara ez ezik, GFARA ere iristeko aukera dutenez, administrazio publikoaren bi maila ho-  
rietako ateak irekitzen dizkiete enpresa txikiei (ikus 1.5. irudia). Laborategiak garatutako ha-

rreman-eredu berri horri esker enpresa txikientzako zenbait herri-politika lankidetzan garatu ahal izan da, besteak beste, digitalizazioaren edo lanaren zentzuaren inguruan. Laborategia ekonomiaren sustapenaren eremuan hasi bazen ere beste eremu batzuetara zabaldu da, kasuren batean gizarte-politikak ere barneratuz.

Hasieran mahai gainean jarri zen arazoari dagokionez, uste dut bide berriak ireki direla Aldundia enpresa txikietara iristeko eta enpresa txikiak Aldundira.


## b) *Think Tank-a*

Herri-politikak errazteko ekintza-ikerketaren beste emaitza bat *Etorkizuna Eraikiz* Think Tankak deliberazio partekatuaren bidez sortu dituen konfiantzazko harremanak, ikuspegi partekatua eta ekintzarako irizpideak dira. Think Tankak 2020-2023 aldian lau deliberazio-gune izan ditu, Aldundiak lurraldean (eta munduan) ikusi dituen lau erronka nagusiri erantzuteko: (a) demokrazia liberalen krisia; (b) klima-aldaketa eta ingurumen-jasangarritasuna; (c) lanaren inguruan gertatzen ari diren aldaketa sakonak; eta (d) ongizate-sistemaren jasangarritasuna.

Ekintza-ikerketa txertatu aurretik ere ari zen Think Tanka lanean, eta gure ikertaldea prozesura gonbidatu zutenean adostu genuen arazoa hausnarketaren eta ekintzaren arteko arrakala izan zen, aurreko prozesuetan herri politiken arduradunek nabaritu zutena. Aurreko lan-metodologiak ongi jaso zituen askotariko eragileen proposamenak, baina zailtasunak zeuden proposamen horiek, ondoren, egunerokoan, gobernuaren eta administrazio publikoaren prozesuetan txertatzeko.

Hori konpontzeko, eta praxiaren printzipioetan oinarrituz, 2020-2023 urteen artean deliberazio-talde bakoitza foru-diputatu batek eta haren taldeak zuzendu du, eta horrela, deliberazioaren emaitzak zuzenean jaso dituzte Aldundiko erabakitzaileek. Herri-politiken ekosistemako eragileek deliberazioan parte hartu dute, eta politikak hobetzeko jakintza sortu dute, Aldundiko arduradunekin batera. Think Tankaren ezaugarri nagusia, hortaz, ekosistemako eragileek eta herri-politiken arduradunek espazio berean hausnartzea eta jakintza elkarlanean sortzea izan da. Horrela, Think Tankak gobernuaren egitura hierarkikoak ekosistemarekin partekaturiko deliberazio-gune horizontalagoekin lotu ditu (ikus 1.6. irudia), deliberazioan esandakoak herri-politiken prozesuetan txertatzen lagunduz.

### 1.6. irudia. Praxiak hierarkia eta parte-hartzea lotu ditu Think Tankean






kide biltzen dira eta bakoitzak sistemari bere tokitik begiratzen dio. Gainera, horietako bakoitza neurona bat bezalakoa da, sistemaren atalei elkarrekin komunikatzen laguntzen dietelako, ekimenaren barrutik edo kanpotik etor daitezkeen aldaketei erantzun ahal izateko. Erdiko gezi beltzak laborategiaren errazte-prozesua adierazten du.

Gobernantza Laborategia lurralde-garapenerako ekintza-ikerketaren bidez errazten da. Herri-politiken arduradun eta proiektuetako ordezkari gutxi batzuk biltzen ditu eta horietako bakoitzak sistemaren zati zabal baten ikuspegia du. Elkarlanean, Etorkizuna Eraikizen ikuspegi sistemiko eta emergentea eraikitzen saiatzen dira (ikus 1.8. irudia). Horretarako, sisteman lankidetzazko gobernantza gehien non behar den ikusten da, ondoren gune horietan gobernantza-mota hori garatzen lagundu ahal izateko. Horrela lantzen dira zati bakoitza eta sistemaren arteko loturak. Metaforarekin jarraituz, laborategiak nerbio-sistema eraikitzen laguntzen du.

### 1.8. irudia. Ekintza-ikerketa herri-politiken nerbio-sistemak eraikitzeko



Ekintza-ikerketak emaitzak izan dituela aitortzea garrantzitsua da, horrela izango ez balitz, hurrengo ataletan sakontzerik mereziko ez lukeelako. Baina garrantzitsua da, baita ere, emaitzak zein diren azpimarratzea. Nire ustetan, emaitza nagusia azaldu diren esperientzia horietako parte-hartzaileek etorkizuneko arazoei elkarrekin aurre egiteko garatu duten gaitasun kolektiboa da.

#### 4. Ekintza-ikerketaren eragina modu jarraituan hazi da epe luzean


Lurralde garapenerako ekintza-ikerketaren ezaugarri nabarmen bat herri-politiken arduradunen eta ikertzaileen arteko epe luzeko lankidetza da. Aurreko atalean azaldutako proiektuek, gorabeherekin, oraindik ere bizirik dirauen hamabost urteko lankidetza-prozesu jarraitua osatzen dute.

Horren ondorioz, ekintza-ikerketak lehen baino eragin handiagoa du herri-politikan. Bi dimentsio bereiz daitezke eraginaren hazkunde horretan: (a) Aldundiak beretzat garrantzitsuagoak diren proiektuetara gonbidatzen gaitu orain; eta (b) proiektu horietan, ekintza-ikerketak lehen baino garrantzitsuagoa da.

Aldundiarekin lankidetzan hasi ginenean, *Gipuzkoa Sarean*en parte hartu genuen: *Gipuzkoa Aurrera* ekimenaren zati txiki bat zen hura, eta lau ikertalde aritu ginen bertan. Ekintza-ikerketak metodologia bat gehiago zen, beraz. Ondoren, 2011 eta 2015 urteen artean, Aldundiak *Gipuzkoa Sarean* berregituratu eta sendotzea erabaki zuenean, denbora batez proiektuko ikertalde bakarra izan ginen, eta ekintza-ikerketak prozesuaren oinarritzko metodologia bilakatu zen. Denbora aurrera joan ahala, ikertalde berriak sartu ziren prozesuan, nor bere metodologiarekin. 2015ean berriro gobernuak aldatu zenean, *Etorkizuna Eraikiz* jarri zen abian eta *Gipuzkoa Sarean*ek, jarraitu zuen arren, gobernu-politiken erdigunea galdu zuen. *Etorkizuna Eraikiz*ek garrantzia ematen zion ikerketari, baina ez, zehazki, lurralde-garapenerako ekintza-ikerketari. *Gipuzkoa Sarean* 2017an *Etorkizuna Eraikiz*en txertatu zenean, ordea, gure ikertaldeari ateak ireki zitzaizkion ekimen horren beste espazio batzuetan lan egiteko; horrela hasi ginen Think Tankean eta Gobernantza Laborategian ekintza-ikerketaren bidez lan egiten. Hala, metodologia hori ekimenaren erdigunera gerturatu genuen.

Aurrekoak erakusten du, azken urte hauetan, ekintza-ikerketan oinarritutako proiektuek lehentasun handiagoa edo txikiagoa izan dutela gobernuarentzat eta, aldi berean, ekintza-ikerketak pisu handiagoa edo txikiagoa izan duela proiektu bakoitzean. Bi dimentsioek bilakaera positiboa izan dute urte hauetan (ikus 1.9. irudia), eta horri esker, agerikoagoa da gaur egun lurralde-garapenerako ekintza-ikerketak herri-politikan egin dezakeen ekarpena.

1.9. irudia. Ekintza-ikerketaren eragina herri-politikan



Gustatuko litzaidake ekintza-ikerketak ekarpen esanguratsua egitea bizi ditugun pre-sazko erronka sozio-ekologikoei aurre egitean. Horretarako dugun aukera bat gonbidatzen gaituzten proiektuetan ekintza-ikerketak garrantzitsu egitea da; bestea, geroz eta herri-poli-tika garrantzitsuagoetan ekintza-ikerketarentzat tokia bilatzea. Biak lortzen baditugu, era-gina areagotu egingo da.

Gurea bezalako prozesuak epe luzean garatzen dira eta ekintza-ikerketako proiektu gehienek, ordea, batez beste 1-3 urte irauten dute, argitaratzen den informazioaren arabera. Nire ikasketa nagusia da 1-3 urteko proiektu horiek, arrakastatsuak izanda ere, gaitasun mu-gatua dutela euren kasa herri-politikak eraldatzeko.

Eragina, gure esperientzian, ekintza-ikerketako askotariko proiektuak modu sistema-tikoan lotzeko prozesuan gauzatzen da, ikertalde eta herri-politiken arduradunen epe lu-zeko harremanetan.

## 5. **Esperientziazko jakintza, diziplinazko jakintza eta prozesuko jakintza txertatu ditugu**

Lurralde-garapenerako ekintza-ikerketak proposatzen dituen elkarlaneko sorkuntza-pro-zesuei jarraituz, hiru motatako jakintza lotu dugu gure praxian:

### a) *Parte hartzaileen esperientziazko jakintza*

Parte-hartzaileek euren bizipenetan eraiki duten jakintza da ekintza-ikerketaren oina-rria. Gure prozesuetan, eragile nagusiak herri-politiken arduradunak eta haiekin lankidetzan diharduten lurraldeko eragileak izan dira. Bai haiek eta bai ikertaldeak esperientziazko jakin-tza partekatu dugu gure jardun profesionalean. Baina ez dugu soilik bizitza profesionalean garatutako esperientziazko jakintza partekatu, gure bizitzaren gainerako eremuetan (fami-lian, lagunartean, kirolean, gizarte-mugimenduetan) garatutako modu honetako jakintzak ere eragiten baitu gure lan-eremuko hausnarketa eta ekintzetan.

Esperientziazko jakintza praxiaren bi dimentsioetan landu dugu. Alde batetik, hausnarke-taren bidez, ordura arte isilean, modu tazituan genuen esperientziazko jakintza modu esplizi-tuan azaleratu dugu, jakintza hori partekatu eta dokumentatuz. Jakintza tazitua da zerbaiten esperientzia badugunean (lankidetzarena, adibidez), baina zergatik edo nola gertatzen den azaltzeko gai ez garenean. Esate baterako, Etorkizuna Eraikizen hainbat gobernantza-modutan parte hartu arren, Think Tankeko kideok ez ginen gai azaltzeko ekimen horren baitan zenbat gobernantza-mota zeuden eta nolakoak ziren. Denborarekin, ordea, jakintza tazitu horren za-titxo bat esplizitatu dugu eta tipologia bat eraiki dugu, hiru gobernantza-mota bereizteko. Bes-talde, ekintza-fasean, gure esperientziazko jakintza gure jardueran txertatu dugu, zuzenean. Adibidez, Think Tankean elkarlanean aritzen ginenean, lankidetzazko gobernantzaren ingu-ruan genuen esperientziazko jakintza gure harremanetan gauzatzen zen, gure portaeretan eta eraikitzen genuen gobernantzan eraginez. Eragin hori ere tazitua zen hein handi batean, hau da, egin arren kosta egiten zitzaigun egiten genuena zehazki adierazten zuten hitzak bilatzea.

### b) *Erraztaileen prozesuko jakintza*

Ekintza-ikerketak berari buruzko jakintza da, prozesuak, praxia, ko-sorkuntza edo haus-narketa eta ekintza nola gauzatu jasotzen duena. Prozesuko jakintza, neurri handi batean, esperientziazkoa da, ekintza-ikerketak errazteko bizipenetatik eratortzen da eta esperientzia

eta eskarmentua eskatzen ditu. Jakintza mota hau batez ere prozesuak errazteko ekintzan gauzatzen da eta, horregatik, erraztaile bat lanean ari denean, hein handi batean, ez da agerikoa. Baina, aldi berean, ekintza-ikertzaileontzat ekintza-ikerketak diziplina akademikoa ere bada (ikus c) atala), aldizkari akademikoa eta argitalpen propioak dituenak. Horregatik, modu esplizituan idatzi eta argitaratzen dugunean, liburu honetan lez, gure prozesuko jakintza diziplinazko jakintza bilakatzen da, agerikoa bilakatu. Prozesuko jakintza da ekintza-ikertzaileon ekarpen nagusia, bai modu tazituan errazte-prozesu batean gauzatzen dugunean eta bai modu esplizituan argitaratzen dugunean ere.

### c) *Diziplinazko jakintza*

Eremu akademikoa diziplinetan banatzen da (ekonomia, soziologia, zientzia politikoak edo administrazio publikoa, adibidez) eta horietako bakoitzak bere prozedurak ditu diziplinazko jakintza sortzeko. Jakintza hori esplizitatzen denean balioesten da, artikulu, liburu eta beste formatu batzuetako aurkezpenetan batez ere.

Lurralde-garapenerako ekintza-ikerketak unibertsitatean garatutako metodologia da, alegia, diziplinazko jakintza nagusitzen den eremuan, eta hasieratik hartu du eremu akademikoko diziplinazko jakintza hirugarren jakintza-mota gisa.

Ekintza-ikerketaren tradizio batzuetan, ordea, ez da horrelako jakintzarik txertatzen prozesuan, ko-sorkuntza, berariaz, parte-hartzaileen esperientziako jakintzan oinarritzen delako, ekintza-ikertzaileen prozesuko jakintzak lagunduta. Hau da, ekintza-ikerketak a) eta b) ataletako jakintzetan oinarritzen da. Are gehiago, ekintza-ikerketak kritika gogorra egin izan dio sarri diziplinazko jakintzari, batez ere jakintza hori jakintza aditua moduan aurkeztu eta parte-hartzaileen esperientziako jakintzaren gainetik kokatu izan denean.


Hala ere, ekintza-ikerketaren ikuspegi pluralista bati jarraituz (ikus, horretarako, Karlsen eta Larrea, 2014), gure ikertaldean hasieratik hartu genuen diziplinazko jakintza ere txertatzeko erabakia. Ez zen metodologiaren teoriarik edo filosofiarik oinarritutako erabakia izan, gure praktikan oinarritutakoa baizik. Izan ere, diziplinazko jakintza hain zegoen errotuta gure ingurune akademikoan eta herri-politikan, eta diziplinei lotutako adituak hain zeuden txertatuta jardun horietan, ezen praktika eraldatzeko haiekin eraldatu behar genuela erabaki bainuen. Nolabait, gure prozesuetan diziplinetako aditua eragile bat gehiago da, sarri sortzen dituen harreman hierarkikoak ekintza-ikerketaren printzipioekin bat ez badatoz ere. Hain zuzen, hierarkia horiek gaitzetzeko, diziplinazko jakintza soilik esperientziako jakintzaren galbaketik pasata txerta daiteke prozesuan. Hau da, diziplina jakin bateko teoria eta kontzeptuak parte-hartzaileei euren esperientzia hobeto ulertzen eta euren ekintza eraldatzen laguntzen dieten neurrian soilik hartzen dira kontuan.

*Aditu* hitzaren erabilerari dagokionez, kontuan izanik gure jardunean hitz hau diziplinei lotutakoentzat gorde dela, liburuan hitz hori beste azalpenik gabe erabiltzen dudanean, haiei buruz ari naiz. Hala ere, lurralde garapenerako ekintza-ikerketak bere egin du aditu diziplinarioren inguruan sortzen den hierarkiaren kritika, eta nire kontzeptuaren erabilerak ere kritika hau barne hartzen du.

Hiru jakintza-mota horien arteko lotura nola gertatzen den herri-politiken arduradunekin partekatze hiru lokarri erabili ohi ditut, bakoitza kolore batekoa. Lokarri bakoitzak jakintza-mota bat irudikatzen du. Herri-politiketako esperientziako jakintza eta, adibidez, zientzia politikoetako edo administrazio publikoko adituen diziplinazko jakintza ordezkatzeko bi lokarriekin trentza bat egiten saiatuz gero, ikusiko dugu lokarri horiek ez diotela elkarri eusten. Orduan, hirugarren lokarria txertatzen dut, prozesuko jakintzarena. Hirugarren horrek beste biak lotzen ditu, trentza bakar batean. Hau da, prozesuko jakintzak diziplinetako adituek *esaten* dutena eta herri-politiken arduradunek *hausnartu* eta *egiten* dutena

lotzen laguntzen du. Trentza, hiru jakintza-motek osatzen dutenean, hiru lokarrietako edozein bakarka hartuta baino sendoagoa da (ikus 1.10. irudia).

#### 1.10. irudia. Hiru jakintza-mota herri-politikak eraldatzeko



Ekintza-ikertzaile moduan, urte hauetan gure prozesuko jakintza ekintzan gauzatzea lehenetsi dugu eta, horrekin batera, asko murriztu dugu haren azalpen esplizitua. Horrek, ekintza-ikerketaren printzipioekin koherentea izan arren, nire ustez mugatu egiten du ekintza-ikerketaren garatzeko gure gaitasuna. Izan ere, gurean, ekintzan gauzatzen den jakintza askoz nekezago aitortzen da modu esplizituan azaltzen dena baino. Urte hauetan, ekintza-ikertzaileok eraldaketa bultzatzeko moduaren inguruko jakintza baliotsua garatu dugula uste dut. Jakintza hori ekintzan gauzatu da, gure errazte-lanen bidez. Baina herri-politiken arduradunen eta herri-politika-diziplinazko aditu gisa aritu direnen arteko elkarriketa gure prozesuko jakintza modu esplizituan azaldu ez izanak mugatu egin du, nire iritziz, gure errazte-lana ulertzea eta, neurri batean, onartzea. Eta, horren ondorioz, baita ekintza-ikerketaren eragina ere. Ideia hori sakonago landuko dut 2. kapituluko 2. atalean.

Uste dut ekintza-ikertzaileok gure praxia modu deklaratiβοagoetan ere partekatu beharko genukeela, horrela lagunduko baitugu ekintza-ikerketaren geroz eta herri-politika-estrategikoa-goetara eramaten, edo politika horietan, ekintza-ikerketaren esanguratsua egiten.

#### 6. Gurea lankidetzaren eta elkarrekiko erresistentziaren historia izan da

Gure ikertaldean, ekintza-ikerketaren egiten dugun lurraldeko eragile sentitzen gara. Ondorioz, herri-politiken arduradunek konpondu nahi dituzten arazoak gureak ere badirela uste


dugu. Egoera honetan, *erresistentzia biguna* terminoa erabili dugu gure ekintza-ikerketaren beste ezaugarrietako bat izendatzeko.

Erresistentzia biguna ekintza-ikerketaren prozesuen bi dimentsioren arteko elkarreagine-tik sortzen da: erlazionala eta kritikoa. Rol erlazionala jokatzean, ikertzaileek eragileei haiek azaldutako helburuak lortzen laguntzen diegu, haiek hobetsitako moduetan (baita modu ho-riek guk hautatuko genituzkeenak ez direnean ere). Rol kritikoa jokatzean, aurreko praktika horren inguruko kontzientzia kritikoa garatzen dugu, eta horrek herri-politiken arduradunen-gan aldatzeko presioa sor dezake.

Adibidez, herri-politiken arduradunek batzuetan adituen esanei arreta gehiago jarri izan diete parte-hartzaileen esperientziatzko jakintzari baino. Rol erlazionalari lotuta, adituek esa-nak prozesuan txertatzen lagundu diegu, nahiz eta hori ekintza-ikerketaren printzipioekin bat ez etorri. Horrela eginda, konfiantza areagotu egiten da. Horrekin batera, rol kritikoa jo-katzean, adituen esanen mugak landu ditugu eta ekintzarako eragileen esperientziatzko ja-kintzaren beharra azaleratu dugu. Lan horiek tentsioa sortu dute eta konfiantza murriztu dute, baina eraldaketarako oinarrizkoak dira.

1.11. irudiak elkarrekiko erresistentziatzko bide hori erakusten du. Lanketa erlazionalaren bidez, eragileek ikertzaileok geure kasa hartuko genituzkeen bideetatik urruntzen gaituzte; lanketa kritikoen bidez, berriz, guk urruntzen ditugu eragileak gu gabe hartuko lituzketen bi-deetatik. Elkarrekin egiten dugun bidea, ondorioz, ko-sorkuntzaren bidez garatua da, ez da ez batarena, ez bestearena.

#### 1.11. irudia. Elkarrenganako erresistentzia ko-sorkuntzaren oinarrian



Ekintza-ikertzaileen eta eragileen arteko harremanaren inguruko narratiba gehienek lan-kidetza azpimarratzen dute, eta nekez azaltzen dira tentsioak eta elkarrekiko erresistentzia. Gure esperientzia oso bestelakoa izan da.

Elkarrekiko erresistentzia da, zalantzarik gabe, nire gorputzaren memorian arrasto gehien utzi duen ekintza-ikerketaren ezaugarria. Elkar geure kasa egingo genukeen bidetik urrundu dugu, eta horrek gogortasuna erantsi dio prozesuari. Aldi berean, horixe bera izan da eraldaketa-iturri nagusia.

## 7. Ekintza-ikerketa boteretik gertu egon da

Aurrez azaldu ditudan proiektuetan, ikerketa eta herri-politikak prozesu beraren barruan garatu dira. Ondorioz, ikertzaileok eta herri-politiken arduradunek ikerketa eta herri-politikaren prozesuak partekatu ditugu, aldi berean. Horrek beste (ekintza-) ikertzaile batzuen erreakzioak sortu ditu, eta «politikatik gertuegi» edo «boteretik gertuegi» geundela esan digute.


Gertutasun hori batez ere Aldundiko arduradunekin izandako bileretan sumatu dugu. Haiekin osatu ditugun taldeei sarri talde eragilea, kudeaketa-taldea, zuzendaritza-taldea edo koordinazio-taldea deitu izan diegu. Haien zat politiken inguruko erabakiak hartu eta proiektuak kudeatzeko espazioak izan dira; guretzat, ekintza-ikerketako dialogorako espazioak.

Aipatutako talde eragile horiek ekintza-ikertzaileok errazten genituen eta, ondoren, talde eragile osoak lurraldeko eragileekin lan egiteko sortutako espazio zabalagoak errazten zituen (gogoratu 1.5. eta 1.6. irudiak).

Talde eragile horietan, boteretik gertutasuna hainbat modutan nabarmentzen zen. Proiektuetan izan dugun parte-hartzea beti herri-politiken arduradunek finantzatutakoa zen, eta horrek harreman hierarkikoak sortzen zituen. Hala ere, errazte-lanek prozesuan eragiteko aukera nabarmena ematen ziguten. Bi kezka nagusitu izan dira boteretik gertuegi ego-teagatik kritika egin digutenengan. Lehena, kooptazioa izan da, hau da, arduradun politiko-koen indarraren aurrean, gure ekintza-ikerketaren printzipioei uko egin behar izatea, boterearentzat funtzional bilakatuz. Bigarren kezka gure legimititatearen ingurukoa izan da, hauteskunde batzuek ematen duten legimitaterik izan gabe, herri-politiketan eragin genezakeelako. Atal honetan, talde eragileen jardunaren inguruko gure esperientzia azaltzen ahal-egindu naiz, muturreko bi egoera horiek nola kudeatzen genituen erakusteko.


Talde eragile baten batez besteko osaera 1.12. irudian adierazi dut. Laukiek herri-politiken arduradunak ordezkatzeko dituzte; borobilek, ekintza-ikertzaileak. Tamainak hierarkia adierazten du. Herri-politiken arduradunen artean, gehienbat Aldundiko zuzendariekin eta haien lantaldeekin lan egin dugu, kargu politiko eta funtzionarioak barne. Ikertzaileen artean ere bada hierarkiarik, beti gutako bat ikertaldearen koordinatzailea izan delako.

### 1.12. irudia. Ekintza-ikerketarako talde eragile bat



Ekintza-ikertzaileok proposatzen genituen, gehienetan, bileretako agendak. Datozen irudietan agenda horiek jarraitzean gehien errepikatzen ziren egoerak jaso ditut. Batzuetan, ikus 1.13. irudia, hartu beharreko erabakien inguruan adostasun garbia egoten zen parte-hartzaile guztien artean. Horrelakoetan ez zegoen negoziatzeko beharrik.

### 1.13. irudia. Adostasuna herri-politiken arduradunen eta ekintza-ikertzaileen artean




Hala ere, zenbaitetan, herri-politiken arduradunen ustez beren politiketarako «komenigarria» zena eta ekintza-ikertzaileontzat gure ekintza-ikerketarako «komenigarria» zena ez zetozen bat. Horrelakoetan, herri-politiken arduradunek herri-politikak lehenesten zituzten, eta ikertzaileok gure ikerketa zaintzen genuen. Desadostasunak askotariko gaietan azaleratzen ziren: adituen rolak, plana behar zen ala ez, nork parte hartu beharko lukeen prozesuan, zer adierazle erabili behar ziren emaitzak neurtzeko, efizientziak zer esan nahi zuen proiektu hartan, jendaurrean nork azaldu behar zuen proiektuko arduradun moduan, noren jakintza zen estrategikoa, nork hartu behar zuen zein erabaki, noren baliabideak (batez ere denbora eta dirua) erabiliko ziren prozesuari eusteko eta beste hainbat.

Horrelakoetan, politiken arduradunek ekintza-ikertzaileoi entzun ohi ziguten, baina beren erabakia hartzen zuten, beren politikentzat komenigarria zela uste zutenaren arabera (ikus 1.14. irudia). Kontuan izanik beren herri-politikak eta gure ikerketa prozesu beraren barruan garatzen zirela, horrek eragina zuen gure ekintza-ikerketarentzat garrantzitsuak ziren gaietan, adibidez parte-hartzean, jakintzaren elkarlaneko sorkuntzan edo praxian.


Egoera horietan ekintza-ikerketaren jasangarritasuna bermatzeko beharrezkoa zen iker-tzaileok adostu genituen gutxieneko baldintzak betetzea: (a) botereari egia esan ahal izatea (literaturan «speak truth to power» moduan jasotzen dena) eta (b) ikaskuntzei buruz idatzi eta argitaratzea. Baldintza horiek betetzen ziren bitartean, malgutasuna genuen gure ekintza-ikerketa eragileekin garatutako moduan onartzeko. Horrelako egoeren ondorioa da gure argitalpenetan gatazkak eta hura lantzeko bidea eraikitzeak duten garrantzia.

**1.14. irudia. Ikuspegi-desberdintasunak herri-politiken arduradunen eta ikertzaileen artean**



Beste zenbaitetan, herri-politiken arduradunek nork bere ikuspegia izaten zuten, eta batzuenak bat etortzen zen ekintza-ikertzaileen ikuspegiarekin, 1.15. irudian adierazi moduan. Horrelako erabaki gehienak negoziatuak izaten ziren.

**1.15. irudia. Negoziatutako erabakiak**




Azkenik, beste hainbatetan, herri-politiken arduradunek eta ikertzaileek gauzak desberdin ikusi arren, dialogo-prozesu baten ondoren, politiken arduradunek ekintza-ikerketa-ren printzipioetako batzuk barneratu zituzten haien erabakietan, euren kabuz egingo luke-tena ez izan arren. Nolabait, metodologian eta ikertaldean zuten konfiantzak «pisu» gehiago ematen zion ikertaldeari. Hau da, 1.6 irudia 1.4 irudiarekin konparatzen badugu, oreka desberdina da 1.6 irudian, borobilek tamaina berdina izan arren, «pisu» gehiago dutelako.

Herri-politiken arduradun batek behin esan zuen horrelako momentuetan asko ikasi zuela, eta, aldi berean, kanpotik etorritako norbait herri-politikak nola egin esaten ari zi-

tzaiela ere sentitu zuela. Horrelakoetan somatzen genuen prozesuaren pisua gure bizkar gainean ekintza-ikertzaileok.

### 1.16. irudia. Konfiantzaren eragina eraldaketan



Eraldaketak aldatu nahi ditugun bizi errealeko egoeretan barneratzea eskatzen du. Ekintza-ikerketak boterea eraldatzeko erabiliko bada, ekintza-ikertzaileek boteretik gertu egon behar dute.

Nire gorputzaren memorian, boteretik gertu lan egiteak ekintza-ikerketaren printzipioe-kiko sortzen duen tentsioa somatzen dut. Hala ere, inoiz ez dugu eraldaketarako jokaleku emankorragorik izan boteretik gertu lan egin dugunean baino.

## 8. Azaleratu gabeko desadostasunek prozesuak geldiarazi dituzte

Edozein ekintza-ikerketak prozesu hasi aurretik, gure ikertaldeak beti eskatzen die herri-politiken arduradunei ekintza-ikerketak zer den ulertu dutela eta ekintza-ikerketak egin nahi dutela baieztatzeko. Ekintza-ikerketaren bidez eraldatu nahi dugunaren narratiba partekatu bat eraikitzen ere saiatzen gara. Adibidez, gaur egun Aldundiarekin partekatzen dugun narratiba bat da gobernua herritarrengandik urrun uzten duen kultura politikoa eraldatzeko lanean ari garela, lankidetzazko gobernantza horretarako bide bat dela, eta ekintza-ikerketak lankidetzazko gobernantarako metodologia bat dela. Narratiba hori erraz adostu genuen bere formulazio abstraktuan.


Narratiba abstraktutik ekintza zehatzetarako bidean, ordea, tentsioak azaleratu izan dira azken hamabost urte hauetan, eta tentsio horiek azaleratzea prozesua sana denaren erakusle izan da guretzat. Izan ere, tentsio horien atzetik zeuden gatazkak (interes eta ikuspegi desberdinak) modu esplizituan azaleratu direnean, landu eta ekintzara iristeko edo prozesua bertan behera uzteko adostasunak lortu izan ditugu.

Baina, tartean behin, zenbait parte-hartzailek bestelako jarrerak ere erakutsi dituzte, bi nagusiki. Alde batetik, ez dira mugitu hasierako diskurtso abstraktutik; beste alde batetik, ez dituzte partekatu euren tentsio eta desadostasunak. Horrek ez du esan nahi ados zeudenik, besterik gabe, haien desadostasuna gorde egin dutela baizik.

Horrelako egoeretan zer egin jakiteko, gure ikertaldeak saio batean aholkulari bati entzundako kontakizunera jo izan du sarritan. Hark esan zuen eraldaketak Gauss-en kurba tipikoari jarraitzen diola (kurba bat marraztu zuen arbelean). Jarraitu zuen esanaz edozein eraldaketa-prozesutan parte-hartzaileen % 10 guztiz alde egongo dela, beste % 10 guztiz kontra, eta gainerakoak alde edo kontra egon daitezkeela, eraldaketarako baldintzen ara-

bera. Horrelakoetan egin dezakegun akatsik handiena gure energia eta denbora kontra dagoen % 10 horren jartzea dela ere esan zigun. Alde dagoen % 10ean eta eraldaketa kontuan hartzeko prest dagoen % 80an kontzentratzeko gomendatu zigun, bi multzo horiek mugiaraztea lortzen badugu, kurba osoa aurrera mugituko delako. Zenbat eta jende gehiago mugiarazi, gehiago mugitzen da kurba. Orduan, gainjarritako beste bi kurba marraztu zituen (ikus 1.17. irudia). Hirugarrena marrazten amaitu zuenean, buelta eman eta galdetu zigun: % 10 oraindik eraldaketaren kontra dago, baina, ikusten al duzue orain non dauden?

### 1.17. irudia. Eraldaketa nahi ez dutenen tokia errazte-prozesuan



Gure energia diskurtso abstraktutik atera ez diren eta desadostasunak gorde dituzten parte-hartzaileengan ez jartzeak lagundu izan digu prozesuak errazten. Baina bada horretarako salbuespen bat: maila abstraktuan iraunez, desadostasunak gordetzen dituztenak prozesuan erabakimena duten (ia) bakarrak izatea. Horrelakoetan, beste eragile batzuk mugiarazita ere, prozesuak pixkanaka trabatu egin dira, itxuraz inolako arrazoirik gabe.

Aldaketa zehatzen garaia iristen denean, erabakimena dutenek maila abstraktuan hitz egiten jarraitzen badute, nahiz eta prozesuarekiko kezkarik edo eragozpenik ez azaldu, egokiagoa izan daiteke prozesua bertan behera uztea, ekintza-ikerketa emankorragoa izango baita beste nonbait.

Gure ikertaldeak eta nik neuk ez dugu beti asmatu hori egiten, eta ondorioak nabarmenak dira nire gorputzaren memoriak gorde duen neke emozionalean.

## 9. Emozioak gorde egin dira

Esperientziak ekintza-ikerketaren beste ezaugarri bat ere erakutsi dit: prozesuan poza, esperantza, lotura, maitasuna, frustrazioa, haserrea, antsietatea eta tristura egon direla. Eta, hala ere, ikertzaileok eta herri-politiken arduradunek prozesua modu arrazionalen adierazi, partekatu eta eztabaidatu dugula.

Egiten genuena kontzeptualizatzean, emozioak garrantzitsutzat jo ditugu. Praktikan, ordea, ez dugu denborarik hartu haien inguruan *hausnartzeko*, ezta haien inguruan ezer *egiteko* ere. Nahita edo nahi gabe, emozioak gorde egin ditugu. Horrek ez du esan nahi emoziorik egon ez denik, ezta emozioek prozesuan eraginik izan ez dutenik ere. Besterik gabe, esan nahi du ekintza-ikertzaileen eta herri-politiken arduradunen arteko elkarriketa politiken eta ekintza-ikerketaren alde arrazionalaren inguruan egituratu dela. Ondorioz, 1.18. irudiak adierazten duen moduan, arrazoiak nagusitu da gure prozesuetan eta berau hitzen bidez azalerratu dugu, gure gorputzaz eta emozioez ahaztuz.

### 1.18. irudia. Ekintza-ikerketaren dimentsio arrazionala



Orain, neure buruari galdetzen diot: nora joan ziren emozio haiek guztiak? Zer ondorio izan ditu emozioak gordetzeak? Izan ere, orain nire gorputzaren memorian emozio haien orbainak nagusitzen dira, eztabaidatu genituen ideien, datuen eta teorien gainetik. Ez dakit emozio haiek nora joan diren, baina, 1.19. irudiaren bitartez izan, izan zirela adierazi nahi dut.

### 1.19. irudia. Ekintza-ikerketaren emozioak (izan, izan baitziren)



Ikertaldean emozioak nola ezabatzen genituen ulertzen lagundu digu, adibidez, saioen osteko lanketak nola egiten genituen gogoratzeak. Herri-politiken arduradunekin elkartu ondoren, lau galdera egiten genizkion geure buruari. Lehena, *zer gertatu da?* Gehienetan denbora luzez aritzen ginen, guztiok baikenituen gertatutakoaren inguruko arrazionalizazioak. Ondoren, beste bi galdera: *nola sentitu zara?* Eta *nola uste duzu sentitu direla besteak?* Gehienetan, erantzun telegrafikoak ematen genituen (ondo/gaizki, eroso/deseroso) eta azkar pasatzen ginen laugarren galderara, *zer hobetuko zenuke hurrengorako?*

Emozioen garrantzia onartu arren, gure ekintza-ikerketaren ezaugarrietako bat izan da emozioak prozesuan txertatzeko hizkuntza eta gaitasun praktikoak falta genituela.


## 10. Ni neu, komunitatea eta mundua elkarri eraginez eraldatu gara

Aipatu dut aurrez gure gune askotako ikertaldea 2018an hasi zela nazioarteko ekintza-ikerketaren beste gune batzuetara irekitzen, eta horrek areagotu zituela gugan norbere eraldaketa lantzeko gogoia eta gaitasunak. Nolabait, kanporantz eta barrurantz hazi eta garatu ginen, «ni» eta «gu»-ren arteko loturetan sakonduz eta lehen eta bigarren pertsonako ekintza-ikerketa landuz.

Gainera, hazkunde-prozesu horiei esker, hirugarren pertsonako ekintza-ikerketa ere egingarria dela sinesten hasi gara. Uste dugu tokian tokiko ikertzaileak aritu daitezkeela modurik eraginkorrenean lurraldearen eraldaketan, bertako eragileekin batera. Hala ere, ekintza-ikertzaileok munduan zehar lurralde asko eraldatzen laguntzen badugu, eta geure artean ikasteko espazioak sortzen baditugu, elkarreraginean, gure proiektuak baino handiagoa den zerbait garatu ahal izango dugu.

Adibidez, bizi ditugun garaiek planeta osoan gure bizimodua sakon aldatzea eskatzen dute eta ekintza-ikerketak presazkoak diren zenbait adostasun eraikitzen lagun dezake. Horretarako, gure komunitateak eta lurraldeak eraldatzeaz gain, erronka nabarmena da gutako bakoitzak norbere garapena (eta eraldaketa) lantzea, baita gure komunitateak munduko beste komunitateei egin diezaiekeen ekarpena kontuan hartu eta lantzea ere (ikus 1.20. irudia).

### 1.20. irudia. Ekintza-ikerketa lehen, bigarren eta hirugarren pertsonan: ni, komunitatea, mundua



Norberaren, komunitatearen eta munduaren eraldaketa loturik daude, ezin dugu bata eraldatu bestearen eraldaketan eragin gabe.

## 11. Itxiera

Kapitulu honen helburua ekintza-ikerketan izan dudan hamabost urteko esperientzia partekatzea izan da. Horretarako, nire jardunaren zortzi ezaugarri esanguratsuenak aurkeztu ditut. Ezaugarri horietako batzuk bidelagun izan ditugun herri-politiken arduradunei erantzunez garatu ditugu. Beste batzuk boteretik izan dugun gertutasunaren ondorio dira. Azkenik, hainbat ezaugarri bigarren pertsonako ekintza-ikerketarekin hasi eta lehen eta hirugarren pertsonakoak txertatzeko egindako ibilbidearekin lotzen dira, besteak beste emozioak gure jardunean barneratuz eta munduan zehar gure moduan ari diren beste batzuekin elkarlana bilatuz.




## 2. kapitulua

# Eraldaketaren esparru kontzeptual bat ekintza-ikerketarako

### 1. Sarrera

Aurreko kapituluan, nire ekintza-ikerketako esperientzia partekatu dut, eta hurrengoan, esperientzia hori berrikusi egingo dut, hartan eragina izan duten pentsamendu dikotomikotak azaleratzeko. Kapitulu honetan azalduko dut nire esperientzia berrikusteko erabili dudana esparru kontzeptuala; hortaz, kapitulu honek aurrekoa eta hurrengoa lotzen ditu, nola-bait (ikus 2.1. irudia).

#### 2.1. irudia. 2. kapitulua: esperientziatik ikasteko esparru kontzeptual bat



Kapitulu hau idaztean, Paulo Freirek jarraitu du inspirazio-iturri izaten. Freirek bere idazketaren prozesuez dio tartean behin topatu zituela nerabea balitz bezala pozez algara eginarazi zioten irakurketak, eta haietan aurkitu zuela «bere praktikaren azalpen teorikoa» edo «berak bere praktikaz zuen ulermen teorikoaren berrespena» (Freire, 2008, 63. or.). Buruan hori izanik, eraldaketari buruzko literaturan barneratu nintzen, nire praktika teoriaren ikuspegitik azaltzen lagunduko zidaten ekarpenen bila. Prozesu horretan iritsi nintzen Leichenko, Gram-Hanssen, eta O'Brien-ek (2022) proposatzen dituzten Eraldaketaren Hiru Esferetara (ikus 2.2. irudia).

Datozen ataletan, lehenik, lurralde-garapenerako ekintza-ikerketak eraldaketaren esparru bat zergatik behar duen argudiatuko dut, ondoren, aipatutako hiru esferen esparrua aurkeztu eta esparru hori gure praktikatara egokitzeko. Prozesua ulertzeko, garrantzitsua da bertan *teoria* eta *esparru kontzeptual* terminoak nola erabili ditudan azaltzea. Teoriak edozein egoeratan aplikagarriak diren printzipio orokorrak jasotzen ditu. Esparru kontzeptualak, aldiz, tresna analitikoak dira eta egoera bati buruz pentsatzen laguntzen digute, gure gogoe-taren erdian egoera horretan garrantzitsuak izan daitezkeen zenbait elementu eta haien arteko harremanak jarrita. Esparru kontzeptualak teoriatik erator daitezke; liburu honetan erabiltzen ditudanek, ordea, teoria eta esperientzia uztartzen dituzte. Ez dute eraldaketa nola gertatzen den azaltzen, baina bizi ditugun eta bultzatu nahi ditugun eraldaketen inguruan hausnartzen lagun diezagukete.

## 2. Zergatik behar dugu eraldaketaren esparru kontzeptual bat?

Atal honetan, aurreko kapituluaren 5. atalean hasitako hausnarketan sakonduko dut. Atal horretan aipatu dut ekintza-ikerketaren erraztaileok gure prozesuko jakintza azaltzeko modu eraginkorrak bilatu behar ditugula, eta azalduko dudana esparrua horretarako erabilgarria izan daiteke.

Gure ikertaldeak erraztu dituen dialogo-espazioetara sarri gonbidatu izan ditugu beste ikertzaile batzuk (aditu edo aholkulari moduan), euren ikuspegi teoriko eta kontzeptualak herri-politiken arduradunekin partekatuz. Zientzia politikoetako, administrazio publikoko edo soziologiako ikertzaile aditu horiek azalpen teoriko sendoak eskaini dizkiete herri-politiken arduradunei, politiken dimentsio batzuen edo besteen inguruan. Batzuek esparru kontzeptualak ere eskaini dituzte herri-politiken inguruan hausnartu ahal izateko eta gehienek esaten zutenaren adibideak partekatu dituzte. Baina adibide praktikoa bat azaltzea eta praktikatik edo esperientziatik hitz egitea ez da gauza bera. Herri-politiken arduradunek esaten zuteneko «bai, horixe nahi dugu guk», adituak jadanik joanak ziren, eta herri-politiken arduradunek arazoak zituzten adituek esandakoak euren egunerokotasunean txertatzeko. Momentu horietan ikusi izan da nabarien errazte-lanaren beharra, eta horrelakoetan bilatu da ekintza-ikerketa. Baina horiek ez dira baldintza egokiak ekintza-ikerketarako, arazoa aurrez eta prozesu-ikuspegiak gabe definitua baitator. Ekintza-ikerketa ez da jadanik egina dagoen hausnarketa ekintzara eramateko (aplikatzeko, inplementatzeko), izan ere, praxiak hausnarketaren eta ekintzaren arteko beste modu bateko lotura eskatzen du.

Ekintza-ikertzaileok dugun prozesuko jakintza, errazteko erabiltzeaz gain, eraldaketaren inguruko narratiben bidez landu daiteke. Gai izango bagina narratiba horiek hasieratik txertatzeko herri-politiken inguruan arduradun politikoek eta adituek duten eztabaidan, gure errazte-lana prozesura «beranduegi iristea» ekidingo genuke.

Erraztu ditugun prozesuetan, adituek ekarritako teoriak ez digute zehaztasunez erakutsi nolakoa izango zen herri-politika bat praktikan. Adibidez, ikuspegi sistemikoa landu genuen-

nean, herri-politiken arduradunek eta ekintza-ikertzaileok kontzeptuaren inguruko teoria elkarrekin barneratu genuen, baina horrek ez zuen esan nahi ikuspegi sistemikoarekin landutako herri-politika bat praktikan nolakoa izan zitekeen partekatzen genuenik. Izan ere, teoria bakoitzak herri-politiken dimentsio-kopuru mugatu bat azaltzen du eta praktikak, aldiz, eraldaketaren dimentsio guztiak aldi berean mugiaraztea eskatzen du. Hau da, teoriak konplexutasuna onartzen du, baina praktikak aurre egin behar dio. Konplexutasunari aurre egiten dion praktikak motela dirudi, formagabea, eta ez dauka hasieran eztabaidaturiko teoriaren garbitasun edo argitasunik. Tamalez, aditu gutxik aipatzen zuten hori eraldatzen ari den herri-politika baten ezaugarrien artean.

Izan ere, batzuetan fenomeno bat teoriaren ikuspegitik eztabaidatzen zuten adituek zailtasunak zituzten fenomeno horren hastapenak praktikan antzemateko. Lankidetzazko gobernantzak adibidez, praktikan, eta batez ere bere hastapenetan, ez du beti teoriaren antzik. Oraindik garatzeko borrokan ari da, eta aldaketari erresistentzia jartzen dioten indar guztiak (boterea, instituzionalizaturiko arauak, emozioak, inertzia...) kontra ditu. Horren ondorioz, uste dut etorkizunean emankorrak izan zitezkeen eraldaketa-prozesuak baztertu ditugula, teoriarekin konparatu eta sortutako espektatibei erantzuten ez zietelako.

Horregatik, prozesuak nola garatzen diren eta nola zaindu daitezkeen ulertzea eraldaketarako jakintza garrantzitsua da, baina jakintza hori ekintzan soilik gauzatzen badugu, errazte-prozesuaren bidez, sarri beranduegi iristen gara. Ekintza-ikertzaileok ekarpen eraikitzailea egin diezaiokegu gure lurraldeen garapenari jakintza hori adituen eta herri-politiken arduradunen eztabaidan hasieratik txertatuz. Helburu horrekin, eraldaketaren inguruko esparru kontzeptual batek gure prozesuko jakintzan oinarrituriko narratibak eraikitzen lagun diezaguke. Hain zuzen ere, horixe egingo dut 3. kapituluan, orain azalduko dudana esparru kontzeptuala erabiliz. Egunen batean jakintza-mota hori lankidetzazko prozesuen hasieran mahai gainean jartzeko gai izango bagina, gure ekintza-ikerketak herri-politiken eraldaketari hobeto lagunduko liokeela uste dut.

### 3. Eraldaketa lurralde-garapenerako ekintza-ikerketan: esparru kontzeptuala


Atal honetan azaltzen dudana esparru kontzeptualak eraldaketaren inguruko nire ikuspegi teorikoak eta esperientzia uztartzen ditu. Horretara iristeko eraldaketaren inguruko literatura irakurriz hasi nintzen, «nire praktikaren azalpen teorikoa» aurkitu nahian (Freire, 2008, 63 or.).

Nire abiapuntua Bradbury (2022) izan zen, ART (action research for transformations) proposatzen duenean eraldaketan jartzen duen enfasiagatik. Handik abiatuta, Karen O'Brien-en lanen hariari jarraitu nion. Karen Suedian ezagutu nuen, AR+ sarean<sup>2</sup>, 2019an klima-aldaketaren inguruko ikerketaren eta ekintza-ikerketaren arteko loturak aztertzeke egindako saioakera batean. Hari horretatik tiraka iritsi nintzen Leichenko et al.-ek (2022) proposatzen duten Eraldaketaren Hiru Esferen formulaziora.

#### 3.1. *Literaturatik hartutako inspirazioa: Eraldaketaren Hiru Esferak*

Leichenko et al.-ek (2022) Eraldaketaren Hiru Esferak izeneko esparrua aurreko lanen gainean eraikiz (O'Brien eta Sygna, 2013; Sharma, 2007) proposatzen dute. Bertan jasangarritasunaren bila eraldaketa bultzatu nahi dugunean zer elementu —eta horien arteko zer

<sup>2</sup> <https://actionresearchplus.com/ar-action-conference-march-8-10-2019-chalmers-university-gothenborg-sweden/>.



Esparruaren muina hiru esferen arteko loturak dira, lotura horiek ahalbidetzen eta bide-

### 3.2. Eraldaketaren esferak lurralde-garapenerako ekintza-ikerketan

Atal honetan 2.2. irudia lurralde-garapenerako ekintza-ikerketara egokituko dut, datozen kapituluetan nire esperientzia berrikusteko. Horretarako, (a) lehen, bigarren eta hirugarren pertsonako ekintza-ikerketak txertatu ditut (ikus azalpena 1. kapituluko 2. atalean); (b) errazte-prozesuak erdigunean jarri ditut, modu esplizituan; eta (c) lurralde-garapenerako erabili izan ditugun kategoriak txertatu ditut.

Lotura horietako batzuk 1. taulan azaltzen dira, eta guztiak 2.3. irudian jasota daude.

**1. taula. Eraldaketaren esferen eta lurralde-garapenerako ekintza-ikerketaren arteko loturak**

|                                   | Praktikoa                                 | Pertsonala                                   | Politikoa                                |
|-----------------------------------|-------------------------------------------|----------------------------------------------|------------------------------------------|
| 2.3. irudiko koloreak             |                                           |                                              |                                          |
| Fokoa                             | Jokaera eta erantzun teknikoak            | Sinesmen, balio, kosmopolisio eta paradigmak | Arau, lege, erregulazio eta instituzioak |
| Ekintza-ikerketa moduekiko lotura | Bigarren pertsona                         | Lehen pertsona                               | Hirugarren pertsona                      |
| Lurralde-garapenerakiko lotura    | Herri-politiketan aritzen den komunitatea | Herritarra (norbera)                         | Lurraldea (subjektu kolektibo moduan)    |

**2.3. irudia. Eraldaketaren esferak lurralde-garapenerako ekintza-ikerketan**



Iturria: Leichenko *et al.* (2022)-en egokitzapena.

Ondoko lerroetan sakonago azalduko dut nola egokitu ditudan hiru esferak lurralde-garapenerako ekintza-ikerketara.

#### *a) Ekintza-ikerketaren moduekiko lotura*

Jatorrizko ereduaren hiru zirkulu kontzentrikoen ordeztatu batean soilik gainjartzen diren beste hiru zirkulu erabili ditut, esanguratsuagoa gertatzen baitzait nire ekintza-ikerketako esperientzia gainjartzen (ez) diren espazioen bidez adieraztea. Izan ere, gu konturatu ala ez, hiru esferak uneoro ari dira elkarri eragiten; baina liburu honek modu kontzientean egindako errazte-prozesuak aztertzen dituenek, marrazkian herri-politikek eta ekintza-ikerketak uneoro foko kontziente hori non izan duten aztertu nahi dit. Horrela, gure ahalegin kontzienteak batzuetan esfera batera bideratu dira; beste batzuetan, bi esferak gainjartzen ziren espazioetara; eta gutxitan hartu ditugu kontuan modu esplizituan hiru esferak eta haien arteko loturak.

Prozesuaren foko horrek lotura estua du nagusitu den ekintza-ikerketara egiteko moduekin (lehen, bigarren eta hirugarren pertsonan). Gehienetan bigarren pertsonan aritu gara, esfera praktikoa. Tartean behin lehena eta bigarrena uztartzeko ariketak egin ditugu, edo bigarrena eta hirugarrena uztartzekoak, gainjarritako guneetara mugituz. Baina nekez iritsi gara erdigunera. Erdiguneak norbere, komunitatearen eta komunitatez kanpokoen eraldaketak elkarri eraginez lantzea eskatzen du. Gune horretan dute herri-politikek eraldatzeko gaitasunik handiena.

#### *b) Erraztea erdigunean*

Liburu honen ardatza ekintza-ikerketaren erraztea da, eta ondorioz, hiru esferak ekintza-ikerketara egokitzean, erraztea modu esplizituan azaleratu nahi nuen. Horretarako, gezi zirkular bat erantsi dut 2.3. irudian. Baina, nik adierazi nahi dudana erraztea ez da edozein errazte, errazte eraldatzailea baizik. Horregatik marraztu dut gezia hiru esferak gainjartzen diren gunean, eta ondorioz, lehen, bigarren eta hirugarren pertsonako prozesuen elkarreraginaren baitan.

#### *c) Lurralde-garapenarekiko loturak*

Azkenik, ereduak esfera praktikoa, politikoa eta pertsonalak lurralde-garapenarekin lotzen ditu. Esfera pertsonalak herritar kontzeptuarekin du lotura, eta gutako bakoitzak herritar moduan duen garapenarekin. Dimentsio praktikoa herritarren komunitate konkretuekin dago lotuta, eta gure ekintza-ikerketaren kasuan, herri-politikak garatzen dituzten komunitateekin. Horiei, sarritan, politiken ekosistema deitu diegu. Dimentsio politikoa lurraldearen kontzeptuari lotuta dago gure ekintza-ikerketan. Lurraldea herritar guztiok gara, barne hartzen gaituzten antolamendu ekonomiko, sozial eta politikoen eta horiek erregulatzen dituzten arau, lege eta instituzioekin batera. Lurraldea, ekintza-ikerketaren ikuspegitik, subjektu kolektibo moduan landu izan dugu, nahiz eta zehaztasunez esan beharko genukeen subjektu kolektibo ugariren amalgama dela.

Liburu honetan jaso ditudan proiektuetan, erreferentziazko lurraldea Gipuzkoa izan da. Baina lurraldearen gure kontzeptua eskala askotakoa ere bada, herritar edo komunitate bat hainbat mailatan erregulatzen diren antolamendu ekonomiko, sozial eta politikoen parte delako. Hau da, herritar bati eragiten dioten herri-politikak maila askotan garatzen dira. Liburu

hau, adibidez, udalerri, eskualde eta lurralde historikoak lotuz garatutako prozesuetan oinarritzen da. Noski, ez dira horiek Gipuzkoako herritarroi eragiten diguten eskala bakarrak, baina, proiektuen fokoa hor egon denez, horixe jasotzen du liburuak.

Datozen kapituluak idaztean, 2.3. irudia eta 1. taula mahai gainean eduki ditut beti.

#### 4. Eraldaketaren esferen loturiko ekarpen esanguratsuak literaturan

Hiru esferen esparrua hautatzeko erabakia ez nuen esparruan bertan soilik oinarritu; aitzitik, esparrua inguratzen duen literatura zabalagoa ere hartu dut kontuan. Hurrengo ideiak literatura horretatik atera ditut, nire esperientziarekin bat egiten duten ekarpenak izateagatik. Horiek topatzean gogoratu nintzen Paulo Freirez, eta hark bere esperientziarekin bat egiten zuten irakurketak aurkitzean sentitzen zuen pozaz. Hemen zerrendatu ditut:


- a) Eraldaketan aritzen diren eragileek ordaintzen duten bidesari emozionala onartzea (Vogel eta O'Brien, 2022).
- b) Frustrazioa, haserrea, mina, antsietatea, tristura eta beste hainbat emozio onartzea, baita esperantza, lotura edo maitasunaren rol eraldatzailea ere (Leichenko eta O'Brien 2019).
- c) Geure buruaz dugun kontzientzia arreta jartzeko beharra eta norbere hausnarketarako ditugun erresistentziak onartzea (Leichenko *et al.*, 2022).
- d) Dimentsio subjektiboak txertatzearen garrantzia, bai gure inguruaren ulermenean eta baita ekintzan ere (O'Brien, 2021).
- e) Diziplina-zeharkakotasunaren papera prozesuetan, teoriara jotzen duten partaideen eta praktikara jotzen dutenen arteko tentsioak gainditzeko (Vogel eta O'Brien, 2022).
- f) Transgresioaren beharra prozesuetan noren ikuspegia den «zuzena» erabaki edo ezarri beharrik gabe aurrera egin ahal izateko (Vogel eta O'Brien, 2022).
- g) Transzendentziaren beharra sinesmen eta paradigmei begiratu ahal izateko, eta ez soilik haien bitartez (Vogel eta O'Brien, 2022).
- h) Banakoen eraldaketaren eta eraldaketa kolektiboaren artean ikusten den dikotomia gainditzeko bideak bilatzea (Leichenko eta O'Brien 2020).
- i) Pentsamendu kritikoaren eta esperientziaren/gorputzaren bidez ikasitakoaren artean bizi dugun deskonexioaren kontzientzia hartzearen balioa, eta horri lotuta, baita eraldaketan praktika pertsonalek duten paperarena ere (O'Brien, Hochachka eta Gram-Hanssen, 2019).
- j) Pentsatzeko, komunikatzeko eta gauzak aldatzeko modu sortzaile, irudimentsu, eta esperientziazkoekiko daukagun erresistentzia onartzea, adibidez, artearen bideak edo kontakizunak erabiltzean (Vogel eta O'Brien, 2022).
- k) Plangintzaren eta prozesu emergenteen arteko tentsioak deskribatu beharra, baita ekintzarako gaitasun indibidual, kolektibo eta politikoen arteko tentsioak ere (Vogel eta O'Brien, 2022).

Kapitulu honen helburuetatik at gelditzen da ezaugarri horietako bakoitza sakon lantzea. Hala ere, aurkeztu ditudan ideietako hiru zehaztasun handiagoz jaso nahi ditut: diziplina-zeharkakotasunari, transgresioari eta transzendentziari dagozkionak.

Diziplina-zeharkakotasunaren kasuan, gehien erakarri ninduen da autoreek jakintza-mota desberdinak serio hartzeko egiten diguten eskaera. Horrek errealitatea zer den jakiteko eta hautemateko modu desberdinak errespetuz tratatzea eskatzen baitu. Testuinguru horretan, Vogel eta O'Brien-ek (2022) «erdigune barneratua» definitzen dute, eta esaten dute erdiguneko lurralde emankor bat dela, non jakintza irekia den, prozesuak emergenteak diren, logika inklusiboa errespetatzen den eta kontraesanekiko tolerantzia esploratzen den. Horrek


eguneroko esperientziak prozesuaren erdigunera ekartzen ditu eta, bide batez, botere desberdintasunen inguruko tentsioak areagotzen dira. Erdigune barneratu horixe adierazi nahi izan dut 2.4. irudian.

#### 2.4. irudia. **Diziplina-zeharkakotasuna erdigune barneratuan**




Eraldaketara transgresioan oinarriturik gerturatzeak, berriz, «emantzat» ditugun hainbat gauza zalantzan jartzea eskatzen du. Hori egitean, «emantzat» ditugun gauza horien atzetik dauden esparru normatiboak azaleratzen dira eta status quo-a berriro ebaluatu eta irudikatzeke presioa sortzen da. Transgresioak sistemak eta egiturak desafiatu egiten ditu, baita horiek betiketzen dituzten pentsamoldeak eta interesak ere. Arrazoia nork duen eztabaidatzetik haratago joatea ere eskatzen du. Hori jasotzeko, 2.5. irudiak, munduari begiratzeko erabiltzen ditugun betaurrekoen bidez, emantzat ditugun esparru normatiboak adierazten ditu.

## 2.5. irudia. Transgresioa «emantzat» duguna zalantzan jartzeko



Azkenik, transzenditzeak giza esperientziaren ohiko ulermen kontzeptualetik harantzago joatea dakar. Ez du esan nahi gure testuingurua, baldintzak, kontraesanak eta arrangurak kontuan hartu behar ez ditugunik, baina bai «ikuspegien ikuspegi» bat garatu behar dugula, horren bidez begiratu ahal izateko sinesmenei eta paradigmiei, eta ez soilik haien bitartez begiratzeke (O'Brien 2021). Ideia hori jasotzen du 2.6. irudiak.

## 2.6. irudia. Hurbilketa transzendenteak eta ikuspegien ikuspegia



Nire esperientzia berrikusteko 2.3. irudia erabili dudala diodanean, ekarpen horiek guztiak ere irudi horren barne hartzen ditut.

## 5. Literaturaren eta nire esperientziaren arteko zubiak

Kapitulu honen eta hurrengoaren arteko zubiak eraikitzeko, atal honetan Eraldaketaren Hiru Esferak nire aurreko esperientziarekin nola lotzen diren pixka bat sakonago azalduko dut.

Hiru esferek aldaketa eta eraldaketa kontzeptuen erabilera zehazten lagundu didate. Ekintza-ikerketak ekintzan gauzatzen da eta zerbait aldatzea bilatzen du. Baina ekintza ego-teak ez du esan nahi ezer aldatu denik. Ekintza aldaketarik gabe gertatzen denean, ekintza-ikerketak status quo-a indartu dezake, nahiz eta hori ez izan lortu nahi zena, edo hori ez bat etorri ekintza-ikerketaren printzipioekin.

Aldatzeak esan nahi du geure burua beste zerbait *bilakatzea* edo guk beste zerbait lehen zenarekiko desberdin *bihurtzea*. Eraldaketa, aldiz, norbaiten edo zerbaiten *osoko* aldaketa moduan definitzen da. Beraz, ez dago eraldaketarik aldaketarik gabe, baina egon daiteke aldaketa eraldaketarik gabe. Leichenko *et al.*-ek (2022) uste dute aldaketa ez-eraldatzailea dela besterik gabe esfera praktikoa jokoerak eta erantzun teknikoak aldatzen direnean, esfera politikoa (sistemak eta egiturak) eta esfera pertsonalean (sinesmenak, balioak, kosmobisioak eta paradigmak) ezer aldatu gabe. Aitzitik, aldaketa eraldatzaileak hiru esferak elkarri eraginez aldatzea esan nahi du.

Ondorioz, ekintza-ikerketaren bidez herri-politiketan dialogorako espazio berriak sortu, konponbide berriak adostu edo programa berriak bultzatzen baditugu (bigarren pertsona), baina parte-hartzaileon sinesmen, balio, kosmobisio eta paradigmek berdin jarraitzen badute (lehen pertsona) eta egindako aldaketak araudi, lege eta instituzioetan txertatzen ez baditugu (hirugarren pertsona), herri-politikak aldatuko genituen, baina ez ditugu eraldatu.


Hori buruan dudala gure esperientziari (eta ekintza-ikerketako beste prozesu batzuei buruz argitaratzen denari) begiratzen badiot, konturatzen naiz proiektu gehienak nagusiki esferetako batera bideratzen direla. Gutxi lantzen dute modu kontzientean eta esplizituan hiruen arteko elkarreragina. Horrek zer esan nahi du, ekintza-ikerketak sarri aldaketak sortzen dituela, baina ez eraldaketa?

Nire esperientzia da guk esfera bakarrean lana egin arren, esferen arteko eraginak gertatu egiten direla. Baina uste dut, era berean, elkarreragin horiek modu kontzientean erraztuko bagenitu, gure eraldaketa-gaitasuna biderkatu egingo litzatekeela.

Idea hori landu dut datozen irudien bitartez.


Hasteko, 2.7. irudian adierazi dut nola bizi izan ditudan lehen pertsonako ekintza-ikerketako prozesu gehienak. Ariketa haiek neure garapenerako baliagarriak izan ziren, eta noski, badakit ni aldatzen banaiz, taldearekiko eta taldeaz kanpoko harremanak beste modu batekoak izango direla. Baina erraztaile moduan neure buruari begiratzen badiot, konturatzen naiz oso zaila egiten zitzaidala neure garapena taldean eta taldeaz harantzago modu esplizituan lantzea, eta, lotura horiek erraztu gabe utzi nituela.

### 2.7. irudia. Lehen pertsonako ekintza-ikerketaren fokoa norberarengan



Gure bigarren pertsonako ekintza-ikerketa herri-politiken ekosistema konkretuetan harreran-ereduak eraldatzera eta lankidetzan proiektu eta programa berriak garatzera zuzendu da, 2.8. irudian jaso dudan moduan. Behin edo beste aipatzen genuen prozesu horietan parte hartzea ona izan zitekeela norbere garapenerako (lehen pertsona). Gure lanaren emaitzak erakundetu zitezkeela eta gure proiektuetatik kanpo beste batzuek gure esperientziatik ikas zezaketela ere esaten genuen (hirugarren pertsona). Baina eragin horiek bigarren mailakoak ziren. Baliabideak mugatuak izanik, oso kasu bakanetan jaso genituen helburu moduan eta, ondorioz, ia ez genituen erraztu.


**2.8. irudia. Bigarren pertsonako ekintza-ikerketa eta konponbide praktikoak lehenestea**



Hala ere, ikasi dugu erakundetze-prozesu horiek, beren kasa, ez direla nahikoak eraldaketa sortzeko. Erakunde berri horiek paper huts bilakatu daitezke lanketa horretan jarraitzen duten banakoen paradigmek hasitako bidean aldatzen jarraitzen ez badute, edo maila praktikoa horrela lan egiten jarraitzen ez bada.

Zalantzarik gabe, zaila da aldi berean fokoa hiru dimentsioetan eta horien arteko elkarre-raginean jartzea, 2.10. irudiak jasotzen duen moduan. Baina horrela bakarrik gauzatu ahal izango dira ekintza-ikerketak dituen pentsamendu sistemikorako potentziala eta eraldaketa-gaitasuna.

2.10. irudia. **Lurralde-garapenerako ekintza-ikerketa eraldatzailea**



Ekintza-ikerketa eraldatzailea da esfera pertsonala, praktikoa eta politikoa elkarri eraginez aldatzen direnean. Prozesu horiek errazteko beharrezkoa da lehen, bigarren eta hirugarren pertsonako ekintza-ikerketa uztartzea.

## 6. Itxiera

Aurreko kapituluak deskribatutako esperientzietan oinarrituz, esparru kontzeptual berriak egiten digun ekarpen nagusia da orain arte ezkutuan genituen esferak mahai gainean jartzea.


Gure ikertaldeak eta lankide izan ditugun herri-politiken arduradunek esfera politikoa aldatzeko asmoa eduki dugu eta esfera pertsonalaren garrantzia onartu dugu. Hala ere, bi dimentsio horiek ez dira modu esplizituan jaso gure lanerako agendetan, eta gure lanaren ardatza aldaketa praktikoetan egon da, 2.11. irudian adierazten dudan moduan.

### 2.11. irudia. Fokoa esfera praktikoan duten herri-politikak eta ekintza-ikerketa



Eraldaketaren esferen esparruak gure lanaren fokoa mugitzera gonbidatzen gaitu, gure arreta esfera praktikotik hiru esferen elkarreraginera eramateko. Horixe jaso nahi izan dut 2.12. irudian, 2.10. irudiaren osagarri. Hemen esfera politikoa eta pertsonala ez daude «emantzat» eta bilatzen den eraldaketaren parte dira. Ondorioz, erraztaileen eta lurralde-eragileen agendan tokia dute.

**2.12. irudia. Fokoa hiru esferetan jartzen duten herri-politikak eta ekintza-ikerketa**



Datozen kapituluetan neure esperientziara itzuliko naiz, oraingoan 2.12. irudi horrek adierazten duen moduan, gertatzen ari zenaren ikuspegi osoagoa garatzeko.




### 3. kapitulua

## Pentsamolde dikotomikoak herri-politiketarako ekintza-ikerketan

#### 1. Sarrera

Lehen kapituluan nire esperientzia azaldu dut nire gorputzaren memorian neramatzan zortzi ikasketatan oinarrituta, eta bigarrenean, Eraldaketarako Hiru Esferak izeneko esparrua egokitu dut lurralde garapenerako ekintza-ikerketara (ikus 2.3. irudia). Kapitulu honetan, nire esperientzia berrikusiko dut, esparru horrek eman dizkidan betaurrekoetatik begiratzuz.

#### 3.1. irudia. Kapitulu honen helburua: nire esperientzia berrikustea hiru esferen esparrua erabiliz



Nire esperientzia berrikusteko, Lurralde Garapenerako Laborategiko (LGLab) eta *Etorkizuna Eraikiz* Think Tankeko lau errazte-esperientzia zehatz hautatu ditut. Kapitulu honetan gure prozesuak esaten dudanean, horiei buruz ari naiz. Honako hauek dira:

- a) Think Tankarentzat misio bat garatzea.
- b) Lurralde Garapenerako Laborategian sustapen ekonomikorako herri-politiken efizientzia hobetzea, lankidetzazko gobernantzaren bidez.
- c) Lurralde Garapenerako Laborategian sustapen ekonomikorako hitzarmen bat sinatzea Aldundiaren eta eskualdeetako garapen-agentzien artean.
- d) Lurralde Garapenerako Laborategiko ekintza-ikerketaren muinean, generoak gure roletan zuen garrantziaz kontzientzia garatzea.

Aurreneko hiruretan bigarren pertsonako prozesuak errazteaz ari naiz; laugarrenean, norbere garapena errazteaz. Esperientzia horiek hiru esferak erabiliz berrikusi ditudanean, esfera pertsonalaren, praktikoaren eta politikoaren arteko loturak ulertzen saiatuz, prozesu horietan eragin duten hamar pentsamolde dikotomiko azaleratu ditut (ikus 3.1. taula kapitulu honen amaieran).

Dikotomiek ustez kontrakoak edo guztiz desberdinak diren gauzak adierazten dituzte. Pentsamolde dikotomikoez ari naizenean, bi alderen artean hautatzera bultzatzen gaituzten pentsamoldeez ari naiz, ustez bata zuzena eta bestea okerra direlakoan. Ondorioen atalean argudiatuko dut erraztea eraldatzaileagoa dela alde bat hautatu beharrean, bien arteko elkarrreragina bilatzen dugunean, ikuspegi dikotomikoa gaingiduz. Hurrengo kapituluan aldiz, dikotomiaren bi aldeen arteko botere harremanez arituko naiz, alde batek bestea azpian hartzen duela adieraziz. Pentsamolde dikotomikoa gaingiditzaiek botere harremanekin ere badu lotura, beraz. Baina horiek landu aurretik, datozen ataletan, pentsamolde dikotomiko bakoitzaren eraginak praktikan azaltzen ahaleginduko naiz.

Amaitzeko, nire esperientzian pentsamolde dikotomikoez izan duten iturburuaren inguruko hausnarketa partekatuko dut. Herri-politiken arduradunekin ekintza-ikerketa egitea erabaki izan dugunean, erraz adostu izan ditugu gure elkarlanaren printzipioak: eraldaketa, demokratizazioa, parte-hartzea, ekintza eta praxia. Baina, ados egotea ez da nahikoa horiek gauzatu ahal izateko. Izan ere, ekintza-ikerketa prozesu gehienen hasieran baldintzak ez dira aproposak ekintza-ikerketaren printzipioen arabera lan egiteko. Ondorioz:

Ekintza-ikerketa erraztea ez da izan, nire esperientzian, zehatz-mehatz ekintza-ikerketaren printzipioen arabera lan egitea, nahiz eta horretan saiatu. Ekintza-ikerketa erraztea izan da printzipio horiek tokia izan zezaten baldintza berriak sortzea, zeuden baldintzek bestelako printzipioak bultzatzen zituztelako. Beraz, ekintza-ikerketaren printzipioak kontrakotzat jotzen diren beste batzuekin elkarreraginean gauzatzen dira, erresistentzia eta tentsioen eraginean. Hori da pentsamolde dikotomikoen iturburua.

Aurrekoak pentsarazten dit, agian, egunen batean ekintza-ikerketa egiteko baldintza perfektuak izango bagenu, ez genukeela gehiago ekintza-ikerketarik beharko.

Kapitulu honen helburuak betetzeko, aurrez aurkeztutako lau esperientziak berrikusiko ditut datozen lau ataletan, hamar dikotomia esanguratsuenak azaleratzeko. Itxierako atalean, taula bat eta bi irudi prestatu ditut, dikotomia horien sintesi bat egiteko.

## 2. Lehen esperientzia: Think Tankerako misio baten garatzea

Atal honetan 2019an kokatuko naiz, hiru hilabetez Gipuzkoako Foru Aldundiko herri-politiken hiru arduradunekin astero egin nituen bileretan. Aldundiak jadanik abian zuen Think

Tankari buruzko arazo bat jarri zuen mahai ganean, eta ekintza-ikerketaren bidez erantzuten saiatzea adostu genuen. Think Tanka ondo ari zen lurraldeko eragileen hausnarketak jasotzen, baina arazoa zen zailtasunak zituela horiek herri-politiken egunerokotasunean txertatzeko. Saio haietan, Think Tankaren berregokitze-prozesuaren erraztaile moduan aritu nintzen: bilerak prestatzen nituen, pausoz pauso hausnarketarako gaiak proposatu, ikuspegi desberdinak jaso (neurea barne) eta ekintzarako adostasunak bilatu. Horrela lan egin genuen Think Tanka nola berregituratu adostu arte.

### 3.2. irudia. Think Tanka berregituratzeko dialogorako espazioa



Prozesu horretan lortu genituen adostasunei esker, ekintza-ikerketan oinarrituriko fase berri bat hasi zen Think Tankean. Hurrengo atalean, adostu genituen elementu praktikoetako batetik abiatuko naiz, hari lotutako esfera politiko eta pertsonalen inguruan hausnartzeko. Azken horiek ez genituen zuzenean landu 2019an eta, ondorioz, izebergaren metaforara itzuliz, ikusten den tontorretik abiatuko naiz ur azpian ezkutuan gelditu zitzaizkigunak ulertzen saiatzeko.

#### 2.1. *Esfera praktikoa*

Herri-politiken arduradunekin garatutako dialogoaren emaitzetako bat Think Tankaren misioa izan zen:


«Jakintza transferigarria eta aplikagarria ko-sortzea<sup>3</sup>, lankidetzazko gobernantza-ren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren politiken ekosistema (aktoreak, edukiak eta prozesuak) modernizatuko duten agenda eta kultura politiko berriak txertatzeko.»

<sup>3</sup> Euskaraz hau esateko modu egokiena *elkarrekin sortu* da, eta adiera hori lehenesten saiatu naiz. Hala ere, misioa literalki jaso dut (*ko-sortu*). Gainera, liburuan barrena, euskaraz diharduten zenbait eragilek moduan, *ko-sortuntza* ere erabili dut, haien lanarekin loturak adierazteko.

Misio horrek herri-politikak egiteko modu berri bat adierazten zuen, eta modu horrek antolaketan eta jokaeretan aldaketak eskatzen zituen. Errazte-lanetarako tresna garrantzitsua ere izan zen, proposamenak beti misioaren galbahetik pasatzen baikenituen, koherentzia zutela ziurtatzeko. Orain, hiru esferen ikuspegitik, bigarren pertsonen ko-sorkuntzaren bidez garatutako misio bat zela ikusten dut, esfera praktikoa ardaztua eta ekosistema eraldatzea bilatzen zuena.

Adostutako misioa gauzatzeko, lau lagunek lantalde hura zabaltzen joan zen eta aurrena herri-politiken bederatzi arduradun eta hiru ekintza-ikertzailek osatutako zuzendaritza-taldea bilakatu zen (ikus 3.3. irudia). Zuzendaritza-talde horren eskutik, ondoren, lau deliberazio-talde osatu ziren. Horietan, ekosistemako laurogeita hamar eragile inguru (herri-politiken arduradunak, lurraldeko eragileak, ekintza-ikertzaileak) aritu ziren hiru urtez elkarlanean. Gune horien diseinua eta egin zuten lana misioan oinarritu ziren.

**3.3. irudia. Think Tankaren denbora-lerroa, fase bakoitzean kide berriak barneratuz**



Misio horren atzetik dauden esfera pertsonal eta politikoen inguruan hausnartzeko jadanik lankide batekin argitaratu nuen zerbait jaso dut (Larrea eta Karlsen, 2021, 23-41. or.):

«Misio horrek erakusten du herri-politiken arduradunek proposaturiko hitzak (transferigarria eta aplikagarria) eta ikertzaileak proposaturikoa (ko-sortu) batera jaso zirela, maila kontzeptualean bateragarriak izan ez arren. Izan ere, jakintza transferitzea eta aplikatzea modu linealei lotzen zaizkie, eta ko-sorkuntzak izaera lineala gainditzea eskatzen du. Misio horren inguruan lortutako adostasuna dialogo-prozesu baten lehen pausoa izan zen. Askotariko botere eta jakintzen eraginpean, adostasun horrek ikuspegi epistemologiko desberdinen arteko elkarbizitza erakusten du.»

## 2.2. Esfera praktikoa esfera politikoarekin eta pertsonalekin zituen loturak

Herri-politiken arduradunek hautatutako hitzak (transferigarria eta aplikagarria) eta nik ekintza-ikerketari lotuta proposaturikoa (ko-sortu) guztiz errotuta zeuden bakoitzaren sinesmen, balio, kosmobisio eta paradigmatan, hau da, gure esfera pertsonaletan. Herri-politiken arduradunen ikuspegia bat zetorren, gainera, herri-politikan eta unibertsitatean nagusi diren arau, erregulazio eta instituzioekin, hau da, esfera politikoan nagusitzen den ikuspegia-ekin. Ko-sorkuntzak eta ekintza-ikerketak, ordea, arazoak dituzte herri-politiken eta, esango nuke, batez ere unibertsitatearen esfera politikoan euren tokia aurkitzeko. Atal honetan, misioari loturik, esfera praktikoa, pertsonal eta politikoen elkarrenerginean aurkitu ditudan hiru

pentsamolde dikotomiko aztertuko ditut: jakintza aditua eta esperientziako jakintza, plan-jakintza eta prozesu emergenteak, eta teoria eta praktika.

### 2.2.1. *Jakintza aditua eta esperientziako jakintza*

Hausnarketa hauek 2020ko ekainaren eta 2023ko apirilaren artean kultura politiko berria garatzeko deliberazioan aritu zen taldeari lotzen zaizkio. Misioa adostu genuen herri-politiken hiru arduradunak eta ni neu talde horren parte ginen.

Hiru urtez, deliberazio-taldea hilerok bildu zen, bi orduko saioetan. Saio bakoitzaren hasieran, lehen ordubetea, taldeaz kanpoko aditu bat gonbidatzen genuen aurkezpen bat egitera. Gonbidatu horiek batez ere akademian garatutako diziplinazko jakintza ekartzen zuten, gehienetan zientzia politiko, administrazio publiko edo soziologiaren esparrukoa. Taldean aditu izena haien izenak gordetzen genuen.

Deliberazio-taldeko partaideek bi egiteko zituzten saioetan. Alde batetik, aurkezpena entzun eta galdera-erantzunen bidez gaian sakontzea. Beste alde batetik, adituaren ekarpenek kultura politiko berriaren inguruan taldeak diagnostikatutako arazoaren konponbidean nola laguntzen zuten aztertzea. Bigarren horri deitzen diot jakintza diziplinarioa esperientziako jakintzaren *galbahetik pasatzea*, eragileen esperientziak erakusten baitzigu ziren prozesurako baliozkoak ziren teoria eta kontzeptuak.

Ekintza-ikertzaileok ere prozesuan aritu ginen, baina ez aditu moduan. Gure lana taldearen ahotsa eraikitzen laguntzea zen, parte-hartzaileek eginiko ekarpenak sistematizatuz eta haien jakintza dokumentatuz.

Lurralde-garapenerako ekintza-ikerketaren esparru metodologikoaren barruan, sarrerako aurkezpena egiten zuten gonbidatuak diziplinazko jakintza zekarten prozesura; taldekideek, Aldundiaren politiken ekosistemaren esperientziako jakintza; eta gure ikertaldeak, prozesukoa. Beraz, jakintza berria ko-sorkuntzaren bidez garatzeko behar ziren hiru jakintza-motak bagenituen.

Baina jakintza-mota horien arteko lotura ez zen automatikoa. Partaideetako baten ekarpenari jarraituz, jakintza *aditua* eta *aritua* bereizten hasi ginen. Ekintza-ikertzaileontzat, berri ona izan zen hori, jakintza aritua edo esperientziakoa aitortzea zela iruditzen baitzitzaigun. Baina, sarritan, taldean jakintza adituari arituari baino estatus handiagoa aitortu zitzaion. Gainera, taldean unibertsitateko eta ikerketa-zentroetako kide ugari geundenez, partaideek sarritan diziplinazko jakintza partekatzen zuten, politiken ekosistemaren inguruko euren esperientziako jakintza azaldu beharrean. Horrelakoetan, ekintza-ikerketak eskatzen dituen orekak hausten ziren, nolabait, aditu gehiegi eta aritu gutxiegi baikeunden gelan. Hori adierazi nahi izan dut 3.4. irudian.

Prozesu horri hiru esferen betaurrekoetatik begiratzean, ikusten dut esfera praktikoa diziplinazko jakintzari emandako balioespina koherentea dela herri-politiken arduradunek misioan jasotako hitzekin. Izan ere, adituen jakintza teoriko eta kontzeptuala transferitzeko eta aplikatzeko asmoz sortzen da eta ikuspegi hori nagusitzen zen bai taldekideen esfera pertsonalean, baita esfera politikoko arau eta erakundeetan ere. Adostu genuen misioak *ko-sortzea* ere jasotzen zuen esfera praktikoa, baina izebergaren tontor horrek oinarri askoz arinagoak zituen ur azpian, hau da, taldekideen esfera pertsonalean eta esfera politikoan.

### 3.4. irudia. Teoria, kontzeptuak eta haiek hautatzeko esperientziatzko galbahea



Hierarkia horren esperientzian oinarrituta, aipatu nahi dudana lehen dikotomia jakintza adituaren eta esperientziatzko jakintzaren artekoa da.

---

#### Jakintza aditua eta esperientziatzko jakintza

---

Prozesu batean, jakintza adituaren izenean, hainbat diziplinatako jakintza teoriko-kontzeptuala lehenesten denean, parte-hartzaileen eta erraztaileen esperientziatzko jakintza ez da behar adina balioesten. Desoreka horrek arriskuan jartzen ditu ko-sorkuntza eta, beraz, ekintza-ikerketa.


---

#### 2.2.2. Plangintzaren ikuspegia herri-politiken muinean

Herri-politiken arduradunek jasotako hitzek (transferigarri, aplikagarri) lotura sendoak dituzte gobernuek euren politiketarako duten tresna garrantzitsuenetariko batekin, plangintzarekin, hain zuzen. Beste toki gehienetan gertatzen den bezala, Gipuzkoako Foru Aldundian eta lurralde honetako garapen-agentzietan ere plan estrategikoak tresna garrantzitsua izan dira.


Planek ikuspegi linealari erantzuten diote. Izan ere, lurraldearen arazoak konpondu ahal izateko, lehen fase batean parte-hartzaileek hausnartu eta zer egin erabaki behar dute, eta ondorengo fase batean erabaki horiek inplementatu egiten dira. Beraz, hasierako fasean sortutako jakintza *transferitu* eta *aplikatu* egiten da.

### 3.5. irudia. Plangintzaren ibilbide lineala hausnarketatik jakintzaren aplikaziora



Ekintza-ikerketak, aldiz, prozesu emergenteak proposatzen ditu. Prozesu horiek ez dira linealki garatzen, praxiaren prozesu zikliko jarraituan baizik, behin eta berriz ekintzatik hausnarketara eta hausnarketatik ekintzara igaroz. Beraz, ekintza ez da prozesuaren amaieran gertatzen, aurretik sortutako jakintza bat aplikatuta. Aitzitik, ekintza hasieratik beharrezkoa da, ekintzan sortzen baitira hausnarketa eta jakintza.

### 3.6. irudia. Praxia prozesu emergente gisa



Kultura politiko berrirako deliberazio-taldearen praktikak 3.5. irudia eta 3.6. irudia, biak, uztartu zituen. Lehen urtearen hasieran, deliberazio-taldeak urteko plan bat prestatu eta onartu zuen, zein gairi buruz, norekin eta nola deliberatuko zen esanaz (plangintza). Baina, hurrengo atalean zehaztasun gehiagoz azalduko dudan moduan, adituekin modu linealean lan egitearen inguruko ikuspegi kritikoa landu ondoren, plan hori alde batera utzi eta taldearen jakintza sortzeko modua aldatu egin zen (prozesu emergentea). Horrek bi ikuspegien arteko tentsioak ekarri zituen.

Azaleratu ziren eztabaidak saioen diseinuari eta, beraz, esfera praktikoari lotu bazitzaizkion ere, azpitik desberdintasun sakonak zeuden parte-hartzaileen paradigmetan (pertsonala) eta erakundetutako prozeduretan (politikoa). Beste dikotomia esanguratsu bat, ondorioz, plangintzaren eta prozesu emergenteen artekoa da.

---

#### Plangintza eta prozesu emergenteak

---

Plangintza herri-politiken ohituretan txertatuta dagoenean, zaila izan daiteke ekintza-ikerketako prozesu bateko parte-hartzaileak prozesu emergenteekin eroso sentitzea.

---

#### 2.2.3. Teoria eta praktika herri-politikan

Aurreko bi dikotomietan sakontzen badugu, hirugarren bat aurkitzen dugu haien oinarrian, teoriaren eta praktikaren artekoa, hain zuzen.

Adituek askotariko teoriak eta kontzeptuak ekarri zituzten prozesura. Herri-politiken arduradunetako batek behin argudiatu zuen helburua aurrea kultura politiko berriaren inguruan oinarritzeko kontzeptuak zein diren eta haien esanahia zein den adostea zela, parte-hartzaileen artean elkarriketa zehatzagoa edukitzeko. Jarraian, elkarriketa horren bidez, irtenbide teorikoak adostu nahi ziren, ondoren praktikan arazoa konpontzeko. Pentsamolde lineal hori erakundetuta dago herri-politikan ez ezik, baita akademian ere (esfera politikoa).

#### 3.7. irudia. Teoriaren papera prozesu linealetan




Hasieran 3.7. irudian jasotako moduan lan egin genuen. Izaera lineal hori ez dator bat ekintza-ikerketak proposatzen duen praxiarekin. Baina ekintza-ikerketaren beste printzipio batek dio eraldaketa-prozesuek eragileak dauden puntuan hasi behar dutela. Eragileek lan

egiteko modu lineala proposatzen badigute, hori izango da ekintza-ikertzaileen abiapuntua. Kontuan izanik Think Tankean teoria eta adituak herri-politiken erdigunean zeudela, misioak jasotzen zuen ko-sorkuntza ez zen hasieran egingarria. Ondorioz, lehen pausoa taldean nagusi ziren sinesmen, balio, kosmobisio eta paradigmak ekintzan gauzatzen laguntzea izan zen, elkarrekin modu linealean lan eginez. Praxiaren printzipioa bigarren mailan utzi genuen, eraldaketa-prozesuan eragileek ematen ziguten abiapuntua lehenesteko.

Ondorioz, lehen sei hilabeteetan kultura politiko berrirako taldean adituak eta haien ekarpenak jarri genituen ekintza-ikerketa prozesuaren erdigunean. Sei hilabeteren ondoren, parte-hartzaile batzuek euren iritzia eman zuten, adituek esandakoa eta praktikan Think Tankean genituen erronkak lotzea ia ezinezkoa zela esanez. Ondorioz, lehen aldiz, saio bat erabili genuen metodologiaz (ekintza-ikerketaz) hitz egiteko eta erabaki zen hurrengo lau hilabeteetan kanpoko adituri gabe lan egitea. Oraingoan, praxiaren proposamena ez zen ekintza-ikertzaile erraztaileon eskutik soilik etorri, parte-hartzaileen eskutik ere etorri zen, elkarrekin bizitako esperientziak jakintzan oinarrituta. Oraingoan, bai, praxiari tokia egin zitzaion taldean. Deliberazio-taldeko partaideek prozesuaren lidergoa hartu zuten eta, lau taldetan antolatuta, euren jakintza partekatu zuten, lau saiotan. Azaldu zuten jakintza batez ere esperientziakoa izan zen, taldeetako bat esparru teoriko bat eraikitzen aritu zen arren. Esperientziakoa jakintza hori ez zen teoria gabekoa, izan ere, praxiak teoria barne hartzen du, baina beti praktikaren galbahetik pasatuta. Galbahetik pasatutako teoria berdez margotu dut 3.8. irudian.

### 3.8. irudia. Praxiak teoria barneratzen du, parte-hartzaileen esperientziakoa galbahetik pasatuz




Ekintza-ikerketako prozesu batean eragile esanguratsuek teoria eta praktika bereizten dituztenean aurrena teoria eta ondoren praktika lantzeko asmoz, praxia arriskuan jartzen da. Horrelakoetan, ekintza-ikerketaren bidea prozesu lineal hori elkarrekin bizitzea izan daiteke (linealtasuna ekintza-ikerketaren printzipioekin bat ez etorri arren), prozesu horren eta bere mugen kontzientzia partekatu garatzeko.

### 2.3. *Esfera pertsonala eta lehen pertsonako ekintza-ikerketa*

Orain arte deskribatu dudana kontraesanek jositako ekintza-ikerketa prozesu bat da. Nolan izan ginen gai (herri-politiken arduradunak eta ikertaldea) hain sakoneko kontraesaneekin elkarlanean aritzeko? Atal honetan, berriro eraldaketaren esfera praktikoa, politikoa eta pertsonaletan barrena mugituko naiz, nire ustez galdera horri erantzuten dion beste dikotomia bat aurkezteko, boterearen eta maitasunaren artekoa. Nire argudio nagusia da maitasunaren eta boterearen arteko elkarreraginak (hau da, pentsamolde dikotomiko hau gainditzeko) bermatu zuela bi ikuspegi desberdinen arteko elkarbizitza.


Elkarreragin hau ulertzeko ateak lehen pertsonako ekintza-ikerketak, hau da, norbere eraldaketarako lanketak, zabaltzen dizkigu. Behin Think Tankeko arduradunetako batek eta neuk gure harremanetan botereak zuen eragina aztertzeko esperimendu bat egin genuen, Hilary Bradburyren laguntzaz (ikus Larrea, Bradbury eta Barandiaran, 2021). Eta dialogoa boterearen eztabaida batekin hasi genuen arren, maitasunaz hitz egiten amaitu genuen, deserosotasunak deserosotasun. Maitasuna kontzeptu zaila da gune publiko/profesionaletan ateratzeko, desagokia iruditzen zaigu. Hala ere, elkar ikertze horren emaitzarik esanguratsuena maitasuna politikei loturiko prozesuetan kontzeptu esanguratsua dela onartzea izan zen, ondoren, baieztapen hori Think Tankaren beste espazioetara eramateko.

### 3.9. irudia. Boterea indar zentrifugoa da



Boterea, gure ekingtza-ikerketako prozesuetan, politikak eta politika eraldatzeko bultzada da. Aurkeztu ditudan adibideetan, boterea izan da programa berriak sortu edo zaharrak aldatzea, gobernu-egiturak berrantolatzea edo prozedura berriak erakundetzea ahalbidetu duen bultzada. Erregulazio, programa, egitura edo prozedura horiek egikaritzen direnean, bultzatzaileak (banakoak edo taldeak) errealizatuta sentitzen dira. Prozesu horren, emaitzen eta norbere lorpenen jabe sentitzen dira, eta hala ikusten ditu taldeak.

### 3.10. irudia. Maitasuna indar zentripetua da




71

### 3.11. irudia. Maitasuna eta boterea gauzatzea pertsona bakoitzean




Baina boterea eta maitasuna prozesu sozialak dira. Ondorioz, gutako bakoitzak bizi dituen asimetriek sortutako tentsioak taldean edo komunitatean nola garatzen diren ulertzea ere garrantzitsua da. Hori aztertzeko lehen pauso moduan 3.12. irudia prestatu dut. Bertan, gure deliberazio-taldea nolakoa izango litzatekeen marraztu dut, partaide guztiok boterea eta maitasuna modu guztiz orekatuan gauzatuko bagenitu.

### 3.12. irudia. Boterea eta maitasuna modu orekatuan gauzatzea



Nekez aurkituko dugu, ordea, horrelako orekarik. Ondorioz, 3.13. irudian desoreken nire bizipena adierazi nahi izan dut; horretan laguntzeko, prozesuan aktore rola zutenak (herri-politiken arduradunak gehienetan, baina baita ikertzaileak ere) urdinez margotu ditut eta erraztaileak (ekintza-ikertzaile nahiz herri politiken arduradunak), fuksiaz.

### 3.13. irudia. Maitasunaren eta boterearen desorekak ekintza-ikerketan



Boterea eta maitasuna modu dikotomikoan ulertzeak gure egitekoen artean bata edo bestea hautatzera garamatza. Hori kaltegarria da, Kahanek (2010) dioen moduan, boterea maitasunik gabe eta maitasuna botererik gabe degeneratiboak direlako. Hau da, boterea generatiboa edo sortzailea izateko, maitasunarekin erabili behar da, eta maitasuna generatiboa izan dadin, boterea ere erabili behar dugu. Botere eta maitasun generatiboek ahalbidetzen dute sinesmen desberdinen elkarbizitza prozesu batean. Ondorioz:

#### Boterea eta maitasuna

Ekintza-ikertzaileen rola soilik erraztera, eta ondorioz, maitasuna gauzatzera bideratzen bada (bananduta daudenak elkartuz) eta gainerako eragileen egitekoa soilik errealiziora bideratzen bada (boterearen baitan), dinamika degeneratiboak gara daitezke.

### 3. Bigarren esperientzia: parte-hartzea eta efizientzia Lurralde Garapenerako Laborategian

Parte-hartzea eta efizientiaren inguruko ikasketa nagusiak 3.3. atalean jaso ditut, baina komenigarria iruditu zait aurretik ekintza-ikerketan eta gure prozesuetan parte-hartzea eta demokratizazioa nola lotu diren azaltzea.

### 3.1. Ekintza-ikerketa eta demokratizazioa

Ekintza-ikerketa parte-hartze prozesu bat da, demokratizatzailea, jakintzaren sorrera demokratizatzen duelako, eta jakintza hori ekintzan eta elkarrekin sortzen denez, botere-harremanak eraldatzen dituelako. Zabalduen dagoen ekintza-ikerketa modua bigarren pertsonakoa izanik, mikro-prozesuak eta talde konkretuetako harremanak demokratizatzen dira, gehienetan.

Gure prozesuetan, ordea, ekintza-ikerketako eragileak herri-politiken arduradunak izanik, demokratizazioaren beste esanahi batzuk ere azaleratu dira. Demokraziaren interpretazioen artean, demokrazia ordezkatzaillearena gailendu da, zeinaren bidez herri-politiken arduradunek (gure ekintza-ikerketako eragileek) politika publikoen gainean erabakitzeke agindua eta boterea duten.

Ekintza-ikerketaren bidez landu dugun demokratizazioak aurreko bi adierak gainjarri ditu, eta ondorioz, herri-politiken arduradunen erabakitzeke boterea eta agindua lurraldeko beste eragile batzuekin modu parte-hartzailean erabiltzeko bideak arakatu dira. Gainjartze hori adierazi nahi izan dut 3.14. irudian.

#### 3.14. irudia. Demokrazia ordezkatzaillea ekintza-ikerketarako esparru moduan



Demokratizazioaren bi dimentsio horiek elkarri lotzeko oinarritzko kontzeptua lankidetzazko gobernantza izan da, honela definiturik: «Lankidetzazko gobernantza da erakunde publiko, gizarte-eragile eta herritarren arteko lankidetzazko instituzionalizatua, herri-politiken ekosistema ahalduntzeko eta eraginkor bihurtzeko; hori egin behar da erakundeen, gizarte-eragileen eta herritarren arteko gizarte-kapitala sendotuz, deliberazio eta ekintza partekatuen bidez»<sup>4</sup>.

Esfera praktikoan, ekintza-ikerketak erraztutako lankidetzazko gobernantzaren bidez, lurraldeko aktoreek parte hartzeko hainbat espazio sortu dira. Horrek, ordea, esfera politikoan eta pertsonaletan (eragileen sinesmenekiko eta errotuta dauden instituzioekiko) tentsioak sortu ditu. Ondorioz, eragile batzuek kezka azaleratu dute parte-hartze hori ez ote zaion demokrazia ordezkatzaillearen printzipioei kontrajartzen.

Kezka nagusia prozesu horietako parte-hartzaileek herri-politiketan eragiteko duten zilegitasunari dagokio, izan ere, ekintza-ikerketako parte-hartzaileek ez dituzte herritar guztiak ordezkatzeko. Beste ikerketa eta parte-hartze metodologia batzuek izaera ordezkatzaillea bilatzen dute, laginekin lan eginez, edo, gutxienez, parte-hartzaileak zozketa bidez aukeratuz. Ekintza-ikerketak toki eta momentu bateko arazo zehatzei erantzuten die, toki eta momentu horretan arazo hori bizi duten pertsonen parte-hartzea bultzatuz. Parte-hartzaile bati prozesuan parte hartzeko zilegitasuna ematen dio arazoa bizi izanak: arazoa sufritzen badu, zilegi da konponbidean parte hartu ahal izatea. Ekintza-ikerketako parte-hartzaileek, beraz, euren burua ordezkatzeko dute, eta ez herritar guztiak. Hala ere, haien egunerokotasuneko arazoak herri-politikei lotuta daudenean, herri-politiketan eragin dezakete.

Ondorioz, ekintza-ikerketak, herri-politiken eremuan garatzen denean, demokrazia ordezkatzaillearen printzipioekiko kezkak sor ditzake. Zehazki, gure prozesuetan kezka nagusia galdera honi lotuta agertu da: «Hauteskunderen bidez, gizarteak boterea/erantzukizuna ematen die erakunde publikoei. Zer baldintza bete behar dira botere/erantzukizun hori partekatzeko, legitimitate politikoa galdu gabe?»<sup>5</sup>. Galdera hori 3.15. irudian jaso nahi izan dut.

---

<sup>4</sup> Kultura politiko berrirako deliberazio-taldeak elkarrekin sortutako definizioa, ikus 2022ko azaroan argitaratutako emandako 23. lan-dokumentua, Etorkizuna Eraikiz Think Tankaren webgunean.

<sup>5</sup> Ikus Kultura Politiko Berrirako deliberazio-taldearen 22. lan-dokumentua, 2022ko irailaren 15ean taldeak egindako hausnarketa jasotzen duena, Etorkizuna Eraikiz Think Tankeko webgunean, <https://www.etorkizunaeraikiz.eus/eu/think-tank-kultura-politiko-berria>.

### 3.15. irudia. Eragileen ordezkartzaren dilema ekintza-ikerketaren bidez erraztutako herri-politiketan



Amaitzeko, aipatu behar da azaldu ditudan proiektuetan parte hartu duten herritar gehienek haien bizitza profesionalaren barruan hartu dutela parte. Parte hartzean ez zaie beti euren erakundea ordezkatzeko eskatu, baina, zalantzarik gabe, erakundeen arteko zubi-lana egin dute, prozesuan erabakitzen zenarekiko euren eta beste erakunde batzuen konpromisoa garatuz. Ondorioz, parte hartzen ari zirenak pertsona konketuak edo erakundeak ziren ere galdetu diogu gure buruari. Galdera hori oraindik irekita dago eta hori adierazten du 3.16. irudiak.

Ondorioz, eta hasieran aurreratu bezala, esfera praktikoa gertatu den lurraldeko aktoreen parte-hartzeak, herri-politiketan eta diru publikoaren erabileran eraginak eduki dituen heinean, esfera pertsonalak (sinesmen, balio eta paradigmak) eta politikoak (erregulazio eta instituzioak) ukitu ditu eta zalantzak sortu dira.

Think Tankean dilema horiek maila teorikoan adituekin aztertu ditugunean, ez gara behin betiko erantzunak aurkitzeko gai izan. Hala ere, praktikan, egoera zehatzetan, konponbideak bilatu dira, demokrazia ordezkatzailaren printzipioak urratu gabe, herritar guztiak ordezkatzeko ez dituzten lurraldeko aktoreen parte-hartzea bideratzeko. Gehienetan bermea eman izan du herri-politiken arduradunek azken erabakimena gordetzeko formularen bat bilatzeak. Baina zenbait kasutan berme hori oso muturreko kasuetan soilik gauzatu daitekeela ere ezarri da eta horrek lurraldeko eragileen parte-hartze eremua nabarmen irekitzen du.

### 3.16. irudia. Banakoen eta erakundeen papera herri-politiketarako ekintza-ikerketan



#### 3.2. Demokratizazioaren lehen pertsonako begirada

Aipatu dut demokratizazioa eztabaidan jarri duten gure prozesu gehienak bigarren pertsonakoak izan direla, hau da, talde-lanean oinarritu direla. Baina prozesu horiekiko lehen pertsonako begirada ere landu dezakegu, izan ere, parte-hartzaile bakoitzak parte hartzeko izan dituen moduak oso errotuta egon dira bakoitzaren sinesmen, balio, kosmobisio eta paradigmatan (esfera pertsonalean, alegia). Kontua da, orain arte, nekez partekatu edo eztabaidatu dugula esfera hori.

Ekintza-ikerketaren printzipioek bat egin dute gure prozesuetako parte-hartzaile batzuen sinesmen, balio, kosmobisio eta paradigmeekin; baina ez beste batzuenekin. Horrek esan nahi du parte-hartzaile guztiak ez direla eroso sentitu ekintza-ikerketan. Gure ikertaldeak sarritan eztabaidatu ditu eragileekin ekintza-ikerketak esfera praktikokoan dituen eraginak, baina hamabost urtean nekez landu ditugu eragin praktikoko horien eta parte-hartzaileen sinesmen eta balioen arteko talak. Hortaz, talka horiek ez dira modu irekian kontuan hartu parte-hartzea bultzatzean. Orain datozenak gure saioetako batean Aldundian egindako prozesu bati buruz jasotakoak dira<sup>6</sup>:

<sup>6</sup> Kultura politiko berriko deliberazio-taldea, 18. lan-dokumentua, 2022ko otsaila.

«[...] Profil horretako pertsonak ez [dira] beti egokitzen. Pertsonak hain garrantzitsuak izanik, prozesu bat abian jartzerakoan lan egiteko modu horietarako profil ego-kiak dituzten pertsonak ez baditugu, merezi al du prozesu hori hastea? Ez ote litzateke eraginkorragoa eraldaketa-lana beste nonbaitera bideratzea?»


Saioan esan zen pertsona batzuek «berezko» jarrerak edo joerak dituztela lankidetzazko gobernantzan aritzeko, eta beste batzuek ez. Eta ia ezinezkoa dela joera hori ez duten per-sonak lankidetzan aritzea. Uste dut «berezko» horren oinarrian dagoena esfera pertsonala dela, norberaren sinesmen, balio, kosmobisio eta paradigmak.

Sarri, parte-hartzaileak ekintza-ikerketara gonbidatzean, esfera praktikoa soilik hartzen da kontuan. Ondorioz, parte-hartzaileak arazo/erronka bat bizi dutelako, edo haren gai-neko jakintza/erabakimena dutelako gonbidatzen dira. Prozesua errazten ari garenok lehen momentutik saiatzen gara parte-hartzaile bakoitzak «berezko» hori baduen edo ez ikusten, baina hori ez da modu irekian mahai gainean jartzen. Parte-hartzaileen esfera pertsonala bat ez datorrenean ekintza-ikerketaren printzipioekin, ordea, tentsioak sortzen dira eta prozesua arriskuan jar daiteke. Urte hauetako ikasketa garrantzitsua izan da komenigarria dela, proze-suaren jasangarritasunerako, ekintza-ikerketarako eta lankidetzazko gobernantzarako «be-rezko» joera dutenen eta ez dutenen arteko oreka egokia bilatzea.

### 3.3. Parte-hartzea eta efizientzia

Aurreko bi ataletan parte-hartzea hiru esferen elkarreraginarekin lotuta azaldu ondoren, atal honetan parte-hartzearen eta efizientziaren arteko tentsioen inguruan gure ikertaldeak izan duen bizipena azalduko dut. Horretarako, Lurralde Garapenerako Laborategira (LGLab) joko dut, eta zehatzago, enpresa txikiei 4.0 industria (enpresaren lehiakortasuna hobetzeko eraldaketa digitalak) garatzen laguntzeko prozesuaren hastapenetara.

#### 3.17. irudia. Hierarkia efizientzia-iturri moduan




2016an, LGLabeko dialogo-prozesuetan, Aldundiko politikari batek azaldu zuen enpresa txikiei 4.0 industria garatzen laguntzeko deialdi bat egin zutela. Programa hori Aldundiko

politikariek eta funtzionarioek definitu zuten, euren eskumenak erabiliz. Hierarkiaren arabera bakoitzak dituen eskumenak erabiliz erabakitzearen abantailetakoa bat da azkar erabaki ahal izatea. Alde horretatik, erabakitzeko modu hori efizientea dela esan ohi da, 3.17. irudiak adierazten duen moduan.

Baina, programa ireki zen arren, hartarako gordetako dirua ez zen erabili, enpresa gutxi egin zutelako eskaera. Herri-politiken arduradunek eta ikertaldeak landu genuen lan-hipotesia izan zen enpresa txikiek ez zutela dirua erabili programa euren beharretara egokituta ez zegoelako; hortaz, enpresen beharrak ezagutzeko haiengana gerturatu beharra zegoen. Erronka aproposa zirudien Aldundiaren eta agentzien artean garatzen ari ginen lankidetzazko gobernantzarako.

Izan ere, aurreko hiru urteetan (2013-2016), enpresa txikiei modernizazioan laguntzeko helburu nahiko abstraktuarekin, Aldundiaren eta agentzien arteko konfiantza eta ikuspegi partekatua garatzen aritu ginen, parte-hartze maila altuarekin. Hori adierazi nahi izan dut 3.18. irudian.

**3.18. irudia. Konfiantza eta ikuspegi partekatuan inbertitzea**




Baina tentsioa ere bazegoen prozesuan, hainbat parte-hartzailek esan zigutelako saio gehiegi egiten ari ginela, emaitza zehatz oso gutxi lortzeko. Helburua, noski, hausnarketatik ekintzara pasatzea zen, baina pauso hori ematea kostatzen ari zitzaigun. Eta konfiantza eta ikuspegi partekatua garrantzitsuak izan arren, beste mota bateko emaitza konkretuak lortzeko erabiltzen ez badira, ez dira balioan jartzen. Horregatik, 4.0 industriaren proiektua aukera moduan ikusi genuen ordura arte garatutako konfiantza eta ikuspegi partekatua arazo konkretu bat konpontzeko erabiltzeko. Aldundiak eta agentziek adostu zuten agentzietako teknikariak, bi erakundeen izenean, eskualde bakoitzeko enpresa txikiekin harremanetan jarri eta enpresek zer behar zuten aztertuko zutela. Jakintza horretan oinarrituta, programa beregituratu nahi zen.

Aldundiko herri-politiken arduradunak, agentzietako teknikariak eta ekintza-ikertzaileok hileroko tailerretan bildu ginen, prozesuaren neurrirako metodologia berri bat elkarrekin ga-

ratzeko. Metodologia hori erabiliz, agentzietako teknikariak Gipuzkoako 10 eta 100 langile bitarteko enpresa industrial guztiekin jarri ziren harremanetan. Enpresei, elkarlanean, 4.0 industriaren inguruko diagnosi bat egitea eskaini zieten eta 400 enpresek baiezkua eman zuten. Enpresen informazioa erabiliz lurraldeko diagnosi bat osatu zen eta diagnosi hori eskuan, Aldundiko eta agentzietako ordezkariak saio batean adostu zuten zein motatako programa garatu behar zuen Aldundiak. Programa horretan, agentzietako teknikariek enpresekin jadanik sortuta zituzten dialogoei jarraitu zieten eta, oso aste gutxitan, programan parte hartzeko prest zeuden 40 enpresa txikirekin lanean hasi ziren, hobekuntza-planak garatzeko. Pausoak geroz eta azkarragoak ziren eta parte-hartzeak prozesuari ez ohiko eragin-kortasuna eman zion (3.19. irudia).

### 3.19. irudia. Efizientzia Aldundi, agentzia, enpresa txiki eta ekintza-ikertzaileen arteko lankidetzan



Prozesu horretan parte hartzeko bi modu nagusi erabili ziren. Alde batetik, Aldundiaren eta agentzien arteko maila askotako gobernantza; horren barruan, metodologiak eta programen oinarriak elkarrekin sortu zituzten eta horrek eragina izan zuen erakunde horien arteko botere-harremanetan. Eta beste alde batetik, enpresa txikien parte-hartzea; agentziako teknikariek izan zuten dialogoaren bitartez, programetan eragin baitzuten jakintza elkarrekin sortuz. Hasieran, bi parte-hartze horiek denboran inbertsio esanguratsua eskatu zuten eta tentsioa sortu zen efizientzia eskatzen zuten eragileekin. Baina epe luzean, erakutsi zen parte-hartzeko modu horiek efizientzia ekarri zutela.

#### Efizientzia eta parte-hartzea

Parte-hartzea efizientea ez dela dioen diskurtsoa zabalduta dago. Baina behin konfiantzazko harremanetan eta ikuspegi partekatuan inbertitzen denean, prozesu parte-hartzaile bat efizienteagoa izan daiteke hierarkian hartutako erabaki bat baino.


#### 4. Hirugarren esperientzia: Lurralde Garapenerako Laborategiaren oinarritzko hitzarmena erraztea

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta agentziek 2013an hasitako lankidetzaz-eredua 2017ko ekainean sinatu zuten hitzarmenaren bitartez erakundetu zen. Hitzarmenak sustapen ekonomikoa zuen ardatz eta urteroko prozedura bat ezarri zuen Aldundiak eta agentziek lurraldearen arazo eta erronka nagusiak zein ziren adostu, haiei elkarlanean nola erantzun erabaki, aurrekontuak egokitu eta proiektuak abian jartzeko. Horrekin batera, proiektuak urtero ebaluatuko ziren eta, ondoren, beste ziklo bati emango zitzaion hasiera.

Sinatutako dokumentu hura ez zen etorkizunerako desio hutsa, Aldundia eta agentziak jadanik LGLab-ean elkarlanean nola ari ziren jasotzen zuen. Hau da, prozesua praxian oinarrituta zegoen eta ez plangintzan. Ondorioz, dokumentuak ez zuen esaten zer egin behar zen, egin zedin. Dokumentuak azken lau urteetan Eskualde Arteko Mahaian eta erraztaileen ekintza-ikerketako prozesuetan jadanik garatzen ari zen lana aitortzen zuen, aurrerantzean ere hala jarraituko zela esanaz. Hau da, ordura arte modu esperimentalean garatutakoa instituzionalizatuz, esfera praktikoa hasitako aldaketak esfera politikoan eragin zuen.

Hitzarmenaren inguruko adostasuna, ordea, ez zen modu espontaneoan lortu. Puntu horretara iristeko erraztutako prozesua 3.20. irudian jaso dut. Irudiak bi fase azaltzen ditu. Hasierakoan, Aldundiak eta agentziek bakoitzak bere ulermen eta narratibak zituzten lankidetzari buruz; eta, ondorengoan, ulermen eta narratiba partekatuak eraikitzen joan ziren.

##### 3.20. irudia. Narratiba paraleloetatik partekaturiko narratibarako trantsizioa



Datozen ataletan prozesu hori berrikusiko dut, esfera praktikoa, politikoa eta pertsonalek elkarri nola eragin zioten aztertzeko. Helburu horrekin, hiru elementu nagusi azalduko ditut: (1) emozioek lehen fasean izan zuten eragina, (2) desadostasunen diagnostika nola egin genuen eta (3) aurrekoak kontuan izanda, esfera pertsonalak espazio publikoan duen tokia. Hiru pauso horietako bakoitzean dikotomia bat azaleratuko dut: arrazoa eta emozioa, objektiboa eta subjektiboa, eta publiko eta pribatua.

#### 4.1. Emozioak eraldaketaren esfera praktikoan


Aldundiaren eta agentzien arteko hitzarmenerako adostasuna lortzeko prozesua 2016ko martxoan hasi zen eta 2017ko ekainera arte iraun zuen, eta hilean behineko lan-saioen bidez garatu genuen. Parte-hartzaileak Aldundiko hiru arduradun (politikari bat eta bi funtzionario), agentzietako zuzendariak (tartean behin lehendakariak ere parte hartuta) eta bi ekintza-ikertzaile izan ginen.

Lehen bi saioak sarrerakoak izan ziren, eta Aldundiko ordezkari politikoak elkarlanerako akordio formal bat sinatzea proposatu zuten agentzietako lehendakariak eta zuzendariak. Bilera horietako giroa adeitsua izan zen eta egin ziren ekarpenak, politikoki zuzenak.

Hirugarren saiorako ekintza-ikertzaileak hitzarmena adosteko metodo bat proposatzeko eskatu zitzaigun. Metodoaren proposamena azaldu ondorengo solasaldian tonu politikoki zuzena desagertu egin zen eta esperientzia luzea zuen agentzien ordezkarietako batek hitzaldi garrantzitsu egin zuen. Aipatu zuen puntu hartan lehen ere egonak zirela, horrelako prozesuek haien espektatibak pizten zituztela, baina gero, behin eta berri, espektatiba horiek bertan behera gelditzen zirela, Aldundiak betiko bidetik jarraitzen zuelako. Gutxiak hitz egin zuten, baina gure ikertaldeari iruditu zitzaigun agentzietako zuzendari ugari zegoela ados esandakoarekin.

Ikuspegi arrazional batetik inork ez zuen zalantzarik: lurraldearentzat ona zen Aldundia eta agentziak elkarlanean aritzea. Baina agentzietako ordezkariak emozioak azaleratu zituzten, haien artean nabarmenena, haserrea. Egun hartan gela osoak ordura arte gordeta edukitako emozioz gainezka zirudien.

#### 3.21. irudia. Bilera-gela emozioz gainezka



Aldundiko kideek entzun egin zuten eta gelan katarsi-sentipen moduko bat nabaritu zen. Ondorengo urteetan parte-hartzaileekin saio hari buruz hitz egin izan dudanean, kontu-

ratu naiz askok aldaketaren abiapuntu gisa ikusten dutela. Saio haren helburua, lan-metodo bat adostea, modu arrazionalen definituta genuen, baina emozioek zirrikitua topatu zuten bertatik azaleratu eta prozesuaren erdigunean kokatzeko. Zerrendara eransten dudak diktoria berria, ondorioz, arrazoiaren eta emozioaren artekoa da.

---

#### Arrazoa eta emozioa

---

Ekintza-ikerketako prozesu batek gehiegi begirutzen dionean dimentsio arrazionalari, emozioak azaleratzeko tokirik utzi gabe, prozesua azalean adeitsuagoa izan daiteke, baina gordetako emozioek prozesua trabatu dezakete eta aldaketa eragotzi.

---

### 4.2. *Desadostasunen diagnosis*

Prozesua errazteko lana Aldundiak eta Orkestrak zuten hitzarmen bati esker gauzatu zen. Ondorioz, gure errazte-lana Aldundiko kideekin adosten genuen, modu jarraituan eginiko bileretan. Inoiz ez ginen biltzen agentziekin Aldundiko kideak bertan egon gabe. Hala ere, sei urtez agentzia batean lanean aritua nintzen eta banituen harreman informalak prozesuaren inguruko ikuspegi politikoki zuzenaz gain, elkarriketa informalean esaten zena jakiteko. Azken horiei «kafe orduko elkarriketak» deitzen genien.

Aurreko atalean deskribatu dudak saioaren ondoren, Aldundiaren eta agentzien arteko harremanaren «benetako egoera» ezagutzeko beharra azpimarratu zen. Susmoa zegoen finantzazioa gai arantzatsua izango zela, eta hura ulertzen laguntzeko, agentzietatik eta Aldunditik jasotako informazioarekin txosten bat egitea erabaki zen. Helburua agentziak nola finantzatzen ziren ondo ulertzea zen. Horretarako, mahai gainean jarri behar zen dirua nondik jasotzen zuten, diru horretatik zenbat zetorren Aldunditik, eta diru hori nola erabiltzen zen (horretarako agentzien egiturak eta lan egiteko moduak aztertuz). Lan kuantitatibo hori unibertsitate bati azpikontratatu zitzaion. Prozesuan, txosten horrek «diagnostiko objektibo» izena jaso zuen.

Aldi berean, gure ikertaldeak beste dokumentu bat prestatzea proposatu zuen, gure ustez diagnostiko objektiboak azaleratuko ez zituen beste gai batzuk landu ahal izateko. Horri «diagnostiko subjektibo» deitu genion. Horretarako, kafe orduko elkarriketetan entzun baina oraindik saio formalean mahai gainean jarri ez ziren gaien inguruan esaldi batzuk zerrendatzea proposatu genuen. Bagenekien esaldi horiek bakoitzaren ikuspegitik eta norberaren interesen arabera formulatutako ikuspegi subjektiboak izango zirela, bakoitzaren emozio, lehentasun eta iritzietan oinarrituak. Hala ere, argudiatu genuen garrantzitsua zela interpretazio subjektibo horiek ere prozesuan txertatzea. Parte-hartzaileek baiezkota eman zigutenean, hamar esaldi formulatu genituen eta parte-hartzaile bakoitzak galdeketa anonimo bati erantzun zion, Likert eskala baten bidez esaldi horiekiko zuten adostasun/desadostasun maila azalduz. Esaldi horien hainbat adibide ikus daitezke jarraian:

- a) Agentziak handiegiak dira.
- b) Agentziek eraginkortasun-arazoak dituzte.
- c) Agentziek Aldunditik behar dutena batez ere dirua da.
- d) Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ditu ezagutzen agentziak eta haien gaitasunak.
- e) Aldundiko kideek benetako borondatea badute, prozedura formalak ez dira arazo izango.

Erantzunak parte-hartzaileen profilen arabera taldekatu genituen, Aldundiko kideek eta agentzietakoek esaldi bakoitzaren inguruan zein toki hartzen zuten ikusteko.


Diagnostiko objektiboak erakutsi zuen, batez beste, agentziek euren finantzazioaren % 10 jasotzen zutela Aldunditik; % 48 udaletatik jasotzen zuten eta % 17, Eusko Jaurlari-

tzatik. Nire irudipena izan zen Aldundiko kideek ehuneko hori handiagoa izatea espero zutela. Hala izan edo ez, finantzazioa eztabaidaren ardatzetik bigarren mailara igaro zen.

Diagnosticako subjektiboak, bestalde, erakutsi zuen talde bakoitzak narratiba bat eraikia zuela eta horretaz baliatuz, lankidetzaz ez garatzeko arrazoi nagusia bestearen jarrera negatiboari egozten ziola: «ezin dugu haiekin lankidetzan aritu, eraginkorrak ez direlako» edo «ezin dugu haiekin lankidetzan aritu, benetako borondaterik ez dutelako».

Bi txostenak aztertu ondoren, parte-hartzaile guztiek datu objektibo berak zituzten, baina, hala ere, euren harremanaren inguruko interpretazio subjektibo desberdina egiten jarraitzen zuten. Interpretazio subjektibo desberdinak edukitzea ezinbestekoa da, baina batzuetan interpretazio subjektiboek gerturatu egiten gaituzte eta beste batzuetan, urrundu. Horixe azaldu nahi izan dut 3.22. irudian, parte-hartzaile bakoitzak bere buruan harremana irudikatzearen modua marraztuta.

### 3.22. irudia. Datu objektiboen interpretazio subjektibo desberdinak



Ekintza-ikerketaren helburua ez zen «egia» aurkitzea, edo «arrazoia» nori zuen erabakitzea. Helburua elkarrikketa politikoki zuzena atzean uztea zen, eta diagnosticako subjektiboa partekatzean langa hori pasatu egin genuen. Interpretazio subjektiboek elkarlana oztopen zuten hainbat aurreiritzi azaleratu zituzten. Aurreiritzi horiek aurrez aurre eztabaidatuz, tentsioa jaitsi egin zen. Beste dikotomia garrantzitsu bat, beraz, dimentsio objektiboaren eta subjektiboaren artekoa da.

Atal honetan partekatzen dudak dikotomia, nire esperientzian, aurrez azaldu ditudan bi dikotomien (arrazional/emozional eta objektibo/subjektibo) oinarrian dago. Publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomiaz ari naiz.

Ikertzaileek erraztutako prozesuetan, herri-politiken arduradunek arrazoia eta objektibotasuna espero izaten dituzte. Emozioak eta subjektibotasuna bizitza pribatuari dagozkiola uste da, eta ondorioz, ez da egokitzat jotzen lan-eremu publikoetan horiek partekatzea. Horrek ez du esan nahi lankideekin emozioak eta interpretazio subjektiboak partekatzen ez ditugunik, baina espazio informaletan egiten dugu hori, pribatutasuna dagoen guneeetan eta, gehienetan, guk bezala pentsatzen dutenekin. Ondorioz, parte-hartzaileekin modu anonimoan «kafe orduko elkarrizketak» partekatu genituenean, ordura arte pribatuak izan ziren edukiak publikoki partekatzen ari ginen.

emozioak

Esfera pertsonala praktikoarekin eta politikoarekin lotzeak, beraz, dialogorako espazioen izaera aldatzen du. Espazio berri hauek eraginkorrak izateko garrantzitsua da emozioa eta subjektibotasuna espazio publikoari ere badagozkiola onartzea, arrazoiarekin eta objektibotasunarekin batera. Ondorioz, 3.23. irudiak 3.22. irudia berrikusten du, oraingoan emozioak eta subjektibotasuna elkarrizketaren dimentsio esplizitu moduan azaleratuz.

Kapitulu honetan jasotako hirugarren dikotomia, esan bezala, publikoaren eta pribatuaren artekoa da.

---

#### Publikoa eta pribatua

---

Ekintza-ikerketan prozesuetan parte-hartzaileek uste dutenean emozioa eta subjektibotasuna euren bizitza pribatuan soilik azaleratu behar direla eta, ondorioz, ez dituztenean espazio publikoan parte-hartzen, prozesurako oso garrantzitsuak diren elementuetara iristeko ateak ixten dizkiote taldeari.

---

## 5. Laugarren esperientzia: errazte-prozesuak eta generoa

Orain aurkeztuko dudana nire ekintza-ikerketan bizi izandako eraldaketa garrantzitsuena dela uste dut, nahiz eta oraindik hastapenetan dagoen. Nire gorputzaren memorian orbain nabarmenak ere utzi ditu. Generoak ekintza-ikerketan, eta zehazki, errazte-lanetan duen eraginaz ari naiz, eta nola horretaz jabetzea ez den bat-bateko aurkikuntza bat, urteetako lana eskatzen duen norbere eraldaketa sakona baizik.

Berrikusteko hautatu dudana esperientzia erraztearen kontzeptualizazioa da, Pablo Costamagnarekin 2017an egindakoa (Costamagna eta Larrea, 2017)<sup>7</sup>. Orduz geroztik, gu biok eta beste hainbat lankidek kontzeptualizazio hori erabili dugu gure prozesuetan. Berrikusketaren ondorioz, bi dikotomia berri ere gehitu ditut zerrendara: aktore eta erraztaile, eta maskulinoa eta femeninoa.

### 5.1. *Erraztea esfera praktikoa*


Pablok eta biok errazteari buruzko liburua argitaratu genuenean, esfera praktikoa jarri genuen lanaren erdi-erdian. Gure jarduna 3.24. irudian adierazi genuen, eta bertan garbi berezi genituen lurraldeko aktoreen rola eta erraztaileenak. Lurraldeko aktoreak lurraldeko arazoen jabe dira, eta arazo horiei dagozkien erabakiak hartzeko eskumenak dituzte. Erraztaileen lana, aldiz, aktoreek arazo horien inguruan hausnartu, erabaki eta ekiteko baldintza egokiak sortzea da. Rol horiek definitu ondoren, argudiatu genuen ekintza-ikertzaileok (eta gure ikerketa-erakundeak) ez gara erraztaile hutsak, lurraldeko aktoreak ere bagarela, lantzen ditugun arazoen jabe gu ere bagarelako eta haien inguruan erabakitze eskumenak ditugulako, ikerketari dagokion alorrean. Horregatik, ekintza-ikertzaileok *aktore erraztaileak* gara esan genuen.

Hala ere, ez genuen bigarren ideia hori jasotzen zuen irudirik egin. Agian horregatik, 3.24. irudia erabili dugu gure ikertaldean errazte-lana adierazteko.

---

<sup>7</sup> Jaitsi liburua hemen: <https://www.orkestra.deusto.es/images/investigacion/publicaciones/libros/colecciones-especiales/actores-facilitadores.pdf>

### 3.24. irudia. Erraztea lurralde-garapenerako ekintza-ikerketan



Iturria: Costamagna eta Larrea, 2017.

Sarri azaldu diegu lurraldeko beste eragileei gure lana irudi honetan oinarrituz. Horrelakoetan gailentzen den narratiban, gainerako eragile horiek (gure kasuan, batez ere herri-politiken arduradunak) lurraldeko aktore dira, eta gu, ekintza-ikertzaileok, erraztaile. Orain neure buruari galdetzen diot ez ote dugun, irudi hori erabilita, aktore erraztaileak definitzean aldatu nahi genuen status quo-a sendotu. Ondorioz, dikotomia hori ere zerrendan jasotzen dut.

#### Aktore eta erraztaile

Ekintza-ikerketaren prozesu batean, ikertzaileon rola herri-politiken arduradunen lana erraztera mugatu daiteke. Horrelakoetan, prozesuak lurraldeari zuzenean egiten dion ekarpena herri-politikak dira eta ikerketak herri-politiketarako baldintzak sortzen ditu. Hau da, ez da aitortzen ekintza-ikerketaren ekarpen zuzenik lurralde garapenera. Horrek ekintza-ikerketaren eraldaketarako potentziala murrizten du.

### 5.2. Esfera pertsonala eta politikoa, ikusezintasuna eta generoa

Atal honetan, 3.25. irudia erabiliko dut 3.24. irudiaren esfera praktikotik pertsonalera mugitzeko. Hitz guztiak ezabatu ditut, uste dudalako irudien kokapenek, formek eta koloreek erabili genituen hitzek baino hobeto adierazten dutela gure esfera pertsonala.


Irudian aktoreei dagozkien borobilak zuzenean lurralde-garapenaren laukizuzenari lotuta daude; errazteari dagozkion laukiek, ordea, ez dute hori ukitzen. Beraz, errazteak ez diola lu-

lralde-garapenari zuzeneko ekarpenik egiten adierazten digute. Bestela esanda, errazteak lurraldeari aktoreen lanaren bitartez soilik ekartzen dio balioa.

Kokapen horrek hierarkia ere adierazten du. Izan ere, aktoreen (gure buruan, herri-politiken arduradunen) hausnarketa, erabaki eta ekintzak gainean marraztu genituen, eta erraztaileen (gure buruan, geure) hausnarketa, erabaki eta ekintzak, azpian.

Koloreek ikusgaitasunaz hitz egiten digute, eta lurraldeko aktoreei dagozkien irudiek kolorea badute ere, erraztaileei dagozkien irudiak koloregabeak dira. Azkenik, ikusgaitasun/ikusezintasun ideia hori indartu egiten da kontuan hartzen dugunean aktoreei dagozkien irudiak lerro jarraituaz marraztuta daudela eta erraztaileenak, berriz, lerro ez-jarraituaz.

### 3.25. irudia. Kokapenak, formak eta koloreek esaten digutena



Niretzat, prozesu gogorra izan da gure irudiak erraztaileek lurraldera eginiko ekarpena gutxietsi, aktoreen botere hierarkikoa indartu eta errazte-lana ikusezin bilakatzen zuela konturatzea. Alde batetik, gure jardunean indar horiek guztiek duten eragin sakonaz jabetu naitzelako, baina, batez ere, irudi hori sarri gure lana aurkezteko erabili izan dugulako.

Kontzientzia hartzeko prozesu hori luzea izan da eta ibilbide horretan beste elementu bat ere joan da indarra hartzen, generoa hain zuzen. Horretarako lehen pertsonako ekintza-ikerketak erabili nuen, eta emandako pausoetako bat gizon eta emakumeok gure ekintza-ikerketan jotzeki genituen rola aztertzea izan zen. Honako hitz hauek Lurralde Garapenerako Laborategiari dagozkio, eta orduko argitalpen batetik ateratakoak dira:

«Laborategian hasieratik erabili dugu ekintza-ikerketak, 2009an bi ikertzaile emakumeren artean herri-politiken arduradunen prozesuak errazten hasi ginenetik. Gaur egun, ikertaldea zortzi pertsonak osatzen dugu, horietatik bostek zuzenean errazten

ditugu herri-politiken arduradunen prozesuak. Bostok emakumeak gara. Bestalde, 2009tik gure proiektuen ardura nagusia izan duten herri-politiken arduradunak [...] hamahiru izan dira. Guztiak gizonak. Laburbilduz, esan dezaket LGLab-ean, lurralde-garapenerako ekintza-ikerketan herri-politiken gizonetzko arduradunen eta emakumezko erraztaileen arteko dialogo-prozesu bat izan dela». (Iturria: Larrea, 2020, 235. or.)

Ikerketa-prozesu hartan, literaturak esfera praktikoa eta politikoa uztartzen lagundu zidan, herri-politiken eta akademiaren esfera politikoan eragiten duten indarren kontzientzia hartuz, eta nire errazte-lanaren esfera praktikoa nola eragiten zuten ikusiz. Literatura lagungarri izateak, ordea, ez du esan nahi egin nuen lanketa teorikoa edo kontzeptuala izan zenik. Literaturan irakurtzen nuenaren eta neure gorputzean irakurtzen hasia nintzenaren arteko loturak lagundu zidan kontzientzia garatzen. Honako hitz hauek nire esperientziaren eta esfera politikoaren arteko loturak garatzen lagundu zidaten liburuetako batetik atera ditut:

«liburu hau gaur egun lantokietan eginiko lan erlazionalari eta berau ikusezina bihurtzen duten desagertze-ekintzei buruzkoa da. Pertsona askok uste dute erdigunetik at eta isilean egiten duten lankidetzazko lana eta lan horrek eskatzen dituen gaitasunak ez direla onartzen edo saritzen. Liburu hau haientzat idatzita dago». [...] «hori historiaren zati bat besterik ez da, izan ere, muinean, liburu honek aztertzen du zergatik den horrelako lana "emakumeen lana" eta zergatik egiten duen horrek desagertze-historia hau askoz ere interesgarriago». (Fletcher, 2001, ix. or.)

Bide honetan, beraz, bi gauza elkartu nituen: nire gorputzaren memorian gailentzen zen ikusezintasunaren inguruko egonezina eta generoa. Konturatu nintzen LGLab-aren esfera praktikoa genuen rol-banaketa (aktore-rola maskulinoa zen eta errazte-rola, femeninoa) esfera politikoan nagusitzen ziren arau eta instituzioei guztiz lotua zegoela; gainera, ikusi nuen gure errazte-lana lurralde osoan beste hainbat pertsonaren lan erlazionalaren antzekoa zela eta horrela ari ginen gehienok emakumeak ginela. Horixe jaso nahi izan dut 3.26. irudian.

Zerbait femeninoa dela diodanean (rol bat edo sinesmen sistema bat, adibidez), esan nahi du enpirikoki ikusi dela emakumeek joera gehiago dutela horretarako gizonetako baino, eta maskulinoa dela diodanean, gizonetakoek dutela joera gehiago. Horrek ez du esan nahi banaketa horiek berezkoak direnik, ez desiragarriak ere, hain zuzen dikotomia gainditzek banaketa horiek gainditzea baitakar berarekin.

Hurrengo dikotomia, beraz, maskulinoaren eta femeninoaren artekoa da. Pentsamolde dikotomiko hori gainditzek, gainerakoetan bezala, bata ala bestea hautatu beharrik ez dugula esan nahi du. Ondorioz, praktikan dikotomia gainditzek lortuko bagenu, rolak edo sinesmen sistemak ez lirateke gehiago maskulinoak edo femeninoak izango, emakume zein gizonenak berdin izango liratekeelako. Gaur egun, ordea, pentsamolde dikotomikoak dirauela uste dut, eta hori adierazteko erabaki dut maskulino eta femenino hitzak erabiltzea.

---

#### Maskulinoa eta femeninoa

---

Emakumeek gizonen baino joera handiagoa dute errazte-lanak hartzeko eta joera horren atzetik, esfera pertsonalak bultzaturiko hautuez gain, esfera politikoko indarrek ere eragiten dute. Errazte-lanak feminizatu eta ikusezin bilakatzen diren neurrian, ekintza-ikerketan ere emakumeen lana gizonena baino ikusezinagoa da.

---

### 3.26. irudia. «Emakumeen lanaren» ikusezintasuna eta horren dimentsio politikoa



## 6. Erraztea berrikustea


Aurkeztu ditut jadanik sarreran aipatutako hamar dikotomiak. Hala ere, kapitulu hau ez litzateke osoa izango 3.24. irudia beste batekin osatuko ez banu. Osatu diot, eta ez ordezkatu, 3.24. irudiak bere ekarpena egiten duelako, orain arte nola aritu garen adierazten baitu; gainera, kontzientzia hartzen lagundu digu. Baina etorkizunean norantz joan nahiko nukeen adierazteko beste kontzeptualizazio bat prestatu dut. Datozen ataletan, inspirazio-iturri izan ditudan literaturako zenbait ekarpen jaso ditut, horietaz baliatuz, 3.28. irudian, kontzeptualizazio berria proposatzeko.

### 6.1. *Literaturaren ekarpena*

Fletcher-ek (2001) dio izaera femeninoa hazkundera eta eraginkortasuna gauzatzeko moduari buruzko sinesmen-sistema batean oinarritzen dela. Sinesmen-sistema horretan, hazkundera eta eraginkortasuna *elkarrekikotasun eta konexioan* gertatzen dira. Sinesmen-sistema maskulinoan, aldiz, hazkundera *banantze- eta indibiduazio*-prozesu baten bidez gertatzen da, egile horren ustetan. Gure prozesuetan sinesmen-sistema horiek izan duten eragina 3.27. irudian adierazten saiatu naiz. Uste dut konpondu nahi genuen arazoari begi-

ratzeko orduan sinesmen-sistema horiek gure betaurrekoak izan direla. Aktore-rola lehenesten zutenek (gehiengoa, gizonak) gauza bat ikusten zuten, eta errazte-lana lehenesten genuenok (gehiengoa, emakumeak) beste bat.

### 3.27. irudia. **Hazkundearen eta eraginkortasunaren inguruko sinesmen-sistema maskulinoak eta femeninoak**



Nire esperientzian, bi motatako indarrek bultzatu gaituzte emakumeok errazte-lanak gure gain hartzera. Alde batetik, besteek gudan zituzten espektatibek presioa sentiarazi digute. Bestetik, eta hau da interesgarriena, errazte-lana gure sinesmen-sistemaren parte zen, eta ikusten genuen lurralde-garapena ezin zela eraginkorra izan elkarrekikotasunik eta konexiorik gabe. Ondorioz, elkarrekikotasun eta konexio horiek garatu ditugu errazte-lanaren bidez.

Ez daukat zalantzarik lurralde-garapenak banantze eta indibiduazioa ere eskatzen dituela hazteko eta eraginkor izateko. Ondorioz, lurralde-garapena sinesmen-sistema maskulinoetatik eta femeninoetatik, bietatik, elikatzen da. Ez daukagu bat ala bestea aukeratu beharrik. Kontua da bi sinesmen-sistema horien artean desberdintasuna bultzatzen bada, sinesmen-sistema bat bestearen menpean utzita, menpeko sistemaren emaitzak gailentzen denaren emaitzatzat aurkeztuz, edo menpeko moduan lanean ari direnen lana ikusezin bilakatuz, lurralde-garapenari kalte egiten zaiola. Hau da, demokratizazioak bi sinesmen-sistema horiek maila berean egotea eskatzen du, baina lurralde-garapenaren efizientziak ere bai.


## 6.2. Lurralde-garapeneko aktore-erraztaileentzako kontzeptualizazio bat

Aurrez aurkeztutako 3.24. irudia erraztaileen rolean oinarritzen da, eta horiek, banaka edo taldean, lurralde-garapeneko aktoreek hausnartu, erabaki eta ekin dezaten baldintzak sortzen dituzte. Hau da, errazte-rola (elkarrekikotasuna eta konexioa) aktore-rolaren menpe gelditzen da (banantzea eta indibiduazioa).

Aldiz, 3.28. irudia aktore-erraztaileen rolean dago oinarritua, eta ez erraztaileenean. Aktore-erraztaileek lurraldean berezko egitekoak dituzte, adibidez, politikariak edo ikertzaileak dira. Eta egiteko horiei loturiko hausnarketak, erabakiak eta ekintzak *gauzatzen* dituzte. Baina, aldi berean, beste aktore batzuek hausnartu, erabaki eta ekitea *errazten* dute. Aktore-erraztaileen rolak, beraz, barne hartzen ditu maskulinoa (banantzea eta indibiduazioa) eta femeninoa (elkarrekikotasuna eta konexioa).

3.28. irudiak, erdi-erdian, elkarri lotutako hiru zirkulu edo ziklo ditu, eta horiek lurralde-garapeneko hausnarketa, erabakiak eta ekintzak adierazten dituzte. Hausnarketak, erabakiak eta ekintzak bi indar nagusiren arabera garatzen dira: erraztea (gezi fuksia) eta gauzatzea (gezi urdina). Adibidez, hausnarketa bat eraginkorra izateko, hausnarketa erraztu egin behar da, baldintza egokiak sortuz, eta hausnarketa hori gauzatu egin behar da, jakintza berri zehatza sortuz. Baldintzak sortzea eta gauzatzea ez dira marrazkian adierazten den bezain linealak, elkarren barruan txertatzen dira, horixe adierazi nahi izan dut gainjartzen diren gezien bidez.

3.28. irudia. **Aktore-erraztaileen jarduna lurralde-garapenean**



Irudiko gezi beltzak beste ziklo bat adierazten du, lurralde-garapen emergentearena, hain zuzen. Modu jarraituan hausnartu, erabaki eta ekiten denean, hiru prozesu horien arteko lotura elikatuz, lurraldea garatu egiten da. Hala, 3.28. irudian, lurralde-garapena akto-

re-erraztaileen elkarreraginaren emaitza da, guztiek lurralde-garapena errazten eta, aldi berean, gauzatzen dutenean, hausnarketa, erabaki eta ekintzen bidez. Aktore-erraztaile batek, noski, hauta dezake errazte-lanak soilik edo gauzatze-lanak soilik egitea, baina horrek presioa sortu dezake beste aktore-erraztaile batzuegan egin gabe gelditzen diren lanak euren gain hartzeko.

Ekintza-ikertzaileok lurraldeko aktore-mota bat gara. Gainontzeko aktoreen moduan, lurralde-garapenaren inguruko hausnarketa, erabakiak eta ekintzak erraztu ditzakegu, baita gauzatu ere. Irudi berria 3.24. irudiaz bestelakoa da, honako lau ezaugarriengatik:

a) *Errazte-lanen zuzeneko ekarpena lurralde-garapenari*

3.24. irudian, errazteak elkarrekikotasuna eta konexioa sortzen zituen (konfiantza, ikuspegi partekatua eta agenda partekatua), baina horiek lurralde-garapenarekin lotzeko bide bakarra lurraldeko aktoreen hausnarketa, erabaki eta ekintzak ziren.

3.28. irudian, konfiantza, ikuspegi partekatua eta agenda partekatua *erraztea* adierazten duten gezi fuksien bidez jaso ditut. Bestalde, lurralde-garapenerako *gauzatzen* diren programa eta antolamendu berriak gezi urdinekin adierazi ditut. Irudi honetan, bi koloretako geziek lotura berdina dute lurralde-garapenarekin. Izan ere, uste dut errazteak sortzen dituen konfiantzak eta ikuspegi eta agenda partekatuek lurraldearen gaitasun kolektiboak zuzenean elikatzen dituztela, eta ez aktoreek gauzatutako ekintzen bitartez bakarrik. Hau da, errazte-prozesu batek konfiantza, ikuspegi partekatua eta agenda partekatua garatzen baditu, gero agenda hori gauzatzen ez bada ere, lurraldea garatu egiten da, konfiantza eta ikuspegi partekatu horiek baliotsuak direlako prozesu horretan ez ezik, baita lurraldeko eragile horien edozein arazoren aurrean ere. Ondorioz, errazte-lanak lurralde-garapenari zuzeneko ekarpena egiten dio.

b) *Aktore- eta erraztaile-rolik ez bereiztea marrazkian*

Orain arte erabili dugun 3.24. irudian bereizi egiten zen hausnarketak, erabakiak eta ekintzak norenak ziren, erraztaileenak edo aktoreenak. Baina 3.28. irudiak ez du bereizketa hori egiten, guztiok, potentzialki behintzat, aktore-erraztaile garelako lurraldean. Bereizketarik gabe, guztiok lurralde-garapenaren inguruko hausnarketa, erabaki eta ekintzetan ari gara, batzuetan erraztuz eta besteetan gauzatuz. Rol horiek parte-hartzaileen artean banatzea saihesten dugunean, nekezagoa da herri-politiken arduradunak aktore eta ikertzaileok erraztaile garenaren narratiban erortzea.

Bereizketa hori saihesteak badu beste irakurketa bat ere. Batez ere aholkularitza-munduan garatu eta zabalduen dauden erraztaileen definizioetan, erraztaileak neutralak dira. Definizio horien arabera, erraztaileak ezin du aktore izan prozesuan, aktoreak, arazoen aurrean, neutralak ez direlako. Gure 2017ko liburuan jadanik aitortzen genuen ez ginela neutralak, baina, 3.24. irudiak ez zion laguntzen aitortza horri. Orain, 3.28. irudiak erraztearen eta gauzatzearen arteko lotura organikoagoa proposatzean, erraztaile ez-neutrala jartzen du erdigunean.

c) *Gauzatzearen eta erraztearen arteko harreman ez-hierarkikoa*

Bestalde, 3.24. irudian harreman hierarkikoa marrazten genuen gauzatze-lanen eta errazte-lanen artean. Harreman hierarkiko hori 3.28. irudian forma zirkularrak erabiliz eta errazteak eta gauzatzeak elkar elikatzen dutela azpimarratuz saihestu dut.

#### d) *Ikusgaitasun berdina gauzatze- eta errazte-lanentzat*

Azkenik, 3.24. irudiak errazte-prozesua marra ez-jarraituen bidez eta kolorerik gabe adieraztean, ikusezin egiten zuen. Hori gainditzeko, 3.28. irudiak koloreak eta marra jarraituak erabiltzen ditu bientzat. Koloreak desberdindu egin ditut, bi motatako lanak eta sinesmen-sistemak daudela adierazteko. Baina bi koloreek intentsitate berdina dute, lurralde-garapenean estatus berdina eman behar zaiela uste dudalako.

Erraztearen kontzeptualizazio berri hori azaltzea zailagoa iruditzen zait aurrekoa baino, esparru zaharrean hasieratik bi rolak bereizi eta nork zein rol jokatu behar zuen definitzen genuenean, dena sinplifikatu egiten zelako. Bakoitza prozesuaren alde batean jartzen ginen, «ni eta zu» edo «gu eta zuek» pentsamoldeen arabera. Gainera, botere-harremanak argiak ziren «ni eta zu» edo «gu eta zuek» horien barruan. Eredu berrian rolen banaketa argirik ez dago, eta horrek boterearen inguruan dakartzan galderak deserosoagoak dira.

## 7. Itxiera

Kapitulu honetan nik neuk herri-politiken barruan ekintza-ikerketa errazten izandako esperientzia berrikusi dut, horretarako hiru esferen markoa erabiliz. Gure ekintza-ikerketa, modu kontzientean, esfera praktikoa garatu da batez ere, baina kontzientzia-maila txikia-goarekin, esfera politikoaren eta pertsonalaren eragina oso garrantzitsua izan da.

Esfera praktikoa, pertsonal eta politikoen elkarreraginak lantzean, nire ustez gure prozesuak arriskuan jartzen dituzten hamar pentsamolde dikotomiko azaleratu ditut. Pentsamolde horiek modu bateratuan aurkezteko, 3.1. taulan dikotomia bakoitzaren inguruko ikasketa nagusia jaso dut.

### 3.1. taula. Herri-politiken barruko ekintza-ikerketan eragin duten pentsamolde dikotomikoak

| Dikotomiak                                    | Ekintza-ikerketarekiko loturak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
|-----------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Jakintza aditua eta esperientziatzko jakintza | Prozesu batean, jakintza adituaren izenean, hainbat diziplinako jakintza teoriko-kontzeptuala lehenesten denean, parte-hartzaileen eta erraztaileen esperientziatzko jakintza ez da behar adina balioesten. Desoreka horrek arriskuan jartzen ditu ko-sorkuntza eta, beraz, ekintza-ikerketa.                                                                                                                            |
| Plangintza eta prozesu emergenteak            | Plangintza herri-politiken ohituretan txertatuta dagoenean, zaila izan daiteke ekintza-ikerketako prozesu bateko parte-hartzaileak prozesu emergenteekin eroso sentitzea.                                                                                                                                                                                                                                                |
| Teoria eta praktika                           | Ekintza-ikerketako prozesu batean eragile esanguratsuek teoria eta praktika bereizten dituztenean aurrena teoria eta ondoren praktika lantzeko asmoz, praxia arriskuan jartzen da. Horrelakoetan, ekintza-ikerketaren bidea prozesu lineal hori elkarrekin bizitzea izan daiteke (linealtasuna ekintza-ikerketaren printzipioekin bat ez etorri arren), prozesu horren eta bere mugen kontzientzia partekatua garatzeko. |
| Boterea eta maitasuna                         | Ekintza-ikertzaileen rola soilik erraztera, eta ondorioz, maitasuna gauzatera bideratzen bada (bananduta daudenak elkartuz) eta gainerako eragileen egitekoa soilik errealizaziora bideratzen bada (boterearen baitan), dinamika degeneratiboak gara daitezke.                                                                                                                                                           |

| Dikotomiak                    | Ekintza-ikerketarekiko loturak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|-------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Efizientzia eta parte-hartzea | Parte-hartzea efizientea ez dela dioen diskurtsoa zabalduta dago. Baina behin konfiantzazko harremanetan eta ikuspegi partekatuan inbertitzen denean, prozesu parte-hartzaile bat efizienteagoa izan daiteke hierarkian hartutako erabaki bat baino.                                                                                                                                                                                                                                                       |
| Arrazoa eta emozioa           | Ekintza-ikerketako prozesu batek gehiegi begiratzen dionean dimentsio arrazionalari, emozioak azaleratzeko tokirik utzi gabe, prozesua azalean adeitsuagoa izan daiteke, baina gordetako emozioek prozesua trabatu dezakete eta aldaketa eragotzi.                                                                                                                                                                                                                                                         |
| Objektiboa eta Subjektiboa    | Objektibotasuna garrantzitsua da ekintza-ikerketan. Datu kuantitatiboak, sarri objektibotasunari lotzen zaizkionak, konpondu nahi den arazoa ulertzeko lagungarriak dira. Hala ere, subjektibotasuna ere prozesuaren parte da, bai azaleratzen dugunean eta baita azalatu gabe uzten dugunean ere. Subjektibotasuna esplizitatu gabe uzteak eraldaketa trabatu dezake, datu objektiboek euren kasa ez baitituzte azaltzen parte-hartzaileen artean lankidetzat lagundu edo oztopatzen duten aurreiritziak. |
| Publikoa eta pribatua         | Ekintza-ikerketan prozesuetan parte-hartzaileek uste dutenean emozioa eta subjektibotasuna euren bizitza pribatuan soilik azalatu behar direla eta, ondorioz, ez dituztenean espazio publikoan partekatzen, prozesurako oso garrantzitsuak diren elementuetara iristeko ateak ixten dizkiote taldeari.                                                                                                                                                                                                     |
| Aktore eta erraztaile         | Ekintza-ikerketan prozesu batean, ikertzaileen rola herri-politiken arduradunen lana erraztera mugatu daiteke. Horrelakoetan, prozesuak lurraldeari zuzenean egiten dion ekarpena herri-politikak dira eta ikerketak herri-politiketarako baldintzak sortzen ditu. Hau da, ez da aitortzen ekintza-ikerketaren ekarpen zuzenik lurralde garapenera. Horrek ekintza-ikerketaren eraldaketarako potentziala murrizten du.                                                                                    |
| Maskulinoa eta femeninoa      | Emakumeek gizonek baino joera handiagoa dute errazte-lanak hartzeko eta joera horren atzetik, esfera pertsonalak bultzaturiko hautuez gain, esfera politikoko indarrek ere eragiten dute. Errazte-lanak feminizatu eta ikusezin bilakatzen diren neurrian, ekintza-ikerketan ere emakumeen lana gizonena baino ikusezina goa da.                                                                                                                                                                           |

Pentsamolde dikotomiko horiek, gainera, 3.29. irudian jaso ditut. Irudiko bi aurpegiek alde banatara begiratzen dute, pentsamolde dikotomikoaren izaera adierazteko; izan ere, pentsamolde horrek alde bat hautatzera bultzatzen gaitu, «alde zuzena», alegia.

Gutxienez bi modu daude 3.29. irudia irakurtzeko. Horizontalean irakurrita, banan-banan eta ezker-eskuin joan gaitezke irakurtzen eta, agian, begiraden noranzkoak jarraituz, bat edo beste hautatzeko tentazioan erortzen. Gehienetan hautatzen dugun aldea gure sinesmenek edo instituzionalizatuta dauden arauak «zuzena» dela esaten digutena da. Horrek sinesmen eta instituzio horiek are gehiago indartzen ditu.

Bada 3.29. irudia irakurtzeko beste modu bat ere, bertikala, alegia. Kasu horretan, bi multzo erakusten dizkigu irudiak, eta nire esperientzian, multzo bakoitza sinesmen-sistema bati dagokio. Hau da, dikotomia bakoitzeko bi hitzak ezkerrean edo eskuinean kokatu ditut, nire bizipenetan beste kontzeptuekin izan dituzten loturetan oinarrituta. Ondorioz, marrazkiak jasotzen dituen bi multzokatzeek hamabost urte hauetako nire esperientzia koherentziaz jasotzen dutela uste dut.

### 3.29. irudia. Pentsamolde dikotomikoak



Izan ere, nire esperientzian, ekintza-ikerketan jakintza aditua lehenetsi duten parte-hartzaileek sarri plangintza eta teoria eskatu dituzte eta plangintzan ezarritako helburuak lortzea lehenetsi dute, taldearen kohesioaren gainetik. Pertsona horiek azaleratu dituzte gehien prozesuaren efizientziaren inguruko kezkak, argudiatu dute objektibotasunaren alde eta espazio publikoaren erdigunean kokatu dira. Hausnarketa, erabakiak eta ekintzak gauzatzen gehiago aritu dira errazten baino, eta gehienak gizonak izan dira.

Bestalde, esperientziazko jakintza lehenetsi dutenak erosoago sentitu dira prozesu emergenteetan eta praktikan, plangintzan eta teorizazioan baino. Taldearen kohesioa balioetsi dute, sarri prozesuaren emaitzatzat hartuz, eta konfiantza edo ikuspegi partekatua bezalako ukiezinak eraginkortasunaren erakusle moduan aitortu dituzte. Eroso sentitu dira emozioak eta subjektibotasuna lantzearekin eta espazio publikoan profil apala eduki dute. Errazte-lanak euren gain hartzeko joera erakutsi dute, eta sarri emakumeak izan dira.

Aipatu dut nire esperientzian pentsamolde dikotomikoak sarritan topatu izan ditudala. Baina kapitulu honetan ateratzen dudan ondorio nagusia da 3.29. irudiko aurpegiek ez dutela kontrako noranzkoan begiratu beharrik. Hau da, ez dugu alde bat edo bestea hautatu beharrik. Are gehiago, prozesuak eraldatzaileagoak dira hautatu beharrean bi aldeek elkar elikatzen dutenean. Horregatik, datorren kapituluaren ardatza errazte-lana izango da, errazte-prozesu egokiek pentsamolde dikotomikoak gainditzen lagundu dezaketelako, prozesuko parte-hartzaileei bi aldeek elkarerragina garatzen lagunduz.

## 4. kapitulua


# Herri-politiken errazte eraldatzailea

### 1. Sarrera

#### 1.1. *Kapitulu hau liburuaren barruan*

Aurreko kapituluan, nire esperientzia hiru esferen arabera berrikusi eta ibilbide horretan eraldaketa eragotzi duten hamar pentsamolde dikotomiko azaldu ditut. Kapitulu honetan, dikotomia bakoitzean sakonduko dut, oraingoan erraztearen ikuspegitik. Liburuaren ibilbidean azken pausoa da hau, eta horixe adierazi dut 4.1. irudian.

#### 4.1. irudia. Liburuaren ibilbideko azken pausoa



## 1.2. *Errazte eraldatzailea*

Kapitulu hau errazte-prozesuei buruzkoa da, herri-politikak lankidetzan edo modu parte-hartzailean garatzeko erraztea ezinbestekoa izanik ere, sarri ikusezin bilakatzen delako. Hau da, erraztea ez da modu egituratuan kontuan hartzen herri-politika hauen diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan; eta, ondorioz, ez da nahikoa inbertitzen horrelako gaitasunen garapenean, eta ez da ziurtatzen herri-politiken prozesuek erraztaile egokiak izango dituztenik.

Baina, hau ez da edozein errazte-moduri buruzko kapitulu bat, *errazte eraldatzaileari* buruzkoa baizik. Erraztea eraldatzailea izan dadin, aurreko kapituluan azaldutako hamar pentsamolde dikotomikoak gainditzen lagundu behar du. Horretarako, gogoan hartu behar dugu pentsamolde dikotomikoak esfera praktikoko jarrera eta portaeretan azaleratzen direla, baina sustrai sakonak dituztela esfera pertsonalean eta politikoetan. Ondorioz, pentsamolde dikotomikoak gainditzen lagundu nahi duen erraztaileak —nire kasuan, ekintza-ikertzaile erraztaileak— esfera pertsonal, praktiko eta politikoa uztartu behar ditu.

Pentsamolde dikotomikoa gainditzeak dikotomia bakoitzaren alde banatan kokaturiko kontzeptuak elkarrekikotasunean garatzea esan nahi du. Elkarrekikotasunaren ideia hori 4.2. irudian jaso dut eta 3.29. irudiarekin kontrajarrita azaldu nahi dut. Hartan, alde bat bestea baino hobe zela sinesten zenez, aurpegi bakoitzak alde banatara begiratzen zuen eta, horrela, hautatzeko beharra adierazten zen. Baina 4.2. irudian dikotomia enbor beretik ateratzen diren bi hostok irudikatzen dute, bizirauteko duten elkarren beharraren seinale. Ez da bata bestea baino hobe, eta bata modu eraikitzailean garatu dadin, beharrezkoa da bestea.

4.2. irudia. Pentsamolde dikotomikoak gainditzen dituen ekintza-ikerketa erraztea




### 1.3. Errazte eraldatzailearen aldibereko izaera praktikoa eta normatiboa

Herri-politikan eta ekintza-ikerketan, lurraldean gailentzen den esfera politikoa eta parte-hartzaile bakoitzaren esfera pertsonala dikotomiaren aldeetako batetik gertuago egongo dira bestetik baino. Honek esan nahi du herri-politiken testuinguruan dikotomiaren bi aldeak ez daudela orekatuta, eta gu ez garela neutralak desoreka horri dagokionez. Neutraltasun falta horrek aktore-erraztaileok prozesuan identitate jakin bat dugula adierazten du eta, prozesua eraikitzailea izan dadin, garrantzitsua da identitate horiek prozesuan eragiten dutela aitortzea. Baina posizio edo identitate jakin bat edukitzeak ez du esan nahi dikotomiaren beste aldea kontuan hartu gabe errazten dugunik. Erronka dikotomiaren bi aldeen arteko elkarrekikotasun harremanak garatzen laguntzea da, gure identitatea dikotomiaren alde batetik gertuago egon arren bestetik baino.

Helburua, ondorioz, hau da: neutrala ez den errazte-prozesu batek, neutraltasun-eza ezkutatu edo ukatu gabe, pentsamolde dikotomikoa indartu beharrean hura gaingitzen laguntzea.

Horregatik, kapituluan zehar, oso harreman berezia duten bi marrazki erabiliko ditut. Alde batetik, ni neu eta neure esperientzia adierazteko orain artean erabili dudana (ikus 4.3. irudian gorri). Kapitulu honetan, nire identitateari erantzunez, esku bat dikotomiaren alde bat igotzen eta bestea jaisten irudikatuko dut. Bestetik, dikotomiaren bi aldeak gorantz jasotzen dituen aktore-erraztailea marraztu dut, dikotomiaren bi aldeen elkarrekikotasunaren adierazgarri. Batak nire esperientzia eta nire esfera pertsonal ez-neutrala adierazten ditu; bestea, modu normatiboan, dikotomiaren bi aldeen elkarrekikotasuna bilatzeko komenigarritasuna.

### 4.3. irudia. Erraztearen esperientziatzko dimentsioa eta dimentsio normatiboa



Urte hauetan errazten aritu ondoren, nire ikasketa da fuksiaz jantzitako erraztaileen irudi normatiboa ez dela praktikan «aplikagarria», praktikan, esfera politikoa, inoiz ez direlako modu perfektuan orekatuta egoten dikotomiaren bi aldeak. Hori nahikoa ez balitz, esfera pertsonalen aniztasunak desorekak hainbat modutara interpretatzea eragiten du. Egoera horretan, bere posizionamenduak eraginda, aktore-erraztaileak dikotomiaren alde bat indartuko du, nahiz eta azken helburua bi aldeen arteko harreman orekatua eta elkarrekikotasuna izan.

Idatzi berri dudanak sinplea badirudi ere, praktikan nahasmena sortzen du, prozesu bateko parte-hartzaileek dimentsio politikoen eta pertsonalen eraginaren askotariko kontzientzia-maileak dituztelako, eta hori nahikoa ez balitz, aniztasun hori azaleratzeko prozesuan parte-hartzaileen inertzien eta erresistentzien eragiten dutelako. Ondorioz, parte-hartzaileen posizionamenduak, aktore-erraztaileenak barne, sarri tazituak izaten dira, eta ez esplizituak. Arriskutsua da posizionamendu tazitu bat posizionamendu-ezarekin edo neutraltasunarekin nahastea. Erraztaileak isilean gordetzen duen posizioak ez baitu gutxiago eragiten prozesuan esplizituki azaleratzen denak baino. Alderantziz, nor bere posizioen kontzientzia edukitzeak eta, batez ere, horiek esplizitu egiteak modu eraikitzailean lan egitea ahalbidetzen du. Beraz, fuksiaz jantzitako erraztaileak elkarrekikotasunaren ideia partekatzen du, modu normatiboan. Baina elkarrekikotasuna ez da neutrala izatearekin nahastu behar eta, batez ere, hura bilatzeak ez du praktikan berekin dituen talka eta gatazken azaleratze esplizitua eragotzi behar.

Errazte neutralaren inguruko instituzio eta paradigmen arabera, 4.3. irudiko ezkerreko erraztailea, bere neutraltasun-ezagatik, erraztaile txarra izango litzateke. Aldi berean, eskuineko errazte ideala praktikan «aplikatu» daitekeela sinestarazi digute. Baina, eskuineko ideia normatiboa gauzatzeko bide bakarra ezkerreko praktika da.

#### 1.4. *Kapituluaeren egitura eta ispilu-izaera*

Datozen ataletan, dikotomia bakoitzaren inguruko hiru gauza landuko ditut. Aurrena, pentsamolde dikotomikoen barruan izandako errazte-esperientzia azaltzeko, aurkitu ditudan patroiak adierazten saiatuko naiz, bineta bidez. Ekintza-ikerketan errezetarik ez dagoen arren, errepikatzen diren portaeren inguruan kontzientzia hartzeak lagundu egiten du. Patroi horiek ulertzeko kontzeptu giltzarria *erresistentzia biguina* da (ikus 1. kapituluko 6. atala). Erresistentzia-mota hori bi rol nagusiren bidez garatu dugu. Rol erlazionalean, herri-politiken arduradunei lehenesten zuten dikotomiaren aldea lantzen lagundu diegu; eta rol kritikoan, horren atzetik zegoen pentsamolde dikotomikoen inguruko kritika garatu dugu. Patroiak azaltzean, bi rol horiei egingo diet erreferentzia.

Errazte-lanei loturiko patroiak azaldu ondoren, bi marrazki partekatuko ditut. Bata, nire errazte-esperientzia ez-neutrala jasotzen duena, non dikotomiaren alde bat indartzen saiatu naizen nire esfera pertsonalak (balio, sinemen, kosmobisio, paradigmak) eraginda. Bestea, elkarrekikotasunean oinarritutako irudi normatiboa, non dikotomiaren bi aldeen arteko harreman eraikitzailea bilatzearen garrantzia azpimarratzen dudana.

Azkenik, norberaren esfera pertsonala azaleratzea ez da ohikoa idazketa akademikoan. Izan ere, neutraltasun-eza, ikerketa-paradigma gehienetan, zorroztasun-ezari lotzen zaio. Nire esperientzia partekatzea erabaki dut, alde batetik paradigma horiekin bat ez natorrelako, eta bestetik, beste ikertzaile batzuen testigantzek nire ibilbidean asko lagundu didatelako. Haien bizipenak niretzat ispilu izan dira, eta neure burua ikusten lagunduz, nire ikerketa-ibilbidea aberastu dute. Liburu hau zuretzat, irakurle, ispilu bat izatea nahiko nuke, 4.4. irudian jaso dudana moduan. Helburua ez baita zuk nire esperientzia ezagutzea, zeurea baizik.

#### 4.4. irudia. Lehen pertsonako testigantzak norbere hausnarketarako ispilua dira




## 2. Jakintza aditua eta esperientziazko jakintza

### 2.1. Errazte-esperientzian aurkitutako patroiak

Ekintza-ikerketa esperientziazko jakintzan oinarritzen den arren, parte-hartzaileek hainbat diziplinako jakintza aditua euren esperientziazko jakintzaren gainetik balioetsi dezakete. Gure proiektuetan sarri adierazi zen prozesuko parte-hartzaileek «ez genekiel»a, eta zer egin beharko genukeen erabakitzen laguntzeko adituak behar genituela. Hori sustrai sendoak dituen pentsamoldea da gurean eta ekintza-ikerketa egingo gurela adostu eta horrek esperientziazko jakintza lehenestea eskatzen zuela esan arren ere, sarritan jarri genituen diziplinazko jakintza eta adituak erdigunean. Laburbilduz, esfera praktikoa ekintza-ikerketa modu esplizituan hautatu arren, egunerokoan ohikoa zen sakonean errotutako sinesmen, paradigma eta instituzioei loturiko bestelako praktikak nagusitzea.

Horrelakoetan, ekintza-ikertzaileek parte-hartzaileen artean ko-sorkuntza bultzatzen saiatzen ginen, nahiz eta prozesu hori sarri herri-politiken inguruko diziplinetako adituek euren gomendioak eman ondoren hasi, aurreko kapituluan ikusi bezala. Hau da, genituen arazoentzako konponbideen ko-sorkuntzan hasten ginenerako, adituen zenbait gomendio jadanik agendan txertatuta egon ohi ziren. Kasu horietan, adituen gomendioen inguruko hausnarketarekin hasten genuen prozesua, 4.5. irudian adierazten dudan moduan. Gehienetan azaleratzen zen herri-politiken ekosistemako eragileek adituen (urdi-nez) gomendioak modu askotara interpretatzen zituztela, batez ere praktikari zegokionean.

#### 4.5. irudia. Adituen gomendioen askotariko interpretazioak praktikan



Askotariko interpretazio horiekin, adituen ideiak eta kontzeptuak ulertu arren, nekez adosten genuen zer egin behar genuen. Ekintza-ikertzaileok, rol erlazionalean, adituen gomendioen inguruan eragileen ikuspegiak jaso eta partekatzen saiatzen ginen, baina horrek ez du esan nahi gure lana gomendio haiek «aplikatzea» zenik. Izan ere, rol kritikoan, adituen gomendioak modu linealean aplikatu daitezkeela dioen paradigma zalantzan jartzen saiatzen ginen.

Kritika horrek lagunduta, eragileen esperientziatzko jakintzaren erabilera ere bultzatzen genuen. Ko-sorkuntza prozesu hori 4.6. irudian jaso dut. Ekintza-ikertzaileon lana ekarpen desberdinak azaltzen lagundu eta haiek sistematizatzea zen, baita adituen ekarpenak ere, baina oraingoan parte-hartzaileen esperientziaren galbahetik pasata. Sortzen ziren adostasunetan eta desadostasunetan oinarrituz, ikuspegi partekatua eta, ahal izanez gero, agenda partekatua garatzen genituen. Dokumentu ugari prestatu ohi genuen garatzen ari ziren narratibekin, baina elkarrekin sortutako jakintza batez ere parte-hartzaileengan gorpuzten zen eta haien ekintzen bidez azaleratzen. Parte-hartzaileak ez ziren beti jakintza hori modu esplizituan adierazteko gai, baina, hala ere, erabili egiten zuten, arazoaren konponbidean aurrera egiteko. Horixe da, hain zuzen, esperientziaren bidez garatutako jakintza tazitua ezaugarri bat.

Ondorioz, 4.6. irudian ekintza-ikertzaile-erraztailearen (gorriz) diskurtsoak ez ditu gomendioak ematen. Parte-hartzaileen adostasunei eta desadostasunei eta modu emergentean eraikitzen ari den praxiari —hausnarketa eta ekintzari— ahotza ematen dio.

#### 4.6. irudia. Esperientziatzko jakintza ko-sorkuntzan



Gure proiektuetan, ez da beti erraza izan herri-politiken arduradunen esperientziatzko jakintza eta adituen ekarpenak uztartzea; horretarako zailtasunetako bat herri-politiken arduradunek jakintza aditua euren esperientziatzko jakintzaren gainetik jartzea izan da. Adituen jakintza lehenesteak eta jakintza hori ezartzeko gai izango ginela sinesteak zenbait lantalde-tan ko-sorkuntza prozesuak moteldu eta bazterrarazi zizkigun.

Adituekiko sinesmen hori, esfera pertsonaletan oso errotuta dagoena, esfera politikoan instituzionalizatutako akademiaren rolaekin ere bat dator. Horren arabera, akademikoek jakintza sortzen dute eta gizarteko eragileei transferitzen diete, aplikatu edo inplementatu dezaten. Akademikook jakintza gizarte-eragileekin sortu dezakegula, aldiz, ez dago instituzionalizatuta, ez akademian eta ez herri-politikan. Horrek asko mugatzen ditu ekintza-ikerketak egiteko baldintzak.

#### 2.2. Nire posizioa aktore-erraztaile moduan


Aurreko atalean adierazi dut, ekintza-ikerketak esperientziatzko jakintza lehenesten duen arren, ekintza-ikertzaileok sarri jakintza adituaren eta esperientziatzko jakintzaren inguruko pentsamolde dikotomikoen artean egiten dugula lan.

Ekintza-ikertzaile erraztaile moduan aritzean, kontua ez zen soilik parte-hartzaileek ez zutela euren esperientziatzko jakintza nahikoa balioesten. Kontua zen, gainera, neure ekarpena ere, prozesuko jakintza alegia, esperientziatzko jakintza zela. Jakintza hori nire errazte-ekintzetan gauzatzen zen, baina ez nuen adituek euren azaltzen zuten moduan *kontatzen*.

Testuinguru horretan nik pentsamolde dikotomikoa sumatzen nuen, adibidez, parte-hartzaileek gure erraztea garrantzitsua izan zela aitortzeko, gure izaera azpimarratzen zutenean, umilak, pazientzia handikoak edo konprometituak ginela esanez. Horrek guk genekarren prozesuko *jakintza* itzalean uzten zuen, gure erraztea sostengatzen duten jakintza berriaren sorrera prozesuak (ikerketa) ezkutatuz eta, prozesu horiek akademiatik egiten genituen arren, gure jakintzaren izaera akademikoa ukatuz.

Horrelakoetan, erresistentzia bigunaren printzipioei jarraituz, rol erlazionala jokatu izan dut, herri-politiken arduradunek lehenetsi moduan, adituekin lan eginez. Baina rol kritikoa jokatzeko ere saiatu naiz, bi modutara: (a) adituen jakintzak «implementatzeko» dituen zailtasunen inguruko ikuspegi kritikoa landuz; eta (b) esperientziatzko jakintzan oinarrituta, arazoaren konponbideak elkarrekin sortuz. Bi rol horiek uztartzean, ez nintzen neutrala. Izan ere, nire ikuspegitik, adituen jakintzari aitortzen zitzaion hierarkia gehiegizkoa zen eta esperientziatzko jakintzaren aitortza, txikiegia. Bestelako oreka bat behar dugula sinesteak eta hori bultzatzeak definitu du nire identitatea, 4.7. irudiak jasotzen duen bezala.

#### 4.7. irudia. Nire identitatea adituen eta esperientziatzko jakintzen artean



Ekintza-ikerketaren printzipioek diote, eta nik hala sinesten dut, ekintza-ikerketaren bidez erraztutako herri-politiken ko-sorkuntza prozesu batean lurraldeko eragileek parte hartzen dutenean, dakarten jakintzarik garrantzitsuena euren esperientzian oinarritutakoa dela. Horrek barne hartzen ditu adituen gomendioak ere, baina, aipatutako moduan, esperientziaren galbahetik pasata.



### 3. Plangintza eta prozesu emergenteak

#### 3.1. Errazte-esperientzian aurkitutako patroiak

Praxia, eta beraz, ekintza-ikerketa, prozesu emergenteak dira. Horrek esan nahi du arazoek konponbideak hausnarketa eta ekintzaren arteko prozesu ziklikoen bidez garatzen direla, eta ondorioz, ez dakigula konponbidea zein izango den prozesuan aurrera egin arte. Plangintza, aldiz, lineala dela esaten da, ekintza hasi aurretik konponbidea zein izango den erabakitzea eskatzen duelako. Liburu honetan planaz ari naizenean, ez naiz soilik plan (estrategiko) izenaz ezagutzen direnez ari, hasieran hausnartu, zer egingo den erabaki eta ondoren inplementatzeko diseinatzaren lanketei buruz ari naiz, modu orokorragoan.

Ikertzaile-erraztaile moduan eduki dudana erronka nagusietakoa gure lan egiteko moduetan plangintzak zuen pisua murritzeta izan da, prozesu emergenteei tokia egiteko. Izan ere, plangintza guztiz txertatua egon da parte hartu duen herri-politiken garapenerako prozesu gehienetan. Lan egiteko modu hori instituzionalizatuta dago eta, ondorioz, parte-hartzaile askorentzat «herri-politikak horrela egiten dira». Ekintza-ikerketaren bidez, planak baztertu gabe, haiekin bateragarriak izango liratekeen lanketa emergenteak garatzen saiatu gara, batez ere ikasketa- eta negoziazio-prozesuak txertatuz. Baina plangintzaren ikuspegia oso indartsua zen taldeetan, prozesu emergenteak susmoz, eta batzuetan beldurrez ere, hartu dira.

Ekintza-ikerketako prozesuak hasteko herri-politiken arduradunekin hitz egitean, bi patroi nagusi aurkitu ditugu. Gehienetan, erreferentziazko plan bat zuten eta plan horretan txertatzen zen gure prozesua, edo/eta prozesua hasi aurretik prozesuaren plangintzaren ariketa egiten genuen. Hori adierazten du 4.9. irudiak.

#### 4.9. irudia. Plana ekintza-ikerketaren hasieran



Plan batetik abiatzen garenean, oso erraza da ekintza-ikerketako prozesua plana «inplementatzeko» dela pentsatzea eta, horrela ez zela adierazi ohi genuen arren, interpretazio hori gailentzen zen sarritan. Hala ere, plana oso modu orokorrean definituta zegoenean, edo planaren arduradunek aldaketak egiteko erraztasuna zutenean, ez genuen arazo handirik izan plangintza, ikasketa eta negoziazioa uztartzeko. Beste batzuetan, ordea, tentsioak sortu ziren ekintza-ikerketako prozesuaren eta plan zehatzen artean.

Bazen beste patroia bat ere. Planaren arduradunek prozesu emergenteetan parte hartzen zutenean, ikasketaren eta negoziazioaren emaitzak errazago bateratzen ziren planarekin; parte hartzen ez zutenean, aldiz, ikasketaren eta negoziazioaren emaitzak arrotzak egiten zitzaizkien, eta zalantzak, kezak edo tentsioa sortzen zituzten. Horixe jasotzen du 4.10. irudia.


#### 4.10. irudia. Prozesu emergenteek sortutako zalantzak



Prozesu emergenteek deserosotasuna sortzen zutenean, herri-politiken arduradunek sarri adierazi ohi zuten prozesua *kaotikoa* zela, edo garatutako konponbideak ez zirela *kohe-*

*renteak*, planean jasotakoarekin bat ez zetozelako. Narratiba horrek sarri ko-sorkuntzaren bidez hartutako erabakiak baztertzea ekarri zuen. Planak prozesu emergentei tokia uzten zienean, aldiz, ikasketa eta negoziazioa garatzen genituen, eta horrela landutako konponbi-deak planaren berrikusteetan edo plan berrietan txertatzen ziren, 4.11. irudiak jasotzen duen moduan.

#### 4.11. irudia. Planen eta prozesu emergenteen arteko sinergiak



#### 3.2. Nire posizioa aktore-erraztaile moduan

Nire esperientziaren arabera, eraldaketak praxian eta, ondorioz, prozesu emergenteen bidez gertatzen direla sinesten dut. Sinesmen horrek markatu du nire jarrera deskribatu ditudan plangintza eta prozesu emergenteen arteko tentsioetan. Uste dut, baita ere, planak tresna erabilgarriak direla, batez ere prozesuen hasieran, baina neurritz kanpoko nagusitasuna hartu dutela gure lan egiteko moduetan. Ondorioz, gaitasun eta prozedura ahulegiak ditugu modu emergentean arazoak konpontzeko, eta, adibidez, ikasketak eta negoziazioak gure prozesuetan egin ditzaketen ekarpenez baliatzeko.

Nire praktika ere ez da neutrala izan dikotomia horren bi aldeekiko. Lan egin dudun gune gehienetan plangintza oso barneratua zegoenez, prozesu emergenteak balioetsi eta haien-tzat tokia egiten saiatu izan naiz. Lanketa erlazionalean, planak gure hausnarketetan txertatu eta prozesu emergentearekin zituzten sinergiak lantzen nituen. Hala ere, nire ikertzaile-erraz-taile identitatea batez ere plangintzarekiko lanketa kritikoan garatu da, hau da, planaz hara-tago prozesu emergenteak bultzatzeko ahaleginean. Hori adierazi nahi dut 4.12. irudian.

#### 4.12. irudia. **Nire identitatea plangintza eta prozesu emergenteen arteko dikotomian**



Kokapen hori ez zaio pentsamolde dikotomikoak gainditzeko ahaleginari kontrajartzen. Izan ere, plangintza eta prozesu emergenteen arteko desoreka gutxitzeak, gaur egun, pro-zesu emergenteak indartzea eskatzen du.

#### 3.3. *Pentsamolde dikotomikoa gainditzeko erraztea*

Atal honetako 4.13. irudiak plangintza eta prozesu emergenteen elkarrekikotasuna bila-tzen duen erraztea adierazten du. Gaur egun nagusitzen diren paradigma (esfera pertsona-lean) eta instituzioen (esfera politikoan) artean, plangintza oso errotuta dago, eta plan bat edukitzeak segurtasuna sentiarazten digu. Prozesu emergenteek, aldiz, ziurgabetasuna eta kezka sentiarazten dizkigute. Elkarrekikotasunaren bilaketa ez da, beraz, lanketa arrazional hutsa, emozionala ere bada.

Modu normatiboan proposaturiko elkarrekikotasun hori bilatzeko, irudiko ekintza-iker-tzaile erraztaileak plana ikasketa- eta negoziatio-prozesuetan txertatzen du. Horrek plana-rekiko osagarriagoak diren emaitzak bideratzen ditu eta, horrela, planaren barruan ko-sor-kuntzaren emaitzak baztertzeko arriskua gutxitzen da. Aldi berean, prozesu emergenteen emaitzak plana lantzen den eremuetara eramanez, plana malgutu egiten du eta egingarriago bilakatzen du.

© Lehiakortasunerako Euskal Institutua - Deusto Fundazioa  
ISBN 978-84-1325-227-8

ikerketa gehiagoren beharrik, gelditzen dena sortutako jakintzaren inplementazioa eta horri lotutako arazo teknikoak dira.

Ekintza-ikerketaren oinarrian dauden paradigmak bestelakoak dira, praxian oinarritzen direlako. Abiapuntua praktika eta, zehatzago, arazo praktiko bat da, eta erantzun teorikoak edukita ere arazoak jarraitzen badu, testuinguruaren arabera jakintza berria behar dela esan nahi du. Horrek ez du esan nahi praxia teoria gabekoa denik, teoria bat sendoa den edo ez jakiteko, praktikaren galbahetik pasatzen dugula baizik. Teoriak praktika hobetzen laguntzen badu, txertatu egiten dugu, eta laguntzen ez badu, baztertu. Teoria praktikaren galbahetik pasatzeko prozesu horretan jakintza berria sortzen da, *esperientzian oinarritutako jakintza kontzeptual* moduan jasoko dudana.

Jakintza horrek jakintza teorikoa eztabaidatzen den eremu akademikoetan ere ekarpena egin dezake. Horretarako garrantzitsua da hura esparru kontzeptualen bidez modu esplizituan azaltzea. Gure errazte-lanaren ardatzetako bat esparru horiek erakitzea izan da, parte-hartzaileei prozesua garatzen laguntzeko, eta baita parte hartu ez dutenei prozesua eta bere ikasketak zabaltzeko ere.

Patroi horrekin lan egitean, gure ikertaldeak ekarpen teorikoak txertatu ditu prozesuan, bai gonbidatutako adituen eskutik, eta baita zuzenean guk geuk hautaturiko liburu eta artikulak akademikoetatik ere. Helburua herri-politiken arduradunei eskuartearen gure arazoari ikuspegi berri batetik begiratzen laguntzea zen. Horrelakoetan lehen erreakzioa gehienetan ona izaten zen, eta gauzak hobeto ulertzen genituela sentitzen genuen. Baina, ekintzara gerturatu ahala, arazoak genituen geroz eta zehatzagoak ziren galderei teoriaren bidez erantzuteko. Momentu hori jasotzen du 4.14. irudiak.

#### 4.14. irudia. Teoriaren erabilera gure praktika ulertzeko




Praktika teoria baino errazagoa den aurreiritzia zabaldua dago. Baina praktikan landutako arazoez teoriak erantzun zezakeena baino konplexutasun sakonagoetan murgiltzen gintuzten. Hori gertatzen zenean, teoriak gure galderei erantzuten ez zela ulertu ahala, momentu egokiak sortzen ziren praktikari begiratzeko eta testuinguruaren arabera erantzunak bilatzeko. Horri deitzen diot *teoria praktikaren galbahetik pasatzea*, eta ez du erantzun berriek teoriarik ez zutela esan nahi, teoria praktikan lagungarri zen neurrian soilik txertatzen genuela baizik. Lanketa hori ikasketa- eta negoziazio-prozesua izaten zen, kontzepturik garrantzitsuenak eta haien arteko loturak zein ziren ikasi eta erabakitzeko. Horrela sortutako jakintza berriak ez ziren gure galderei modu teorikoan erantzuten —teoriak edozein testuinguruan balio duten erantzunak eman behar ditu—, baina gure praktika konkretua garatzen laguntzen zuen.

Jakintza berri hori ekintzan gauzatzen zen; ez, ordea, ekintzan soilik. Horrez gain, praxian oinarritutako esparru kontzeptualak ere eraiki genituen. Horiek praxia (eta ez praktika) zuten oinarri. Ondorioz ez ziren teorikoak, ez praktikoak, bien arteko elkarreaginaren emaitza baizik; eta hausnarketarako tresna eraginkorrak izan ziren, irizpide orokorrak eman ez arren, konplexutasunaren zenbait alderdi teoriak baino zehaztasun gehiagorik lantzen zituztelako. Esparru horiek elkarrekin sortzeko prozesua 4.15. irudian marraztu dut.

Esparru kontzeptual horiek ezin dira beste testuinguru batzuetan «aplikatu», baina asko erabili ditugu Gipuzkoako eta Gipuzkotik kanpoko beste herri-politika batzuen inguruan hausnarketa bultzatzeko.

#### 4.15. irudia. Praktikatik eratorritako esparru kontzeptualak



#### 4.2. *Nire posizioa aktore-erraztaile moduan*

Gure proiektuetan, zenbait parte-hartzailek, teoriarako joera gehien zutenek, gure praxitik eraikitako esparruek zorrotasunik ez zutela adierazi zuten. Horrek taldean prozesuarekiko zalantzak sortu ohi zituen, baina, aldi berean, baita praktitarako joera zuten eragileen artean euren jakintzaren aldarrikapena eragin ere. Ondorioz, herri-politiken arduradunek praktitarako joera nabarmena zutenean, zorrotasunaren inguruko iritzi horiek ez zuten ekintza-ikerketarik eragotzi. Baina herri-politiken arduradunek teoriarako joera zuten zenbait proiektutan, tentsioak sortu eta prozesuak aldatu edo moztu ziren.

Nire ikertzaile-erraztaile identitatea tentsio horien eraginpean garatu da, eta nire jarrera, berriro ere, ez da neutrala izan. Ekintza-ikerketaren printzipioek eta neure sinesmenek bultzatuta, praxian oinarritutako esparru kontzeptualak eraikitzen aritu naiz; eta, aldi berean, teoriak, praktikaren galbahetik pasa ezean, arazoak konpontzeko dituen muga inguruko hausnarketa kritikoa ere garatu dut. Horixe jaso dut 4.16. irudian.

#### 4.16. irudia. **Nire identitatea teoria eta praktikaren arteko dikotomian**




#### 4.3. *Pentsamolde dikotomikoa gainditzeko erraztea*

4.17. irudiak modu normatiboan proposaturiko teoriaren eta praktikaren arteko elkarrekotasun harremana erakusten du. Bertan azaltzen den ekintza-ikertzaile erraztaileak teoria txertatzen du konponbide praktikoak bilatzeko prozesuetan, eta prozesu horiek sistematizatzen ditu, esparru kontzeptual berriak sortzeko. Ondoren, esparru kontzeptual horiek eztabaida teorikoetan ere txertatzen ditu. Izan ere, praktikatik teoria zalantzan jartzera eta hobetzen laguntzera irits gaitezke, teoria eta praktikaren artean egon daitezkeen harreman-moten kontzientzia hartuz. Bi noranzkoko prozesu horiek pentsamolde dikotomikoak gainditzen laguntzen dute.

Praxia aitortzen duen elkarrekikotasun hau ez da neutrala, ikerketaren esfera politikoan gailendu den teoriaren eta praktikaren arteko harreman hierarkiko eta lineala ere ez den bezalaxe. Elkarrekikotasunak ez du, beraz, teoria eta praktikarekiko neutraltasuna esan nahi, teoria eta praktikaren arteko elkarrenergin eraikitzaileen bilaketa baizik.

#### 4.17. irudia. Erraztea teoriaren eta praktikaren elkarrekikotasunean



## 5. Boterea eta maitasuna

### 5.1. Errazte-esperientzian aurkitutako patroiak

Aipatu dut boterea sarri eztabaidatzen dela herri-politiketan eta ekintza-ikerketan, baina ez maitasuna. Nire ibilbidean azaleratu diren patroiak aztertzean, nabarmena da maitasunaz hitz egiteari ihes egin diogula. Izan ere, gure sinesmen, balio, kosmobisio eta paradigmekin, eta gure instituzioekin ere, maitasuna gure bizitza pribatuari zegokion. Maitasunaren inguruko elkarriketa isiltzean, sotilki, maitasunean oinarrituz eginiko erraztea ikusezin bihurtu dugu espazio publikoan.

Tartean behin aldarrikatu izan dut ekintza-ikertzaile erraztaileok herri-politiketan konfiantza, ikuspegi partekatua eta agenda partekatuak garatzen ditugunean, espazio publikoan maitasuna gauzatzen ari garela. Alegia, espazio publikoan bananduta daudenak elkartzeko bultzada gauzatzen dihardugula. Hori jaso nahi izan dut 4.18. irudian.

#### 4.18. irudia. Erraztea maitasuna gauatzeko prozesua da




Errazte-lan hori espazio publikoan ikusezin bilakatu dela badiot, ez da parte-hartzaileek gu, erraztaileok, haiekin lanean ari ginenik ukatu edo ezkutatu dutelako. Baina, haien bu-ruan eta adierazpenetan gure lana herri-politiken arduradunei *euren herri-politikak* egiten laguntzea zen (maitasuna), eta ez *geure ikerketa* —geure estrategia eta lidergoarekin— egi-tea (boterea). Ondorioz, herri-politikak ikusgai ziren, eta ekintza-ikerketa, ikusiezin. Egoera horiek aldatzeko garrantzitsua da ekintza-ikertzaile erraztaileok aktore moduan dagokigun boterea ere erabiltzea parte-hartzaileekin daukagun harremanean. Horixe jaso dut 4.19. iru-dian.

Urte hauetan maitasuna gauzatuz eginiko errazte-lana espazio publikoaren ezkutuko gela batean garatzen genuela sentitu dut, non espazio publikoari zegozkion gauzak gerta zi-tezkeen, benetan espazio publikoan gertatu gabe. Uste dut lurralde-garapenerako ona dela ekintza-ikerketako prozesuen erraztea ezkutuko gela horretatik atera eta espazio publikoan aitortzea, maitasuna gauatzeko prozesu moduan ez ezik, baita ikertzaileon boterea gauza-tzeko prozesu moduan ere. Hori erakutsi nahi izan dut 4.20. irudian.

4.19. irudia. Erraztea boterea gauzatzeko prozesua ere bada



4.20. irudia. Erraztea maitasuna eta boterea gauzatzeko prozesua da



## 5.2. *Nire posizioa aktore-erraztaile moduan*

Atzera begiratuta, uste dut urte hauetan maitasuna, sarriegi, botererik gabe gauzatu dudala, eta diskurtsoan neure burua ikertzaile-erraztaile moduan definitu dudan arren, gehienetan erraztaile hutsa izan naizela. Jokamolde horrek duen izaera degeneratiboa (Kahanen hitza erabiliz) argi ulertu nuen neure neke emozionalari aurre egitean. Nire ekintza-ikertzaile identitatea, orduz geroztik, izaera degeneratibo hori gainditzeko ahaleginek definitu dute. Alde batetik, espazio publikoan maitasunari tokia egiten saiatu naiz eta, bestetik, ekintza-ikertzaileon boterea aldarrikatzen.

Nire ikertzaile-erraztaile identitatea nola garatu den adierazteko egin ditudan gainontzeko marrazkietan, dikotomiaren alde bat gorago jartzen nuen, hura indartu nahi nuela adierazteko, eta bestea behean uzten nuen, gehiegi ez gailentzeko ahalegina adierazteko. Logika horri jarraituz, argudia nezakeen esfera publikoan aktoreen boterea gailendu denez, erraztaileen maitasuna ezkutuan utziz, nik azken hori espazio publikoan ikusgai egiteko lan egin dudala (maitasuna goratuz marrazkian). Baina nire identitatean are gehiago eragin du beste irakurketa batek. Uste dut, Kahanek boterearen eta maitasunaren artean proposatzen duen harremanean oinarrituz, maitasunari herri-politikan bere tokia eskaintzeko bidea ez dela aktoreen boterea mugatzea, aktoreen eta erraztaileen arteko bereizketa gainditzeko bai-zik (horixe bera da 3.28. irudiaren helburua). Pertsona batzuk soilik aktore direnean eta beste batzuk soilik erraztaile, bai boterea eta bai maitasuna degeneratiboak dira. Benetako aktore-erraztaileak ditugunean, aldiz, maitasunak eta botereak elkarreragin generatiboa garatzen dute. Hala, 4.21. irudiak nire aktore-erraztaile izateko ahalegina jasotzen du, nahiz eta hasieran esan dudan moduan, oreka hori lortzeko zailtasun nabarmenak izan, horrek definitu duelako nire identitatea.

### 4.21. irudia. **Nire identitatea boterearen eta maitasunaren arteko dikotomian**



Boterea eta maitasuna oso modu desberdinetan gauzatzen dira ingurunearen arabera. Nire esperientzia herri-politiken arduradunekin garatu da, eta haiek ikertzaileok baino botere


handiagooa zuten prozesuetan. Hala ere, kontziente naiz ekintza-ikerketa gehienetan zaugarritasun-egoeran dauden eragileekin lan egiten dela, eta erraz uler dezaket horrela lan egiten duten ikertzaileek maitasunaren eta boterearen oso bestelako esperientziak izango dituztela eta, ondorioz, baita oso bestelako identitateak ere. Nire esperientzia partekatzearen helburua ez da maitasuna eta boterea modu jakin honetan lotzen direla esatea, horrela lotzen diren guneetan ekintza-ikerketa nola gauzatu daitekeen hausnartzea baizik.

### 5.3. *Pentsamolde dikotomikoa gainditzeko erraztea*

Atal honetako 4.22. irudiak maitasunaren eta boterearen arteko elkarrekikotasuna bilatzen duen errazte-prozesua adierazten du. Elkarrekikotasun horrek, maitasuna eta boterea, biak, espazio publikoan onartzea eskatzen du, baita bata bestea gabe degeneratiboak liratekeela aitortzea ere.

Irudiaren erdian jaso dudan aktore-erraztaileak maitasuna soilik gauzatzen duten parte-hartzaileei euren botera erabiltzen laguntzen die, eta boterean oinarrituta soilik ari direnei, maitasuna gauzatzen.

#### 4.22. irudia. **Erraztea maitasunaren eta boterearen elkarrekikotasunean**



Besteengan maitasunaren eta boterearen elkarreragin generatiboa bultzatu ahal izateko, oinarritzkoa da ekintza-ikertzaile erraztaileak, berak, maitasuna eta boterea modu generatiboetan erabiltzea. Ekintza-ikertzaileon eraldaketa da, beraz, ekintza-ikerketaren bidez herri-politikak eraldatzen laguntzeko lehen pausoa.

## 6. Efizientzia eta parte-hartzea

### 6.1. Errazte-esperientzian aurkitutako patroiak


Herri-politika guztiek ez dute modu parte-hartzailean garatzeko helburua izaten, baina ekintza-ikerketaren bidez gauzatu nahi direnek, bai. Gure prozesuetan parte-hartzeak dialogoaren bidez konfiantzazko harremanak sortu, ikuspegi partekatuak garatu eta agenda partekatuak gauzatzeko esan nahi zuen; horretarako elkarrekin hausnartu, erabaki eta ekintzara pasatu ginen. Bide horretatik, eta 3. kapituluaren jasotako moduan, efizientzia parte-hartzearen bidez bilatu genuen. Lehen begiradan hori izan da patroi nagusia.

Baina, beste patroi bat ere izan da gure prozesuetan. Parte-hartzearen diskurtsoa gailendu arren, sarri ez ginela gai izan praktikan prozesuak eskatzen zituen erabaki guztiak modu parte-hartzailean hartzeko. Horrek ez du esan nahi parte-hartzearen sinesten ez zenik, uste baitut ibilbide honetan elkarrekin aritu garen ikertzaile eta herri-politiken ardura-dun gehienok zintotasunez egin genuela parte-hartzearen aldeko hautua. Baina zailtasunak ugariak izan ziren maila praktikoan, politikoan eta pertsonaletan.

Hau gertatzen zenean, parte-hartzeko baldintza egokiak eduki ez arren, prozesua bizirik mantentzeko ahalegin nabarmenak egin ditugu. Bi arrazoi nagusi azpimarratuko nituzke horretarako: (a) ardura-dun politikoek, behin gai batekin publikoki konpromisoa hartutakoan, prozesua egiteko presioa sentitzen zuten eta (b) ekintza-ikertzaileok argi genuen prozesuak bizirik mantendu behar genituela, gure lanak epe luzeko emaitzak ematea nahi bagenuen. Bi arrazoi horiek prozesuarekin aurrera jarraitzera bultzatu gaituzte, parte-hartzeko baldintza egokirik ez genuen momentuetan ere. Ondorioz, ekintza-ikerketari buruz irakurtzean ia inoiz ikusi ez dudana jokamoldea azaldu nahi dut atal honetan, gehien aipatzen diren parte-hartzearen ideiaetatik urruntzen dena, baina praktikan parte-hartzea epe luzeko apustu bilakatu zedin ahalbidetu duena.

Parte-hartzerako baldintzarik ez genuenean, ohikoena erabakimena zuten eragileekin banaka egotea izan zen, prozesuaren biziraupena bermatuko zuen erabakiren bat hartzeko. Erabaki horiek herri-politiken ardura-dunen eta ikertzaileon artean sortuak ziren, baina lurraldeko eragilearen aniztasunik gabe. Hori dela eta, politiken ardura-dunen erabaki hierarkiko moduan ikusten ziren. Hain zuzen ere, erabaki horiek marraztu ditut 4.23. irudian.

#### 4.23. irudia. Ekintza-ikertzaileek erraztutako herri politiken ardura-dunen erabakiak




Denbora batez beste eragileen parte-hartzerik gabe bizirik mantendu genituen hainbat prozesutan parte hartzeko baldintzak berreskuratzea lortu genuen. Prozesua berriro parte-hartzera irekitzen zenean, gainontzeko eragileek batzuetan arduradunek hierarkiatik hartutako erabakia onesten zuten, eta beste batzuetan, kritikatu ere bai. Gure lana, orduan, ikuspegi-desberdintasun horiek modu esplizituan lantzea izaten zen, adostasun berrietara iristeko. Pauso hori jasotzen du 4.24. irudiak.

#### 4.24. irudia. Erabaki hierarkikoen berrikuste parte-hartzailea ekintza-ikerketan



Prozesu parte-hartzaileek aurrera egiten zuten, baldin eta parte-hartzaileek konfiantza eta ikuspegi partekatu nahikoa bazuten ekintzarako adostasunak lortzeko (4.25. irudia).

4.25. irudia. **Konfiantzan eta ikuspegi partekatuan oinarritutako ekintzarako adostasunak**



Epe luzean ikusi dugu, beraz, eraginkortasuna parte-hartzearen bidez bilatu dugunean ere, hierarkian hartutako zenbait erabaki garrantzitsuak izan direla. Horregatik 4.26. irudiak gure erraztearen izaera hibrido hori jasotzen du, erakusteko dialogo-prozesuan momentu batzuetan taldearekin aritu garela eta beste batzuetan, berriz, herri-politiken banakako arduradunekin.

4.26. irudia. Parte-hartzea errazteko taldeko eta banakako erabakien beharra



Aipatu moduan, ekintza-ikerketari buruz liburuetan irakurtzen dugunean, taldearen dialogo parte-hartzailearen garrantzia azpimarratzen da eta boterea dutenen erabaki hierarkikoak, ordea, ez dira kontuan hartzen edo gaitzesten dira. Gure praktikak erakutsi digu


herri-politiken eremuan biak beharrezkoak izan direla epe luzean herri-politikak modu parte-hartzailean garatu ahal izateko.

## 6.2. *Nire posizioa aktore-erraztaile moduan*

Ez dago ekintza-ikerketarik parte-hartzerik gabe. Eta epe luzeko lanketan erabaki hierarkikoak eta parte-hartzea uztartu ditugula azaldu arren, nire ikertzaile-erraztaile identitatea prozesuak ahalik eta modu parte-hartzaileenean egiteko ahaleginean garatu da.

Apustu hau nahasia izan da praktikan, ez nuelako beti argi ikusten parte hartzeko nahikoa konfiantza eta ikuspegi partekatu geneukan ala ez. Parte-hartzea ireki ondoren, uste genuena baino konfiantza eta ikuspegi partekatu gutxiago geneukala konturatzen baginen, erraz zabaltzen zen proiektuan erabaki parte-hartzaileen efizientzia-ezari buruzko diskurtsoa, eta horrek prozesua arriskuan jartzen zuen. Nire ekintza-ikertzaile erraztaile identitatea diskurtso horri erantzunez garatu da hein handi batean, 4.27. irudian jasotzen den moduan.

### 4.27. irudia. **Nire identitatea efizientiaren eta parte-hartzearen dikotomiarekin lotuta**




## 6.3. *Pentsamolde dikotomikoa gainditzeko erraztea*

4.28. irudiak efizientiaren eta parte hartzearen artean elkarrekikotasuna bilatzen duen erraztea adierazten du, parte-hartzea lehenetsiz, baina erabaki hierarkikoak ere prozesuaren barruan txertatuz.

Ekintza-ikertzaile erraztaileak agindutako emaitzen presiopean dauden herri-politiken arduradunekin lan egiten du, eragileen artean konfiantza eta ikuspegi partekatua garatzeko eta, hori lortu bitartean, prozesua bizirik mantentzeko. Aldi berean, garatu nahi den parte hartzeko espazioa ere errazten du, hierarkian hartzen diren erabakiekin loturak landuz. Horrela, hierarkiako erabakietan etorkizuneko parte hartzea lantzen da, eta parte hartzen duten eragileei hierarkiako zenbait erabaki eztabaidatzeko aukera irekitzen zaie. Parte-hartze prozesuan, batzuetan erabaki horien inguruko erresistentzia azaleratzen da eta beste batzuetan, berriz, erabaki hori prozesuan onartzen da.

#### 4.28. irudia. Erraztea efizientziaren eta parte-hartzearen elkarrekikotasunean



## 7. Arrazoa eta emozioa

### 7.1. Errazte-esperientzian aurkitutako patroiak


Nire ibilbide profesionalean erabilitako ikerketa-metodologiaren artean, ekintza-ikerketak aitortzen ditu garbier emozioak. Baina gure ekintza-ikerketa proiektuetan emozioak bazirela eta prozesuei eragiten zietenla aitortu arren, prozesuak modu oso arrazionalen landu ditugu, arreta elementu hauetan jarritz: (a) parte-hartzaileek esandakoa (haien hitzak jasota), (b) esandakoaren inguruan erabakitakoa (esandakoarekin koherentzia zuen aztertuz) eta (c) erabaki horien inguruko ekintzak (erabakitakoarekin koherenteak al ziren aztertuz).

Emozioak lantzeko zailtasunak genituenez, gailendu zen patroia emozioak arrazionalizatzea izan zen. Izan ere, emozioei buruz hitz egiten genuen, abstraktuan, arrazionalki, baina ez genituen *gure emozio konkretuak* prozesuan txertatzen. Hori adierazi nahi izan dut 4.29. irudian.

125

Azkenik, bada emozioei loturiko beste patroï bat: ekintza-ikerketan emozioak aipatzen direnean, gehienetan gainontzeko eragileak izaten dira, ez prozesua errazten duten ekintza-ikertzaileenak. Errazteari buruzko literaturak erraztaileak pozik eta lasai irudikatzen ditu, gainontzeko parte-hartzaileengan ere modu horretako emozio positiboak eragiteko. Tristura, beldurra edo, bereziki, haserrea ez dira erraztaile batengan emozio egokitzaletzat jotzen. Horren aurrean, 4.30. irudian tristura, beldurra eta haserrea ere sentitzen dituen erraztailea marraztu dut, gertuago baitago nire esperientziatik liburuetako erraztailea baino.

#### 4.30. irudia. **Tristura, beldurra eta haserrea ere sentitzen dituen erraztailea**



Errazten dugunean, emozio horiek eta beste batzuk errazte-lanaren parte dira, eta horiek lantzeko gaitasun, tresna eta espazio egokirik eduki ezean, neke emozionala pilatzen joaten da prozesuan.

#### 7.2. *Nire posizioa aktore-erraztaile moduan*


Liburu hau idazten aritu naizen bitartean, nire emozioekin konektatzeko lanketa ere egin dut. Bide horretan, eta kontzientzia hartzen laguntzeko, errazten ikusi nauten bi lankideri zuzenean galdetu nien: «Nola haserretzen naiz?». Hauek dira haien erantzunak:

[1. LANKIDEA]: «Gogoratzen dudana arte, ez zaitut inoiz haserre ikusi. Norbaitek min egiten badizu [...] tentsioa nabaritzen dut zure aurpegian, egoera kontrolatu nahian ibiliko bazina bezala[...]. Orduan hitz egiten duzu, eta asko pentsatu gertatu denari buruz. [...] Baina ez duzu haserrearekin hitz egiten, arrazoia erabiliz egin dizuten mina ulertzen saiatzen zara [...]. Orduan, sarri, min egin dizutenentzat erantzunak dituzunean, erantzun egiten diezu, edo zerbait egin. Egoera ez da hasi zen egunean bukatzen; lan asko eskatzen dizu ziklo hori ixteak.»

[2. LANKIDEA]: «Barrurantz haserretzen zara, kanporantz haserretu beharrean. Ez zara haserretzen, energia barrura joaten da, kanpora joan ordez.»

Hau da, nire emozioak arrazionalizatu egin ditut kudeatzeko, baina ez ditut emozio moduan landu. Nolabait, irentsi egin ditut, prozesuan eragin ez zezaten. Hala ere, egoera hori aldatzen ere saiatu naiz, nire lanketa kritikoa emozioei tokia egitera bideratuz, eta horixe adierazi dut 4.31. irudian.

#### 4.31. irudia. Nire posizionamendu kontraesankorra arrazoiaren eta emozioaren artean



Irudi honek zalantza ugari sortu dizkit, agerian uzten baititu nire kontraesanak.

#### 7.3. Pentsamolde dikotomikoa gainditzeko erraztea

Aurrekoen ildotik, 4.32. irudiak arrazioaren eta emozioen arteko elkarrekikotasunean oinarrituriko erraztea adierazten du, modu honetan lan egiteak, arrazoiak gain, emozioak ere prozesuaren barruan sartzea eskatzen duela jakinik.

Irudiaren erdigunean kokatutako ekintza-ikertzaile erraztaile emozioen kontzientzia hartzen laguntzen du, eztabaida arrazionala gailentzen den espazioetan. Bestalde, arrazoiak txertatzen du emozioak (esplizituki edo ez) nagusi diren prozesuetan, emozioek prozesuari nola eta zergatik eragin dioten arrazionalki ulertzen lagunduz. Bai noranzko bateko lanketak, bai bestekoak prozesuaren manipulazio-arriskua gutxitzen dute.

## 8. Objektiboa eta subjektiboa


Objektibotasuna, norbere emozio edo iritziei tokirik utzi gabe, faktuak kontuan hartu eta adierazteari lotzen zaio, eta subjektibotasuna, berriz, emozio eta iritzi horien eraginpean egoteari. Nire ekintza-ikerketaren esperientzian, objektibotasunaren eta subjektibotasunaren arteko tentsioak ez dira sortu faktu objektiboekin lan egin dugunean, izan ere, parte-hartzaile guztiek onartzen zuten eskuragarri zeuden datuen erabilera. Tentsioak ikuspegi subjektiboak ere ko-sorkuntza prozesuan txertatu direnean sortu dira, zenbait parte-hartzailek haiekin lan egiteko eragozpenak erakutsi dituztelako. Horrelakoetan entzun izan dugu, elkarrekin sortutako jakintzari zegokionez «bai, baina hori subjektiboa da».

128

emaitzak «kutsatzen» dituela ere. Antzeko logikak sumatu ditut herri-politikan ere. Ondorioz, «datu objektiboak eduki arte, ezin dugu jakin» ere esan izan da gure prozesuetan. Baina, gure helburuak kultura politikoa eraldatzea, lankidetzazko gobernantza garatzea edo herri-politiken ekosistema ahalduntzea direnean, zein dira datu objektiboak? Izan ere, zenbait gauza neur daitezke, baina ez garrantzitsuak diren guztiak.

Objektibotasuna soilik balioesteak eraldaketa-prozesuei trabak jar diezazkieke, beraz. Baina oztupo horiek ez dituzte soilik datu objektiboen mugek eragiten; aitzitik, subjektibotasunaren balioa ukatzeak ere egoera berera garamatza. Horrelako tratatzeak saihesteko, gure lehen pausoa eskura genuen informazio objektiboa lantzen hastea izaten zen. Hain zuzen ere, momentu hori azaldu dut 4.33. irudian.


#### 4.33. irudia. Datu objektiboak lehen pauso moduan



Eskuragarri genituen datu objektiboek nekez ematen ziguten eskuartean genuen erronkaren ikuspegi osoa. Gainera, adituen ekarpenekin (4.5. irudia) edo teoriarekin (4.14. irudia) gertatzen zitzaigun bezala, parte-hartzaileek datu objektiboen inguruko interpretazio subjektiboak egiten zituzten. Hori adierazten du 4.34. irudiak. Bertan, betaurrekoek esfera pertsonaleko sinesmen, balio, kosmobisio eta paradigmatz adierazten dituzte, eta emozioak ere marraztu ditut.

Horrelako egoeretan, gure ikertzaile-erraztaile lana ikuspegi partekatua garatzea izaten zen. Ikuspegi partekatua ez du esan nahi denok berdin pentsatzea, zertan ados gauden eta zertan ez denok ulertzea baizik. Bestearen posizioa ulertzeko garaian, datu objektiboak kontuan hartzea baino esanguratsuagoa gertatzen zen, gehienetan, haien interpretazio subjektiboetaz.

#### 4.34. irudia. Datu objektiboen interpretazio subjektiboak



Subjektibotasun desberdinak elkarri eragiten jartzean intersubjektibotasuna garatzen zen, hau da, taldekideon emozioen eta iritzien arteko loturak eraikitzen ziren, narratiba berriak eta ekintzarako baldintza hobeak sortuz. Ekintza-ikertzaile erraztaileon lanetako bat partaideen subjektibotasun-adierazpenetatik abiatu eta intersubjektibotasunaren narratiba eraikitzea zen, 4.35. irudian jaso dudan moduan.

#### 4.35. irudia. Ekintza-ikertzaile erraztailearen lana intersubjektibotasunaren joskeran



Aipatu dut gure prozesuak kaotiko moduan deskribatu izan direla, eta 4.35. irudiak jasotzen du balizko kaos hori. Puntu honetara iritsita, ekintza-ikertzaile erraztaileok ez ginen beti prozesua bizirik mantentzeko gai izan, eta hainbat herri-politiken arduradunek prozesua «ordenatzeko» erabakia hartu zuten, datu objektiboak eskatu eta haietatik ekintzarako irizpideak ateratzeko. Baina beste prozesu batzuk indartuta atera ziren intersubjektibotasunaren eraikuntzatik eta, horrela, balio erantsi handiagoko lankidetzak garatu ahal izan genuen.

## 8.2. *Nire posizioa aktore-erraztaile moduan*

Ekintza-ikerketa hautatu nuenean, beste ikerketa-modu batzuk atzean utzi nituen. Haus-tura nagusietakoa izan zen onartzea, datu objektiboek gain, lurraldeko eragileen interpreta-zio subjektiboak ere baliotsuak zirela.

Ondorioz, ekintza-ikerketa erraztean, beti eskuragarri nituen datu objektiboak erabili di-tut; baina, aldi berean, datu objektiboek mugen inguruko kontzientzia garatu eta subjeki-botasunarekin ere lan egitearen balioa nabarmendu dut. Subjektibotasuna eta intersubjekt-i-botasuna prozesuan txertatzeak tentsioak sortu ditu, batez ere prozesua zorrotza ez zela edo kaotikoa zela sentitzen zuten partaideen artean. Nire aktore-erraztaile identitatea tentsio ho-rren eraginpean garatu da, 4.36. irudian adierazi dudan moduan.

### 4.36. irudia. **Nire posizioa objektibotasunaren eta subjektibotasunaren arteko dikotomian**




Intersubjektibotasuna gora eta objektibotasuna behera marraztu ditut ez datu objek-tiboak balioesten ez ditudalako, erraztean sarri datu objektiboek dituzten mugen inguruko kontzientzia garatzen lagundu behar izan dudalako baizik.

### 8.3. Pentsamolde dikotomikoa gainditzeko erraztea

Aurrekoaren osagarri, 4.37. irudian objektibotasunaren eta subjektibotasunaren artean elkarrekikotasun-harremana bilatzen duen ekintza-ikerketa errazteko lana adierazi dut.

4.37. irudia. Erraztea objektibotasunaren eta subjektibotasunaren elkarrekikotasunean



Horrela errazten duen ekintza-ikertzaileak, datu objektiboetatik abiatu arren, intersubjektibotasunean eraikitako narratibak garatzen ere laguntzen du. Horrek objektibotasuna lehenesten duten taldeetan ikuspegi subjektiboak azalerraten laguntzea eskatzen du, eta ikuspegi horietatik abiatuz, elkarerraginean, zerbait berria eraikitzea. Bestalde, datu objektiboak kontuan hartu gabe, ikuspegi subjektiboak soilik lantzen diren guneeetan, erraztaileak datuak mahai gainean jartzen ditu. Noranzko bateko eta besteko lanketak tentsioa sortzen dute.

## 9. Publikoa eta pribatua

### 9.1. Errazte-esperientzian aurkitutako patroiak

Dikotomia hau aurreko biei —arrazoia eta emozioa, objektiboa eta subjektiboa— oso lotuta dago. Atal berezi batean lantzea erabaki dut pentsamolde dikotomiko hau gainditzeko modu berritzaileak eraiki ezean, ezinezkoa izango delako ekintza-ikerketaren eta herri-politiken espazio publikoetan emozioak eta ikuspegi subjektiboak barneratzea.


Liburuan zehar sarri aipatu ditut esfera pertsonala eta bere baitako sinesmen, balio, kosmobisio eta paradigmak. Pertsonalaren definizioetako bat *pertsona partikular bati dago-kiona, eta ez beste inori* da. Hala ere, badu beste esanahi bat, *norberaren bizitza, harreman eta emozio pribatuei dagokiena, eta ez norberaren karrera edo bizitza publikoari*. Bi esanahi horiek sarritan nahasi egiten ditugu, modu kontzientean edo inkontzientean. Ondorioz, gure sinesmen, balio, kosmobisio eta paradigmak gure bizitza pribatuari soilik balegozkio bezala jotzen dugu, eta kosta egiten zaigu horiek aitortzea, adibidez, herri-politiken eta ekintza-ikerketaren espazio profesional eta publikoetan. Hori problematikoa da, aipatu dudalako ez dagoela eraldaketarik hiru esferen elkarreraginean ez bada; eta esfera politikoa eta praktikoa espazio publikoan gauzatzen badira, eta esfera pertsonala espazio pribatuan, non esplizitazten da hain beharrezkoa den esfera politiko, praktiko eta pertsonalen arteko elkarreragina?

Galdera horren inguruan aurkitu ditudan patroien kontakizuna 4.38. irudiarekin hasiko dut. Ekintza-ikerketaren printzipioek diote *garenaren osotasunean* (ingelesez, *as whole selves*) parte hartu behar dugula prozesu horietan, gure gorputz, sinesmen eta emozio guztiekin. Praktikan, osotasun hori gure prozesuen ertzetan sorturiko lagunarteko konfiantzazko gune pribatuetan soilik azaleratzen genuen; eta ez prozesuaren erdiguneko espazio profesional eta publikoetan, non gorputzaren kontzientziarik, subjektibotasunik eta emoziorik gabeko geure bertsio bat azaltzen genuen. Horixe adierazten du 4.38. irudiak.


#### 4.38. irudia. Ni ekintza-ikerketaren espazio pribatuetan eta espazio publikoan



\_\_\_\_\_




#### 4.40. irudia. Espazio publikoen eta pribatuen arteko hesiak



Deserosoa izan arren, azken urteetan hesi horiek gainditzen saiatu gara, parte-hartzai-leak euren sinesmen, balio eta emozioak adieraztera gonbidatuz. Horiek kontzeptu abstraktu moduan azaltzen genituenean, adibidez gazteen balioez eztabaidatuz, elkarriketa erraza zen. Baina modu konkretuan *nire balio* edo *nire emozioei* buruz lehen pertsonan hitz egitea oso zaila suertatzen zitzaigun. Lortu genuen kasuetan, konturatu ginen *ginenaren osotasunean* parte hartzeak ez zuela soilik taldearen dinamika aldatzen; aitzitik, gainerako herritarren sinesmen, balio eta emozioen inguruan genuen ikuspegia ere aldatzen zuen. Lurraldea ikusteko modu berri hori 4.41. irudian jaso dut, eta bertan herritar guztiak agertzen dira direnaren osotasunean.

#### 4.41. irudia. Herritarrak ekintza-ikerketan, direnaren osotasunean



#### 9.2. Nire posizioa aktore-erraztaile moduan

Nire errazte-lana espazio profesional eta publikoan gertatu da, eta horietan toki gutxi eskaini zaio norberaren emozioak, sinesmenak edo balioak azaleratzeari. Hala ere, maiz nabaritzen nuen parte-hartzaileak pozik, beldurtuta, haserre edo triste zeudela, eta emozio horiek gure prozesuak eraginikoak ote ziren ulertu nahi izaten nuen. Gainera, prozesuaren eta parte-hartzaileen sinesmen eta balioen arteko talkak ere sumatzen nituen, guztiz ulertu ez arren. Gai horiekiko jakin-mina azaltzeak, ordea, eragileengan deserosotasuna sortuko zuela iruditzen zitzaidan, eta, ezer galdetu gabe eta, sarritan, besteen isiltasunak eta gorputz-hizkuntzak interpretatuz errazten nuen.

Azken aldian hori aldatzen saiatu naiz, gure prozesuekiko ikuspegi kritikoa landuz. Esfera pertsonalarekin lan egiteko bide honetan esperimendu txiki bat ere egin genuen, boluntario moduan horretarako prest azaldu ziren herri-politiken arduradun eta beste eragile batzuekin. Honakoa parte-hartzaile horietako batek esandakoa da, esperimenduaren ondoren:

[3. PARTE-HARTZAILEA]: «Nire ustez «ni»-aren inguruan ez hitz egiteko askotan arrazoi «makroak» edo «objektiboak» jartzen ditugu: kolektibotik urrunduko gara, ez da garrantzitsua, ez da objektiboa... Baina, askotan geure buruaz eta dimentsio subjektiboez hitz egiteko dugun beldurra da. Eraldaketak pertsona konkretuek egiten dituzte. Guk. Bakoitzak. Egin den ariketa horrek eraldaketaren muina ukitzen du, nire ustez. Beste partaideen zatiak irakurtzean, asko «humanizatu» dut taldea. Asko gustatu zait».

Esfera pertsonalak eta espazio publikoaren arteko elkarreragina modu esplizituan lantzeko ahaleginek nire ekintza-ikertzaile erraztaile identitatea nabarmen definitu dutela uste dut, eta horretan oinarritu dut 4.42. irudia.

#### 4.42. irudia. **Nire posizioa esfera pertsonalak espazio publikoan duen tokiarekiko**




Posizio hori mantentzeak ez du esan nahi gure prozesuetako eragileak pribatuan sentitzen zutena espazio publikoan partekatzerara bultzatu ditudanik. Nire lana pentsamolde dikotomikoa gainditu eta espazio publikoaren eta pribatuaren arteko loturekin esperimintatzeko guneak sortzea izan da, gune horietan bakoitzak nahi zuena, eta ez besterik, partekatzeko baldintzak sortuz.

#### 9.3. *Pentsamolde dikotomikoa gainditzeko erraztea*

Atal honetako 4.43. irudiak ekintza-ikerketan espazio publikoaren eta pribatuaren arteko elkarrekikotasuna garatzen duen errazte-prozesua adierazten du.

Lotura horiek elikatzeko, irudiko ekintza-ikertzaileak, alde batetik, *garenaren osotasuna* dakar ekintza-ikerketaren espazio publikora, arrazoa eta objektibotasuna bere baitan hartuz, baina baita gorpuzta, emozioak eta subjektibotasuna ere.

4.43. irudia. **Publikoaren eta pribatuaren arteko elkarrekikotasunean eraikitako erraztea**



Beste alde batetik, ekintza-ikertzailea sentsibilitatez eta errespetuz gerturatzen zaie parte-hartzaileei horiek prozesuari loturiko emozio eta ikuspegi subjektiboak euren bizitza pribatuari dagozkiela uste dutenean, eta ondorioz, ez azaleratzeko hautua egiten dutenean. Batzuetan, hautu hori egiten duten eragileek begi onez ikusten dituzte erraztaileekin garatutako konfiantza-maila handiko espazio informalak, ia espazio pribatuak direnak. Espazio horiek prozesuan eragin handia duten emozio eta interpretazio subjektiboak ulertzen lagun diezaioke erraztaileari, modu konfidentzialean.

## 10. Maskulinoa eta femeninoa<sup>8</sup>

### 10.1. Errazte-esperientzian aurkitutako patroiak

Dikotomia honekin loturiko patroien bilaketak ekintza-ikerketarekin hasi ginen lehen urteetara eraman nau. Garai hartan, lankide batek behin honela aurkeztu ninduen bere ikasleen aurrean: «Miren gizonen mundu batean ekintza-ikerketa egiten duen emakumea da». Garai hartako bileretako baten argazkia oinarri hartuta marraztu dut 4.44. irudia.

#### 4.44. irudia. Lehen urteetako bilera bat ekintza-ikerketaren ibilbidean



Urte batzuk geroago, nire ekintza-ikerketako ibilbidean generoaren ikuspegia txertatzen hasi nintzen, esperientzia eta literatura uztartuz eta esfera politikoan instituzionalizaturiko joko-arauen kontzientzia garatuz (Larrea, 2020):

Emakumeen pentsamoldea emozional, intuitibo eta pertsonalizatua dela azaltzen duten estereotipoak oso barneratuta daude eta, batez ere mendebaldeko kulturetan, teknologiarantz orientazio garbia duten eta arrazoa eta objektibotasuna balioesten dituzten horietan, estereotipo horien bidez emakumeen pentsaera eta ekarpenak gutxiesen dira. Izan ere, «jakintza intuitiboa primitiboagoa dela, eta ondorioz objektibotzat hartzen diren jakintza moduak baino balio gutxiago duela» pentsatzeko hezi gaituzte. (Sampson 1978, Belenky, Clinchy, Goldberger & Tarule, 1986, 6. or.)

Gainera, emakumeen jarduna deskribatu izan denean, sarriago azaldu da jardun hori arduraren eta zaintzaren moralitatearekin lotuta, gizonenaren aldean (Belenky *et al.*, 1986). Pertsonalitate femeninoa, ustez, beste pertsona batzuekin harremanetan eta loturan definitzen da, maskulinoa baino gehiagotan, eta hori gabezia moduan interpretatzen da, eta ez zerbait positiboa bezala. Gainera, neskek beste batzuen behar edo sentimenduak eurenak balira bezala bizitzen dituzte, mutilek baino sarriago (Chodorow, 1974; Gilligan, 1982), eta berriro ere, arrazoa eta distantzia balioesten dituen testuinguru batean, horri ez zaio garrantzirik ematen.

Balio maskulinoak gailentzen direnean, eta hori askotan gertatzen da bizitza instituzionalean eta sozialean, emakumeek, eredurik gabe, euren sentimenduen normaltasuna zalantzan jartzen dute, eta euren ikuspegiak aldatzen dituzte gizonen erara

<sup>8</sup> Aurreko kapituluan azaldu moduan, zerbait femeninoa dela diodanean (rol bat edo sinesmen sistema bat, adibidez), esan nahi du enpirikoki ikusi dela emakumeek joera gehiago dutela horretarako gizonek baino, eta maskulinoa dela diodanean, gizonek dutela joera gehiago.


kodifikaturiko besteen iritzi konbentzionalak onartzeko, izan beste horiek gizon ala emakume. Esparru maskulinoak zalantzan jartzen ez direnean, zaila da ulertzen «moralitatearen ikuspegi maskulinoa eta femeninoa osagarriak direla (sekuentzialak edo kontrajarriak izan ordez).» (Belenky *et al.*, 1986, 6.-7. or.)

Nire ekintza-ikerketako ibilbidean nagusitu den generoaren inguruko lehen patroia da emakumeok gizonak baino askoz gehiago hartu ditugula geure gain errazte-lanak (ikus 3. kapituluko 5.2. atala). Bigarren patroia da emakumeek eta gizonak erraztu dugunean, emakumeon egiteko moduak femenino moduan azaleratu diren ezaugarriak gehiago lotu zaizkiela (emozionala, intuitiboa, pertsonalizatua, eta arduraren, zaintzan eta konexioan oinarritua); gizonen errazteak, ordea, ezaugarri maskulinoagoak izan ditu (arrazionala, objektiboa).

Hirugarren patroia da modu femeninoan eginiko erraztea ikusezin bilakatu dela. Primitiboagoa, eta beraz, balio gutxiagokoa dela pentsarazten diguten sinesmenetan oinarrituta, errazte-lanaren ezaugarri emozionalak eta erlazionalak ez dira profesionaltzat hartu, lan hori egin dugunon ezaugarri pertsonaltzat (eta beraz, pribatutzat) baizik. Eta pertsonal-pribatua espazio publikoan ikusezina da.

Ikusgaitasunaren haritik jarraituko dut orain. Urte hauetan, ekintza-ikerketako parte-hartzaileek (ekintza-ikertzaile, herri-politiken arduradun, gonbidatutako aditu eta lurraldeko beste aktore batzuek) sarritan azaldu dituzte generoari buruzko argudio teoriko eta arrazionalak. Paradoxa badiro ere, esango nuke femeninoaren inguruko diskurtso teoriko eta arrazional zirrargarrienak estilo maskulinoa zuten gizonak egin dituztela. Izan ere, emakume ugari ikusi dut estilo femeninoa modu zoragarrian *gauzatzen* zutenak, baina hori *kontatzen* onak ez zirenak. Gainera, kontuan hartuz zenbait proiektutan ardatza dimentsio teoriko eta arrazional maskulinoan jarrita zegoela, argi horien azpian femeninoaren arrazionalizazio maskulinoak egiten zuen dirdira. Ondorioz, esperientzian gauzatutako femenino praktikoa eta subjektiboa itzalean gelditzen zen. Argi eta itzal horiek jaso ditut 4.45. irudian.

#### 4.45. irudia. Garrantzia femeninoaren arrazionalizazio maskulinoari ematea



Zer dago esfera praktikoan azaleratzen ziren argi eta itzal horien atzean? Berriro ere, guztiz errotutako genero-rolen inguruko instituzioak (esfera politikoa) eta sinesmenak (esfera pertsonala). Horien eraginak, generoaren inguruan geureganatuta dugun diskurtso politikoki zuzenaz harantzago, indarrean jarraitzen du.

Aurkitu dudan beste patroia bat da inork ez zuela gure prozesuetan modu esplizituan femeninoa baztertu edo gutxietsi, hau da, inork ez zuen modu irekian ikuspegi edo ekintza bat baztertu femeninoa zela esanez. Baina batzuek ekintza-ikerketa baztertu zuten, zorrozatasuna soilik adituei egotzean; izaera etikoa soilik objektibotasunari; ikerketa soilik arrazoiari; eta sendotasuna soilik plangintzari. Hau da, errazte-lana itzalean utzi zen zorrozatasuna eta sendotasuna falta omen zitzaizkiolako, eta etikoa edo akademikoa ez omen zelako. Bestela esanda, ez zitzaion zegokion balioa eman esperientzian oinarritua, subjektiboa, emozionala eta emergentea zelako. Hau da, finean, femeninoa zelako.

Uste dut femeninoaren eta maskulinoaren arteko pentsamolde dikotomikoa gainditzeko, aurrena lan femeninoa ikusgai bihurtu behar dugula, oinarrian dituen ezaugarriak balioetsiz eta aitortuz. Aitortza hori, ordea, ezingo zaio inoiz egin femeninoa ezaugarri maskulinoen eskalan neurtzen badugu. Ondorioz, lehen pausoa ezaugarri femeninoek maskulinoek adina balio dutela onartzea da, balio hori hauteman dezaketen eskalak garatuz eta femeninoaren ekarpena horien bidez adieraziz.


Horixe adierazi nahi izan dut 4.46. irudian.

#### 4.46. irudia. Femeninoa ikusgai espazio publikoan



Baina femeninoa balioan jartzea ez da nahikoa, aldi berean, gizon eta emakumeok gaur egun femeninoak eta maskulinoak diren egitekoetan berdintasunez aritu behar dugu. Hori lortzean, egiteko hauek femenino edo maskulinoak izateari utziko diote. Orduan bakarrik izango gara gai dikotomia horren bi aldean artean 4.47. irudian adierazi nahi izan dudana elkarrekotasuna garatzeko.

#### 4.47. irudia. Femeninoaren eta maskulinoaren arteko elkarrekikotasuna espazio publikoan



#### 10.2. *Nire posizioa aktore-erraztaile moduan*

Ekintza-ikertzaile erraztaile izaera garatu dudan espazioetan, parte-hartzaileek askotariko jarrerak izan dituzte pentsamolde femeninoaren aurrean. Batzuek gauzatu egin dute, praktikan, modu erlazional, subjektibo, emozionalean. Beste batzuei deserosotasuna sortu die, eta baztertu egin dute, gehienetan efizientziaren, arrazioaren eta objektibotasunaren izenean. Beste batzuek diskurtso arrazionalean ikuspegi femeninoa onetsi eta haren beharra aitortu dute, praktikan ikuspegi maskulinoa gauzatu arren.

Aniztasun hori eta aurreko ataletan azaleratutako patroiak kontuan hartuta, bi elementu nagusik eragin dute nire ekintza-ikertzaile erraztaile identitatean. Alde batetik, nire erraztearen dimentsio erlazionalean ikuspegi maskulinoa (arrazoia, objektibotasuna, boterea) lehenesten zuten eragileei printzipio horiek gauzatzen lagundu diet. Hori egitean, paradoxa dirudien arren, modu femeninoan errazten ari nintzen, ikuspegi maskulinoa indartuz. Bestalde, rol kritikoa ere jokatu dut, arrazoia, objektibotasuna eta boterearen mugak mahai gainean jarriz eta praktikaren, subjektibotasunaren eta emozioen garrantzia erakutsiz. Horretarako nire ikertzaile (beraz, aktore) izaeran oinarritu naiz, akademiak ematen zidan estatusa erabiliz. Berrito ere paradoxa dirudien arren, modu maskulinoan errazten ari nintzen, ikuspegi femeninoari zegokion garrantzia emateko. Ez da erraza ñabardura horiek guztiak jasotzen dituen marrazki bat egitea, eta ñabardura horiek gabe egitekotan, uste dut egokiena 4.48. irudia dela.

Beste ezaugarri bat ere nabarmendu nahiko nuke nire identitatearen garapenean. Tarteetan behin zenbait eragilek, zorrotzasunaren eta eraginkortasunaren argudioak erabiliz, ekintza-ikerketak eta gure errazte-lana bertan behera uzteko erabakia hartu izan dute. Horrelakoetan sarri sentitu nuen ez nintzela prozesuaren balioa erakusteko gai izan, eta ondorioz, bakarrik idazten hastea erabaki nuen, prozesuan itzalean gelditzen zena argitaratzean, neure

ahotsa bilatu eta neure pentsamoldea azaleratu ahal izateko. Nolabait, femeninoaren ikusezintasunari nire jardun maskulinoa indartuz, hau da, banantzearen bidez, erantzun nion. Errazteari utzi nion, aktore rola hartzeko.

#### 4.48. irudia. Nire posizioa pentsamolde femeninoaren eta maskulinoaren arteko dikotomian




Maskulinoaren eta femeninoaren arteko pentsamolde dikotomikoa gainditzeko bidean, beraz, batzuetan nire aktore-erraztaile izaeran erraztaile dimentsioa garatu dut, eta beste batzuetan aktore-dimentsioa.

#### 10.3. Pentsamolde dikotomikoa gainditzeko erraztea

Orain arteko logikari jarraituz, 4.49. irudiak femeninoaren eta maskulinoaren arteko elkarrekikotasunean oinarrituriko ekintza-ikerketaren erraztea adierazten du. Irudiko ikertzaile-erraztaileak prozesuari loturiko espazioetan maskulinoa eta femeninoa, biak, jartzen ditu fokorearen argipean eta, beraz, prozesuaren ardatzean.

Horrela, mahai gainean jartzen du pentsamolde maskulinoa eta femeninoa, bakoitza bere kasa, ez direla eraginkorrak, eta eraginkortasuna bien arteko elkarrekikotasunean garatzen dela. Epe laburrean, lanketa femeninoa itzalean utzita, maskulinoak bere kasa eraginkorra dirudi. Baina erraztaile honen lanak agerian uzten du prozesuen dimentsio maskulinoa soilik argitara aterata, ezinezkoa dela arazo konplexuak ulertu eta konpontzea. Horregatik, epe luzeko eraginkortasunari begira, bi ikuspegiak bateratzen ditu.

#### 4.49. irudia. Erraztea maskulinoaren eta femeninoaren elkarrekikotasunean



Horrez gain, ekintza-ikertzaile erraztaile honek parte-hartzaile bakoitzari modu maskulinoen eta femeninoen arteko joan-etorria errazten dio, bai batean eta bai bestean eroso sentitu dadin. Horretarako, ezaugarri femeninoak dituzten roletan ari direnei modu maskulinoagoetan lan egiteko atea irekitzen dizkie (arrazoian, objektibotasunean, boterean oinarrituta); eta aldi berean, ikuspegi maskulinoarekin dihardutenei, modu femeninoak esploratzekoak (emozioak landu, subjektibotasuna onartu eta maitasuna gauzatuz).

### 11. Aktore eta erraztaile

#### 11.1. Errazte-esperientzian aurkitutako patroiak

Aurreko kapituluan, erraztaileen eta aktore-erraztaileen arteko bereizketa egitean, neure burua aktore-erraztaile, eta zehatzago, ekintza-ikertzaile erraztaile moduan definitu dut.

Gure prozesuetan dikotomia horren inguruan azaleratutako patroiak batez ere neutraltasunaren eztabaidari lotuta egon ziren. Akademian eta herri-politikan gailentzen den diskurtsoaren arabera, ikertzaileon ikuspegi kritikoa datu objektiboetan oinarritzen da. Baina datu objektiboen garrantzia zalantzan jarri gabe, nire esperientzian, ikuspegi kritikoa ez zen soilik datuetatik eratorri, datuak interpretatzeko orduan eragileek eta ekintza-ikertzaile erraztaileok mahai gainean jarri genituen sinesmen, balio, kosmobisio eta paradigma kontrajarrien arteko eztabaidatik ere bai. Eta eztabaida hori ez zatekeen gertatuko ikertzaile-erraztaileok neutralak izan bagina. Beraz, nire esperientzian, ikuspegi kritikoa alde askotarikoa izan zen (parte-

hartzaileak adina begirada) eta herri-politiken arduradunen eta ekintza-ikertzaileon posizionamendu ez neutraletan izan zuen oinarria.


Ekintza-ikerketa ikertzaileon neutraltasun ez hori onartzen duen metodologia gutxieta-koa da, eta bere oinarrizko printzipioek izaera politiko nabarmena dute. Honako hauek dira nire esperientziako printzipio garrantzitsuenak:

- Arazoei eman beharreko konponbideak elkarrekin sortu behar dira.
- Esperientziatzko jakintza prozesuaren muinean dago.
- Jakintza ekintzan elkarrekin sortzen da (ko-sorkuntza), arazoa konpontzen den bitartean.
- Prozesuak, bere testuinguruan, kalitate demokratikoa hobetu behar du.
- Boterea dutenei egia esan ahal izateko baldintzak egon behar dute (ingelesez «*speaking truth to power*»).

Printzipio horiek definitzen gaituzte ekintza-ikertzaileok aktore moduan —hau da, lurralde bateko ikertzaile moduan— eta, ondorioz, horiek azaltzen dute gure posizionamendua ikuspegi kritikoa lantzean.

Dikotomia horren inguruan aurkitu ditugun patroiak adierazteko, bi marrazki egin ditut. Aurrena, 4.50. irudian, soilik erraztaile izango bagina proiektu baten oinarrizko proposamena adosteko prozesua nola erraztuko genukeen adierazi dut.


#### 4.50. irudia. Erraztaile neutral bat prozesu baten oinarriak adosten



Erraztaile neutralak ez du kolorerik; gainerako parte-hartzaileek, ordea, koloretako be-taurrekoak dituzte, euren sinesmen, balio, kosmobisio eta paradigmatik adierazteko. Geziak egin nahi den prozesua adierazten du, eta urdinez jantzitako eragilea prozesua abian jartzen duena da, liburu honetan jasotako esperientzietan, adibidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari bat izango litzateke.

4.51. irudiak, bestalde, aktore-erraztaile batek (ekintza-ikertzaile erraztaile batek, adibidez) nola lan egingo lukeen adierazten du.

#### 4.51. irudia. Aktore-erraztaile bat prozesu baten oinarriak adosten



Bi binetak konparatzean erraztaile batek eta aktore-erraztaile batek esfera praktikoan egiten dutenari so egiten badiogu, antzera ari direla irudituko zaigu. Baina esfera politiko eta pertsonalak kontuan hartzen baditugu, bi egoerak oso desberdinak dira.

Erraztaile neutral izan bagina, ezin izango genituzkeen defendatu prozesuan azaldu ditudan ekintza-ikerketaren bost printzipioak. Baina aktore-erraztaile izanik, haien gainean modu gardenean eraikitzen genuen gure posizionamendua. Erraztaile neutralaren logikan, eragin hori manipulazioa edo prozesuaren kutsadura izango zatekeen; baina aktore-erraztailearen logikan, oster, gure lurraldeari ikerketaren bidez egindako ekarpena.

### 11.2. *Nire posizioa aktore-erraztaile moduan*

Aurreratu dut nire ekintza-ikertzaile identitatea neutraltasunaren eztabaidarekin oso lotuta garatu dela. Baita sarri nigandik espero zena neutraltasuna zela ere. Baina nire lanketan aktore erraztailearen figura eztabaidatu eta ekintza-ikertzaile erraztailea nintzela argudiatu dut, aurrena neutraltasun eza onartuz eta, ondoren, aldarrikatuz. Horixe adierazi nahi du 4.52. irudiak.

4.52. irudia. **Nire posizioa aktore-erraztailearen eta erraztaile neutralaren arteko dikotomian**




### 11.3. *Pentsamolde dikotomikoa gainditzeko erraztea*

Atal honetan aurkeztutako 4.53. irudiak aktore eta erraztaile rolen elkarrekikotasuna bilatzen duen ekintza-ikerketaren erraztea adierazten du. Aktore-erraztaile batek, bere izenak adierazten duen moduan, bi rol barneratzen ditu, aktorearena (ez neutrala) eta erraztailearena (neutrala). Figura horrek erraztaile neutralek egiten dituzten lanketa gehienak egiten ditu, baina bere aktore-izaera ez-neutralari uko egin gabe. Beraz, ekintza-ikertzaile erraztaile batek, bere izenari erantzuten dion heinean, pentsamolde dikotomiko hori gainditzen du.

Dikotomiaren bi aldean arteko elkarrekikotasuna gauzatzeko, parte-hartzaile gehienek errazte-prozesu neutrala eskatzen diotenean, ekintza-ikertzaile erraztaileak bere ikertzaile-rola indartzen du. Ondorioz, prozesua herri-politika izateaz gain ikerketa ere badela azalera-tzen du, aurrez aurkeztutako printzipioak indartzen ahaleginduz eta prozesua beretzat ere hartzeko ariketa bat eginez. Bestalde, gainerako eragileek batez ere aktore (ikertzaile) rola eskatzen diotenean, ekintza-ikertzaile horrek bere erraztaile-lana indartzen du, eragileei eu-

ren posizioetan oinarrituta hausnartzen, erabakitzen eta ekiten lagunduz eta haiek prozesua bereganatzea bultzatuz.

4.53. irudia. **Aktore- eta erraztaile-rolen artean elkarrekikotasuna bilatzen duen erraztea**



Deskribatu dudana auto-erregulazio prozesu bat da, eta ekintza-ikertzaile erraztaileak berak bila ditzake oreka horiek. Hala ere, mekanismo hori ikertaldean ere azaltzen da, taldekide batzuek besteei oreka bilatzen laguntzean; eta, batez ere, proiektu-mailan hartzen du indarra, ekintza-ikertzaile erraztailea alde batera edo bestera gehiegi urrunduz gero eragileek egiten duten kritikaren eta erresistentziaren bidez.

## 12. Itxiera

Kapitulu honetan ekintza-ikerketa erraztean antzeman ditudan pentsamolde dikotomikoei loturiko patroiak, praktikan pentsamolde dikotomiko bakoitzarekiko izan dudan posizionamendua eta pentsamolde dikotomiko bakoitza gainditzen lagunduko lukeen errazte-eredua azaldu ditut.

Laburpen moduan, 4.54. irudiak nire hamar posizionamenduak jasotzen ditu. Irudi horrek erraztea tentsio baten moduan adierazten du: ahulegi, ezkutuan edo isilduta zegoela iruditu zaidana elikatu eta indartu dut; eta boteretsuegia zela edo gainerakoei gailentzen zitzaizela iru-


ditu zaidana, leundu. Posizionamendu horiek guztiak segidan ikusteak erraztearen neke emozionala ekarri dit gogora, baita berau gutxiegi aztertu eta landu dugunaren ustea ere.

#### 4.54. irudia. Nire posizionamendua hamar dikotomietan




Badakit errazte-esperientzia bakoitza bakarra dela, eta aipatu dut aktore-erraztaileek tesuinguru bakoitzean posizionamendu jakin bat izango dutela. Horregatik, neure esperientziaz harantzago joaten saiatu naiz, dikotomia gainditzeko errazte-prozesuak modu orokorragoan, eta normatiboagoan, adierazten saiatzeko.

#### 4.55. irudia. Dikotomiak gainditzeko erraztea



Itxuraz, 4.55. irudiak 4.54. irudiak baino positiboagoa dirudi, alaiagoa, tolesgabeagoa. Izan ere, dikotomiaren bi aldeen arteko talkak adierazi beharrean, landu nahiko genukeen elkarrekikotasuna adierazten du. Tolesgabetasun horrek egunen batean, ikuspegi dikotomikoak gaindituko bagenitu, ekintza-ikerketak eta herri-politikek nolako itxura eduki lezaketen irudikatzen gaitu. Horri jarraituz marraztu dut 4.2. bis irudia ere. Bertan, ikuspegi dikotomikoak gainditzen direla adierazteko, bi aldeetako koloreak nahastu egin ditut. Eta alderik hautatu beharrik ez dagoela adierazteko, kontzeptuak aurrez aurre jarri beharrean modu zirkularrean eta nahastuta daude.


4.2bis irudia. **Ekintza-ikerketa ez dikotomikoaren erraztea irudikatuz**



Baina, sarreran aipatu bezala, pentsamolde dikotomikoak gainditzen ez ditugun bitartean, elkarrekikotasuna bera ere tentsioan eta gatazkan garatzen da. Ondorioz, 4.55. irudiko aktore-erraztaile bakoitzaren atzetik, 4.54. irudiko aktore-erraztaile bat izango dugu. Nire gogoaz litzateke, liburu honekin, haien lanaren balioespen kontzienteagoa eragitea.

Horregatik amaitzen dut kapitulu hau 4.56. irudiarekin. Izan ere, marrazki honek eza-gutu ditudan erraztaile eta aktore-erraztaile guztien lana omentzen du, bejondeizuela!

#### 4.56. irudia. Erraztearen arte konplexua






## 5. kapitulua

# Amaierako hausnarketa

Liburu hau ixteko, lehen esaldira itzuliko naiz: «Gure garaiko erronka ekologiko, politiko eta sozialek herri-politikak egiteko moduak eraldatzea eskatzen dute, eta ekintza-ikerketak eskari horri erantzuten lagun diezaguke. Baina horretarako, ekintza-ikerketak berak ere eraldatu egin behar du». Liburu hau ahalegin horri egindako ekarpen bat da eta, ixteko, begirada guretik ekintza-ikertzaileen nazioarteko komunitatera zabaldu nahi dut.

Lurralde desberdinetan bizi gara, baina planeta bakarra partekatzen dugu. Hori ahazten badugu, lurralde-garapenak eta ekintza-ikerketak iparra gal dezakete.

### 5.1. irudia. Planeta bakarra partekatzen dugu




Eskuartean ditugun erronkei aurre egiteak jakintza aditua, planak, teoria, boterea, eraginkortasuna, arrazoa eta objektibotasuna eskatuko dizkigu; izan ere, gu gara eraldaketa horren aktoreak.

## 5.2. irudia. Gu gara eraldaketa horren aktoreak




Baina, hobe beharrez, espero dut ez dugula ahaztuko esperientzian oinarritutako jakintza, prozesu emergenteak, praktika, maitasuna, parte-hartzea, emozioak eta subjektibotasuna ere behar ditugula. Izan ere, eraldaketa horren erraztaileak ere izan gaitzke.

### 5.3. irudia. **Prozesu horren erraztaileak ere izan gaitzke**




Ekintza-ikerketa gugandik gertuen ditugun komunitateak mugiarazteko erabiltzen has gaitzke. Horrela ulertuko dugu gure planetan gertatzen ari denak nola eragiten digun eta, horrekin batera, planetan gertatzen ari denaren gainean guk nola eragin dezakegun.

#### 5.4. irudia. Ekintza-ikerketa tokiko mobilizaziorako modu bat da




Ekintza-ikertzaileen komunitateek erronka horiei aurre egin nahian lanean ari diren eragileen arteko loturak gara ditzakegu. Horretarako, aurrena familia, ikuspegi eta diziplina askotako ekintza-ikertzaileok elkar hartu behar dugu.

### 5.5. irudia. Ekintza-ikertzaileon komunitate globalak



Bide horretatik, agian, egunen batean ekintza-ikerketak munduan zehar ahalegin haue-  
tan ari diren pertsonak elkarrengana hurbiltzeko duen potentzialaz baliatu ahal izango gara.

#### 5.6. irudia. Ekintza-ikerketak pertsonak elkarrengana hurbiltzeko duen potentziala



# Erreferentziak

- Belenky, F.M., Clinchy, B.M., Goldberger, N.R. eta Tarule, J.M. (1986). *Women's Ways of Knowing: the Development of Self, Voice and Mind*. New York: Basic Books.
- Bentz, J., O'Brien, K. eta Scoville-Simonds, M. (2022). Beyond «blah blah blah»: Exploring the «How» of Transformation, *Sustainability Science*, 17:497-506.
- Blythe, J., Silver, J., Evans, L., Armitage, D., Bennett, N.J., Moore, M-L, Morrison, T. H. eta Brown, K. (2018). The Dark Side of Transformation: Latent Risks in Contemporary Sustainability Discourse. *Antipode* 50(5):1206-1223. <https://doi.org/10.1111/anti.12405>
- Bradbury, H. (2022). *How to Do Action Research for Transformations at a Time of Eco-social Crisis*. Cheltenham: Edward Elgar.
- Chodorow, N. (1974). Family Structure and Feminine Personality, M. Z. Rosaldo eta L. Lamphere-n (Ed.), *Woman, Culture and Society*. Stanford: Stanford University Press, 95-115.
- Costamagna, P. eta Larrea, M. (2017). *Actores Facilitadores del Desarrollo Territorial. Una Aproximación desde la Construcción Social*. Bilbo: Deusto Argitaletxea.
- Fletcher, J.K. (2001). *Disappearing Acts. Gender, Power and Relational Practice at Work*. Cambridge: The MIT Press.
- Freire, P. (2008). *Pedagogía de la Esperanza. Un Reencuentro con la Pedagogía del Oprimido*. Buenos Aires: Siglo Veintiuno Editores.
- Gilligan C. (1982). *In a Different Voice*. Cambridge: Harvard University Press.
- Ives, C.D., Freeth, R. eta Fischer, J. (2020). Inside-out Sustainability: the Neglect of Inner Worlds. *Ambio* 49(1):208-217. <https://doi.org/10.1007/s13280-019-01187-w>
- Kahane, A. (2010). *Power and Love. A Theory and Practice of Social Change*. Oakland: Berrett-Koehler.
- Lahsen, M. eta Turnhout, E. (2021). How Norms, Needs, and Power in Science Obstruct Transformations Towards Sustainability. *Environ Res Lett* 16(2):025008. <https://doi.org/10.1088/1748-9326/abdcd0>
- Larrea, M. (2020). Key Features of First-person Action Research for Second-person Action Researchers, M. Larrea-n (Ed.) *Roots and Wings of Action Research for Territorial Development. Connecting Local Transformation and International Collaborative Learning*. Bilbo: Deusto Argitaletxea.
- Larrea, M., Bradbury, H., eta Barandiaran, X. (2021). Action Research and Politics: Power, Love and Inquiry in Political Transformations. *IJAR-International Journal of Action Research*, 17(1), 7-8.
- Larrea, M., eta Karlsen, J. (2022). Think Tanks for a New Generation of Regional Innovation Policies. *European Planning Studies*, 30(11), 2334-2351.
- Leichenko, R., Gram-Hanssen, I. eta O'Brien, K. (2022). Teaching the «How» of Transformation, *Sustainability Science*, 17:573-584.
- Leichenko, R. eta O'Brien, K. (2019). *Climate and Society: Transforming the Future*. Cambridge: Polity Press.
- Leichenko, R. eta O'Brien, K. (2020). Teaching Climate Change in the Anthropocene: an Integrative Approach. *Anthropocene* 30:100241. <https://doi.org/10.1016/j.ancene.2020.100241>
- O'Brien, K. (2021). Reflecting on the Anthropocene: The Call for Deeper Transformations, *Ambio*, 50:1793-1797.

- O'Brien, K.L., Hochachka, G. eta Gram-Hanssen, I. (2019). Creating a Culture for Transformation. G. Feola, H. Geoghegan eta A. Arnall-en (Ed.), *Climate and Culture: Multidisciplinary Perspectives on a Warming World*. Cambridge University Press, Cambridge, 266-290. <https://doi.org/10.1017/9781108505284.013>
- O'Brien, K. eta Sygna, L. (2013). Responding to Climate Change: The Three Spheres of Transformation. *Proceedings of Transformation in a Changing Climate*, 2013ko ekaina, 19-21, Oslo, Norvegia. Oslo Unibertsitatea, 16-23. ISBN 978-82-570-2000-2
- Sampson, E. E. (1978). Scientific Paradigms and Social Values: Wanted- a Scientific Revolution, *Journal of Personality and Social Psychology*, 36(11), 1332-1343.
- Sharma, M. (2007). Personal to Planetary Transformation. *Kosmos Journal*. Online. Helbide honetan eskuragarri: <http://www.kosmosjournal.org/articles/personal-to-planetary-transformation> (2011ko martxoaren 22an eskuratua).
- Vogel, C. eta O'Brien, K. (2022). Getting to the Heart of Transformation, *Sustainability Science* 17:653-659.

Herri-politiken baitan ekintza-ikerketaren bidez erraztutako lankidetzazko gobernantza prozesuetan hainbat urtetan garatutako ezagutza eta autorearen esperientziaren ikasketak jasotzen dituen ekarpen zorrotza, sakona eta aberatsa da eskuartean duzun liburu hau. Miren Larreak liburu honetan herri-politiken eraldaketaren inguruko ikuspegiak eta bere esperientzia uztartzen ditu maisutasunez, jakituria oparoa darion koherentziaz eta ausardia handiko aldarria plazaratzen du.

Lankidetzazko gobernantza prozesuetan ekintza-ikerketan eragin duten pentsamolde dikotomikoen marko bat planteatzen du, gutako askok ezkutuan izan ditzakegun sakoneko dimentsioak mahai gainean jarri eta hainbat konklusio azaleratzen ditu, errazte prozesuak eraldatzaileagoak izateko. Herri-politiken esparruan lankidetzazko gobernantza prozesuetan edo ko-sorkuntza prozesuetan lanean ari den orok irakurri beharreko jakintza handiko ekarpena da zalantzarik gabe, ez ohikoa den perspektiba bat ekartzen duelako, edukian eta forman.

Naiara Goia Imaz  
Arantzazulab-eko zuzendari nagusia